



Hirigintza
inklusiboaren
ikuspegitik

Pello Sarasua
zine-zuzendariari
elkarrizketa



Fidel Andres eta
Elena Iglesias,
Ekainen gurasoak,
martitzenean,
etxean.

"ZAINDUAK, BABESTUAK ETA OSO MAITATUAK SENTITZEN GARA"

Urtebete da Ekain Andres gazte aretxabaletarra Vietnamen hil zela; haren gurasoen berbak jaso ditu GOIENAK / 16

XABIER URTZELAI ATXA



EUSKO LEGE BILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2024

**Zerrendaburuak
Debagoienari buruz:
kooperatibak,
industria eta euskara,
ikur nagusiak / 2**



**400 korrikalari
domekan Arrasate-
Udalatx lasterketan;
doako busa egongo
da kaletik Udalara / 30**

SINADURAK



2x189€

MÓ BETAURREKO PROGRESIBOAK

BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE
MILA MODELO BAINO GEHIAGO

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 79 29 95
Otalora Lizentziaduna, 18
ARRASATE

943 76 15 75
Ibargarai, 16
BERGARA

www.multiópticas.com



eskatu hitzordua



Kanpaina betean, bost alderdiren asmoak hautagaiek kontatuta

Hauteskunde kanpainaren erdialdera heldu dira alderdi politikoak, eta GOIENAK bost alderditako ordezkariak elkarrizketatu ditu

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE

Inkosten arabera, hauteskunderik lehiatuenak izango dira apirilaren 21ekoak, eta alderdi politikoak hauteskunde kanpaina bete-betean sartuta daude. GOIENA jarraipen berezia egiten ari zaio kanpainari, eta, horren baitan, lehendakariagai edo zerrendaburuiei elkarrizketak egin dizkie, Gipuzkoako beste euskarazko tokiko telebistekin elkarlanean, eta alderdietako ordezkariak elkarrizketak jaso ditu GOIENA aldizkariak.

Atzo emititu zen Imanol Pradales EAJko lehendakariagari eginiko elkarrizketa, eta gaur EH Bilduko Pello Otxandiano lehendakariagaren txanda izango da. Hilaren 15ean izango da ikusgai Denis Itxaso PSE-EEko Gipuzkoako zerrendaburuaren elkarrizketa; 16an, Miren Echeveste Elkarrekin Podemosko Gipuzkoako hautagaiarena; eta 17an, Andeka Larrea Sumarreko Gipuzkoako zerrendaburuarena. Txomin Madinak elkarrizketatu ditu hautagaiak eta Goiena Telebistan emango dira 21:00etan eta 23:00etan.

Bestalde, hilaren 18an, debata eskainiko du Goiena telebistak EH Bilduko Rebea Uberarekin, EAJko Aitor Urrutiarekin eta PSE-EEko Alberto Alonsorekin. Goiatz Aranak aurkeztuta. Hori ere, 21:00etan eta 23:00etan.



IMANOL PRADALES

EAJ
LEHENDAKARIAGAIA

"Bakarrik gobernatzetik ez badugu, ikusi beharko dugu norekin eta zertarako; VOX da marra gorria"

Imanol Pradalesek (Santurtzi, 1975) talka-plana iragarri zuen osasungintzan lehen arreta hobetzeko eta itzarote-zerrendak murrizteko. Dio Osakidetza dela gauzarik preziatuena eta ez dela debate "partidistan" sartuko, eskarmentua eta esperientzia daukatalako eta badakitelako zer eta nola hobetu. Uste du garrantzitsua dela herri akordio bat alderdi politikoei eta eragile sozialekin, "Osakidetza zaintzeko eta sendatzeko" zenbait gauza hobetu behar direlako.

Trantsizio energetikoari dagokionez, irizten dio garrantzitsua dela gizarteak ikustea batzuetan "beharrezkoak" direla azpiegiturak martxan jartzea ingurunearekiko errespetua mantenduz: "Batzuetan, ez dago beste erremediorik; bestela, menpekotasuna edukiko dugu beti, energia beste toki batzuetatik ekarri beharko dugulako". Trantsizioa errealismotik egin behar dela dio, helburu anbiziotsuak izanez.

Pradalesen ustez, tresnak eta askatasuna eman behar zaizkio euskal gazteriarri kalitatezko lana eta etxebizitza lortzeko. Lan arloan, industrian dagoela gakoa dio, lanpostuak han sortuko direla; etxebizitza arloan, emantzipatzea, bakoitzak gura duen bizitza proiektuarekin.

Hilaren 21ean EAJk hauteskundeak irabaziko dituela dio, eta bakarrik gobernatzeko nahikoa eserleku lortzen ez badute "governagarritasunaz" hitz egin beharko dela. Gaineratu du PSE-EEekin egindako koalizio gobernuek emaitza "onak" ekarri dituztela, baina garrantzitsua izango dela A21eko argazkia ikustea: "VOX da guretzat marra gorria".

Bailara eredugarria

EAJko hautagaiarentzat Debagoiena eskualde "garrantzitsua" da kooperatibismoaren bihotza bertan dagoelako. Dio lanari, berrikuntzari eta heziketari begira balio "onak eta positiboak" daudela: "Euskal nortasuna ere antzematen da. Niretzat eredugarria da bailara bezala".



ehbildu

PELLO OTXANDIANO

EH BILDU
LEHENDAKARIAGAIA

"Mapa politikoak aldatu egin direla uste dut, eta A21etik aurrera gauzak ez direla berdinak izango"

Aro berri baten aurrean" daudela uste du Pello Otxandianok (Otxandio, 1983), "egun indarrean dauden koalizio politikoei ez dutelako gehiagorako ematen". Herritarren partetik aldaketa eskaera dagoela gehitu du, eta apirilaren 21ean ikusiko dela hori. Osakidetza puntu "kritiko" batean dagoela dio, eta "erreakzioa" behar duela: "Gobernantza eredu berria behar da, pertsonal politika berria behar dugu, lehen arreta indartu behar dugu eta osasun publikoa ulertzeko adiera zabalagoa behar dugu".

Trantsizio energetikoaz ere mintzatu da eta irizten dio salto egin behar dela energia berriztagarrietan oinarritzen den matrize energetikora, baina aurrez lurralde planifikazio zehatza egin behar dela, eztabaiatu behar dela ereduaren ustez, publiko eta komunitarioa eta jakin behar dela zenbat energia behar den. Halaber, ulertzen ditu landa eremuko herrien kontraktasunak, besteak beste, haren ustez, egungo eredu energetikoa dagoelako "interes lukratiboak" dituzten enpresa energetikoen eskuetan.

Gazteei begirako erronka emantzipazioa dela uste du EH Bilduko lehendakariagaiak, eta behar den politika dela etxebizitza parke publiko handi bat eraikitzea "egiturazko modu batean" etxebizitza prezioak erregulatzeko, jaisteko eta eskuragarri jartzeko.

Otxandianok dio A21eko hauteskundeetako emaitzen ostean Legebiltzarra izango dela "nabarmenki abertzalea. Inoizko abertzaleena, ziurrenik, eta izango dela gehiengo osoz, ezkerrekoa edo ezker joerakoa".

Kooperatibismoan azpimarra

Debagoienetik "pisua eta indarra" dituen kooperatibismoa nabarmendu du: "Uste dut hori badela eredu ekonomikoa, eredu soziala, enpresa eredu bat, etorkizuneari funtsezkoa eta inspiratzailea izango dena apustua egiteko ehun industrial erroto baten alde".



Kontsultatu gure programa hemen:
mirengorrotxategi.eus



MIREN GORROTXATEGI

Elkarrekin Podemosko lehendakariagaia



AUKERATU

EZKERRA

BOZKATU

elkarrekin
Podemos





DENIS ITXASO

PSE-EE
GIPUZKOAKO ZERRENDABURUA

"Zerbitzuen arloan gehiago egin dezakegula uste dut, eta turismoaren kudeaketa orekatua nahi dugu"

Inkestak "errespetuz" irakurtzen ditu PSE-EEk, Denis Itxasoren (Donostia, 1975) arabera, inkestak besterik ez delako eta iritziak baldintzatzeko egiten direlako. Alderdi sozialistako lehendakari Eneko Anduezak kanpaina planteatu du lortutako eskumenetan sakondu behar dela, eta Itxasok fiskalitatea gaineratu du: "Uste dugu Gernikako Autonomia Estatutua garatu den moduan, gure ekonomia garatzeko berebiziko tresna bihurtu denean, mereziko lukeela barrurantz begiratu eta autogobernua eraldatzea Eusko Legebiltzarra izan dadin gure fiskalitatea erabakitzen duena".

Halaber, uste du industriak BPGan behera egin duela eta esparru horri pisu handiagoa eman beharko liokeela. Hala, azpimarratu du turismoa ari dela pisua hartzen: "Zerbitzuen arloan ere gehiago egin dezakegula uste dut, eta turismoaren kudeaketa orekatua nahi dugu. Tasa turistikoa martxan jarri beharko genuke".

Trantsizio energetikoaz galdetuta, euskal ekonomia energia beharretan "oso intentsiboa" dela dio, eta asko behar duela industriaren zati batek: "Ez gara gai kontsumitzen dugun energia guztia ekoizteko. Uste dugu parke eolikoak beharrezkoak izango direla".

Lanpostu publikoetan euskara eskakizunari buruz dio arreta publikoan ziurtatu egin behar dela, baina arreta publikora bideratuta ez dauden lanpostuetan ez duela lehentasunik izan behar.

Erabilgarri izan nahi dute, eta irabaztera doazela dio. EH Bildurekin ez du ikusten gobernatzeko baldintzarik: "Oraindik badago ibilbide etiko bat egiteko, eta herri eremuan ere ez gatoz bat hainbat kontutan".

Debagoienaren ekarpena EAEn

Itxasok uste du Debagoiena EAEn egiten ari den ekarpenak erakusten duela kooperatibak ez direla bakarrik erabilgarriak industriarako, baizik eta beste hainbat sektorerentzako ere ereduagarriak izan daitezkeela.



MIREN ECHEVESTE

ELKARREKIN PODEMOS
GIPUZKOAKO ZERRENDAN
BIGARRENA

"Has gaitezen antropizatutako eremuetan ahal dugun instalazio fotovoltaiko gehienak instalatuz"

Eskuinarekin gobernatzeko asmorik ez duen ezkerreko alderdi bezala definitu du Miren Echevestek (Irun, 1982) Elkarrekin Podemos. Osasungintzan pribatizazioarako bidea "mugarik gabe" ireki dela dio eta publikoa den zerbitzuak publikoa izan behar duela, "guztionez berdina". Langileen egonkortze prozesua egin behar dela dio: "15.000 langile inguru dauzkagu behin-behineko kontratuekin. Has gaitezen dauzkagunak egonkortzetik. Ondoren ikus dezagun non, zenbat eta ze lekutan". Halaber, langile publikoen greben aurrean dio "negoziazio kolektiboa" behar dela eta akordio batera heldu arte ez dela mahaitik altxatu behar.

Legebiltzarra trantsizio energetikoa "presaka" egiten ari dela dio, eta adierazi du Elkarrekin Podemos ez dagoela ados nekazaritza-lurrak energia berriztagarrietako azpiegiturak jartzera bideratzearekin, ezta enpresek kanona ordaintzearekin ere, badaudelako nekazaritzari kalterik egiten ez dioten beste eremu batzuk eta ingurumena bigarren mailan geratzen delako: "Has gaitezen antropizatutako eremuetan ahal dugun instalazio fotovoltaiko gehienak instalatuz".

Etxebizitzari lotuta, gazteen emantzipazioan jarri du azpimarra, prezioengatik ezin direlako emantzipatu batez beste 30 urtera arte. "Nahi badiegu hurrengo belaunaldiei emantzipatzeko aukera bat eman, etxebizitza publikoak eduki behar ditugu", dio.

Hauteskundearen ostean, euren babesa beharrezkoa bada, "eskubide unibertsalen alde egiten duen gobernu-proiektu baten alde" egingo dutela aurreratu du, "iraultza" eta "aldaketa" egin behar direla uste baitute.

Kulturaren arnagune

Echevesteren ustez, Debagoienak EAEn egiten dion ekarpena kulturaren arnagune izatearena da: "Debagoieneko edozein herritan Gipuzkoako kultura ikusten duzu. Bertan mantentzen da gure kultura bizirik".



ANDEKA LARREA

SUMAR
GIPUZKOAKO ZERRENDABURUA

"Gure helburu politiko nagusia da Euskadik behar dituen zerbitzu publikoak berreskuratu eta indartzea"

Espainiako Gobernuan Sumar egiten ari den politika progresistak "oso garbiak" direla gaineratu du Andeka Larreak (Bibo, 1972). Helburu politiko nagusizat dituzte zerbitzu publikoak, eta horiek "berreskuratu eta indartu" nahi dituzte alderdi guztiekin hitz eginez, baita langileekin eta euskal gizartearekin ere. Osakidetzaz hitz egin du eta azaldu du herri zerbitzu bezala funtzionatzeko herri akordioa eskatzen duela. Funtzionarioen grebei dagokienez, uste du baldela garaia langileen sindikatuen eskaerak entzuteko.

Hauteskunde programan Trantsizio Energetikorako Legea "etsigarria" dela dio Sumarrek, Larrearen esanetan, multinazionalen ematen zaielako aukera trantsizio energetikoaren lidergo izateko: "Uste dugu diagnostiko partekatua egin behar dela, trantsizio ekologikoa eta ekonomikoa. Gure programan agertzen dira neurri batzuk oso ezberdinak direnak legearekiko. Kontsumitzeko aukerak eta dirulaguntzak herri komunitateentzat, adibidez".

Etxebizitzari dagokienez, etxebizitzaren alokairuaren prezioak norberaren soldataren %30 izan beharko luke. Horrekin batera, gehitu du etxebizitzaren gaiak politika publikoa izan behar duela eta ezin dela utzi negozio pribatuaren esku.

Legebiltzarrean ordezkari izango duten ziurtasuna dauka Larreak, eta gehiengo absoluturik ez badago prest daude proposamenak eta legeak negoziatzeko; hala ere, "politika kontserbadoreak" egiten dituztenekin ez dute inolako akordiorik izango, "ez badago aldaketa nabaririk politiketan".

Lan-kulturaren isla

Debagoieneko kooperatibismoa mundu osoan eredu-garria dela azpimarratu du Sumarreko ordezkariak. Tradizio propioak ere nabarmendu ditu; bereziki, euskara eta horren bueltako ondarearen zaintza.

arizmendi
ikastolaLan
bide
HEZIKETAZATOZ ATE
IREKIETARA!

www.arizmendi.eus

Apirilak 17
17:30ean
Ferixalekuan
(Arrasate)Gizarte
eta kirol
animazioaren
irakaskuntzaOsasun
larrialdiaMikroinformatika
sistemak eta
sareakErizaintza
zaintza
osagarriak

Egonkortasunaren berme izan nahi du Alderdi Sozialistak

Arrasaten izan ziren Alderdi Sozialistako kideak kanpainako lehen egunean, arrosak banatzen

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Kanpainako lehen egunean arrosak banatzen ibili ziren Euskadiko Alderdi Sozialistako kideak, Arrasaten. Denis Itxaso Gipuzkoako zerrendaburua bertaratu zen, eta, harekin batera, Gipuzkoako zerrendan hirugarren doan eta Antzuolako zinegotzi izandako Miren Gallastegi, Rafaela Romero arrasatearra eta Yoana Sanchez zinegotzia.



Itxaso arrosak banatzen. GOIENA

Industriaren garrantzia

Loreak banatu aurreko adierazpenetan industriaren garrantziaz mintzatu zen Itxaso, eta Arrasate industriaren biriketako bat dela adierazi zuen. Idoia Mendia lehendakariordeaz ere gogoratu zen: "Euskadik Espainiako langabezia tasa baxuena" badu haren lanari esker izan dela aipatu zuen. Alderdiarentzat trantsizio energetikoak duen garrantzia

azpimarratu zuen, eta, amaitzeko, egonkortasunaren beharraz hitz egin zuen Gipuzkoako zerrendaburuak: "Gobernuek neurriak aurrera ateratzeko egonkortasuna behar dute, eta Alderdi Sozialista beti izan da egonkortasunaren berme".

Aldaketaren garaia dela azpimarratu du EH Bilduk

Oñatin ekitaldia egin zuen EH Bilduk, Iزارo Elorza, Rebeka Ubera eta Arkaitz Rodriguezekin

G.B.Z. OÑATI

Oñatin egin zuen kanpainako lehen agerraldia EH Bilduk, apirilaren 9an. Iزارo Elorza alkatea eta Eusko Legebiltzarreko hautagai Rebeka Ubera eta Arkaitz Rodriguez egon ziren bertan, beste hainbat zinegotzi eta hautagaien babesarekin.

Aldaketaren garaia

Elorza izan zen hitza hartzen lehena. Erreferentzialtasuna izatearen garrantzian sakondu zuen, eta horretarako Oñati jarri zuen adibide gisa. Gobernatzeko modua ere izan zuen hizpide: "EH Bildu horretarako lanean ari da etengabe, berdinetik berdinerako ereduan, pertsonen zaintza erdigunean jarririk".

Uberak hartu zuen hitza hurrena, eta apirilaren 21ean "ziklo berri bat" irekiko dela adierazi zuen. EH Bilduren programaz

ere mintzatu zen: "Hainbat eta hainbat neurri gure udalerribatuetan praktikara eraman ditugu". Azkenik, Arkaitz Rodriguezek aldaketarako garaia dela adierazi, eta azpimarratu zuen hauteskunde egunean bertikoei botoa eman edo aldaketa

proposatzen duen EH Bildu bozkatu erabaki behar dela.

Atzo, berriz, osasungintzaren inguruko hitzaldia egin zuten Rebeka Uberak, Larraitz Arriolak eta Karlos Ibargurenek, Arrasateko EH Bilgunean.

Hurrengo ekitaldia, Arrasaten

Hurrengo ekitaldia ere Arrasaten egingo dute. Apirilaren 15ean izango da, 19:00etan, Biteri plazan. Ekitaldi nazionala izango da, eta Arkaitz Rodriguez, Nerea Kortajarena eta Maider Morras egongo dira bertan.



Oñatin egindako ekitaldiaren argazkia. GOIENA


GOXOTASUNEZ ERAIKITAKO KALITATEZKO ESKOLA
BATXILERGOAK



Guztion eskola, guztion artean

MATRIKULAZIOA APIRILAK 8 - 19

- Zientziak eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Arteak
- Orokorra



www.arrasatebhi.hezkuntza.net
943 89 94 78

- Zientziak eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Orokorra



www.ipintzabhi.hezkuntza.net
943 89 94 44

- Zientziak eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak



www.onati.net
943 89 92 98



Euskara eta zientzia aldarrikatu ditu Euzko Alderdi Jeltzaleak

Bergarako Laboratorium museoa egin zuten agerraldia jeltzaleek, Markel Olano eta Elene Leterekin

G.B.Z. BERGARA

Bergarako Laboratorium museoa izan ziren apirilaren 9an Markel Olano eta Elena Lete, Euzko Alderdi Jeltzalearen hautagaiak, Debagoieneko hainbat alderdikiderek batera.

Euskara eta teknologia

"Euskadiren garapenerako" euskarak eta teknologia elkarrekin joan behar dutela adierazi zuen Olanok: "Adimen artifizialera eta abangoardia teknologikora jauzia egin behar du gure hiz-

kuntzak orain". Letek azaldu zuenez, EAJk argi du "Euskadiren etorkizuna euskara eta teknologia edo zientzia" direla.

Beste bi ekitaldi bailaran

Oñatin egingo dute hurrengo ekitaldia, apirilaren 12an, 18:30ean, Santa Ana antzokiaren aurrean, Bingen Zupiriarekin. Azkena apirilaren 17an izango da, Arrasaten, Debagoieneko Ospitalean, 11:00etan. Bakartxo Tejeria eta Debagoieneko hautagaiak izango dira bertan.



Markel Olano eta Gipuzkoako zerrendako kideak, martitzenean Bergaran. GOIENA



Roberto Uriarte, Pilar Garrido eta Miren Echeveste, atzo, Arrasaten. GOIENA

Gizarte-ekonomiaren alde agertu da Elkarrekin Podemos

Elkarrekin Podemosek atzo egin zuten bailarako lehen agerraldia, Arrasaten. Pilar Garrido, Euskadiko Podemosen koordinatzaile nagusia; Miren Echeveste, Euzko Legebiltzarreko hautagaia; eta Roberto Uriarte, Unidas Podemo-

seko diputatu ohia, bertaratu ziren. Hirurek jarri zuten azpimarra gizarte-ekonomian, eta nabarmendu zuten kooperatibena dela aberastasuna modu orkatuenean banatzen duen enpresa eredu. Era berean, esan zuten kooperatibetan %53 direla emakumezkoak eta hamar kooperatibatik lauk dituztela emakumezkoak presidente karguan.



Andeka Larrea, Alba Garcia eta Juan Luis Merino, Arrasateko agerraldian. GOIENA

Etxebizitza publikoen aldeko aldarria egin du Sumarrek

Sumarrek Arrasate egin zuten kanpainako lehen agerraldia. Alba Garcia lehendakariagaia, Andeka Larrea Gipuzkoako zerrendaburua eta Juan Luis Merino hautagaia izan ziren bertan. Arrasate hautatzearen arrazoia

Gipuzkoako beste sei udalerrirekin batera Euskadiko etxebizitzaren preziorik tentsionatuena duen udalerrietako bat delako izan zela azaldu zuten.

Alor horretan hainbat proposamen egin zituzten; besteak beste, alokairuen gehiegizko prezioak mugatzea eta geldiaraztea edo alokairuko etxebizitzaren parke publiko bat sortzea.



LANERAKO FORMAZIOA

%100 DIRULAGUNTZAREKIN

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE			
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
IKASTARoen IZENAK		ORDUAK	DATAK
UF0876	FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUETARAKO IRUDIKAPEN GRAGIKOA. PLANOEN IRAKURKETA	60	2024/05/06 2024/06/04
UF0878	TXORIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETATAN MAKINAK, TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA. KONBENTZIONALA	80	2024/09/23 2024/11/05
UF0883	TXORIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATZEA	30	2024/06/05 2024/06/18
FMEH00750H	EGIAZTAPEN TRIDIMENTSIONALA	30	2024/05/06 2024/05/17
UF0879	TXORIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK PRESTATZEA	80	2024/11/06 2024/12/19
FMEM00110H	CAM NX (2 1/2 ETA 3 ARDATZ FRESAGAILUAN)	40	2024/10/21 2024/10/30
FMEC0002	ELEKTRODO ESTALIZKO ETA TIG BIDEZKO SOLDADURA	20	2024/04/22 2024/05/08
FMEH00260H	FANUC MANUAL GUIDE BIDEZ LAGUNDURIKO PROGRAMAZIOA	20	2024/05/13 2024/05/28
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
ELEE003P0	ELEKTRIZITATEAREN OINARRIZKO OINARRIAK	60	2024/05/06 2024/06/05
UF0885	ETXEBIZITZA-ERAKINETAN BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA	80	2024/10/14 2024/11/27
ENAE00050H	EGUZKO ENERGIA, INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOEN OINARRIAK	40	2024/11/28 2024/12/19
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
UF0314	KONTABILITATE KUDEAKETA	90	ZEHAZTU GABE
UF0343	SOLDATA-ORDAINSARIAK, NOTIZAZIOA ETA ZERGA-BILKETA	80	ZEHAZTU GABE
BESTEAK			
COML003P0	ORGA JASOTZAILIEN ERABILERA	8	2024/05/13 2024/05/15
COML00060V	ZUBI GARABIEN ERABILERA	6	2024/04/22 2024/04/24
LEHENTASUNA: LANGABETUAK - GAITASUN ZIURTAGIRIAK			
FMEE0108	FABRIKAZIO MEKANIKOKO ERAGIKETA OSAGARRIAK	440	2024/04/29 2024/11/11
ENAE0108	INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK	540	2024/10/07 2025/03/25










Agirrebidea, 2 - 20570 Bergara (Gipuzkoa) Tel.: 943 89 92 72 - 688 81 50 70 - ikastaroak@maltuna.eus

Azken agurra egin diote Jose Antonio Ardanzari

Arrasateko alkate izan zen 1979 eta 1983. urteen artean; horren ondoren, lehendabizi, Gipuzkoako ahaldun nagusi izan zen, eta gero, berriz, lehendakari. Eguztenean izan zen hileta-elizkizuna, Elorrioren, haren jaioterrian

Iñigo Barrena ARRASATE

Jose Antonio Ardanza (Elorrio, 1941) joan den astelehenean zendu zen, 82 urte zituela, gaixotasun luze baten ondorioz. Ardanza hamalau urtez izan zen lehendakari, eta, horrez gainera, Arrasateko alkate izan zen agintaldi batean. Alderdi jeltzaleak "atsekabe handiz" hartu

zuen berria, eta Ardanza, "pertsonea ona, zintzoa, bakezalea, jeltzalea, abertzalea" zela azpimarratu zuten.

Ardanzaren heriotzaren ondorioz, denetariko erreakzioak izan ziren, alderdi politiko, politikari eta Ardanzarekin berearekin lanean jardun zutenen aldetik. Eusko Jaurlaritzak hiru

dolu-egun ezarri zituen, asteazkenean lehenik Ajuria Enea jauregian hil-kapera jarri eta ondoren arratsaldean Elorrioren, haren jaioterrian, azken agurra eman aurretik. Hileta elizkizun jendetsua izan zen, non ordezkari politiko, instituzional eta sozial zabala bildu zen Sor-tzez Garbiaren basilikan.

Arrasateko alkate

Jose Antonio Ardanzak Arrasaten ekin zion ibilbide politiko profesionalari. Aurretik, Euskadiko Kutxan aritu zen lanean, 1979. urtera arte, eta 2011. urtean Goienan *Euskadi bihotzean* liburua aurkezpenaren harira egindako elkarrizketan esan zuen Euskadiko Kutxan zela Arrasate "kooperatibismoaren erdigunean" jarri zutela. Hain zuzen, 1979. urtean izan ziren udal hauteskundeak, eta Ardanza izan zen aukeratua. Modu horretan, demokrazia garaiko Arrasateko lehen alkate bilakatu zen Ardanza. Arrasateko alkate ohiak berak aitortu zuen, elkarrizketan, garai "oso zailak" izan zirela Arrasateko alkate egon zen sasoiak. Ardanzak osoko bilkurak aurrera eramateko izaten zituen "zailtasunak" ekarri zituen gogora, eta bat baino gehiago "bertan behera" utzi behar izan zituela, osoko bilkuren aretoan izaten zituzten lis-karren ondorioz. Duela bost urte, 2019ko apirilaren 5ean, Arrasateko alkate moduan omenaldia jaso zuen Eudelen esku-

tit, Gernikan, 1979ko gainontzeko alkateekin batera.

Javier Retegi bergararra harekin aritu zen lanean Euskadiko Kutxan, eta alkatetzan ere harreman estua izan zuen Ardanzarekin. Retegik adierazi duenez, Arrasaterentzat eta Euskal Herriarentzat egindako lan guztia "eskertzeko" unea da, eta pertsona "atsegina" zela azpimarratu du.

Hamalau urtez lehendakari

Arrasateko alkatea izan zen 1979 eta 1983. urteen artean, baina agintaldia amaitu aurretik, 83an bertan, Gipuzkoako ahaldun nagusia izatera pasatu zen. Ondoren, 1984. urtean EAJn izan zen krisiaren ondorioz lehendakari izendatu zuten Ardanza, eta urtebete geroago izendatu zuten lehendakari. Urte hartatik aurrera, hamalau urtez egon zen lehendakari, 1985 eta 1999. urteen artean. Lehendakari moduan urte gehien eman dituen politikaria da Jose Antonio Ardanza, lau legegintzaldi egin baitzituen karguan.



Jose Antonio Ardanza, Arrasateko alkate zela. GOIENA

Ibilgailuen gaineko zerga, garestien, Bergaran

Bergara da ibilgailuen gaineko zerga garestiena duen herria. Hala ondorioztatu du Automovilistas Europeos Asociados elkarteak, Espainiako eta Hego Euskal Herriko udalerriek ibilgailuei ezartzen dizkieten zergak aztertu ostean. Hiriburuen artean, lehen postuan Donostia ageri da, baina lurraldeko hamazazpi udalerrri daude Donos-

tiaren gainetik. Hala, Bergara da garestiena, baina Aretxabaleta da bigarrena eta Oñati bosgarrena. Azterketa horren arabera, ibilgailu motaren arabera, Bergaran, urtean, 52 eta 405 euro artean ordaintzen dute herritarrek zerga horregatik. Aretxabaletan, 50 eta 396 euro artean; eta Oñatin, 49 eta 365 euro artean. Donostian, 43 eta 377 euro artean. Euskal foru lurraldeek euren zerga arauak dituzte eta beste toki batzuetan baino tarifa garestiagoak ezartzen dituzte.



2023. urteari dagokion errenta kanpaina, abian

Aurreikuspenen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak 358,4 milioi euro itzuliko dizkie Gipuzkoako herritarrei; Ogasunak jaso beharrekoa, berriz, 305,6 milioi euro izango da, eta, beraz, kanpainak 52,8 milioiko saldo positiboa izango du

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA Astelehenean hasi zen 2023. urteari dagokion errenta kanpaina, eta, urtero bezala, hiru modutara egin ahalko da errenta aitortpena: autolikidazio proposamenaren bitartez –astelehenean hasi ziren–, Internet bidez –egunean hasi ziren bide horretako onarpenekin– eta errenta mekanizatuaren bidez. Azken modu horretara erreserbatzeko aukera gaurtik ekainaren 7ra bitartean egongo da; apirilaren 16tik aurrera egongo dira bulegoak irekita horrela egin ahal izateko.

Joan den astean Foru Aldundian egin zuten prentsaurrekoan, Jokin Perona Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak adierazi zuen aurreko urtean hartu zituzten ezohiko neurri batzuek inpaktua izango dutela kanpainan honetan, eta baita mutualitateen gaiak ere. Horiek kontuan hartuta, zifra hauek eman zituen: "Gure departamentuak egindako aurreikuspenaren arabera, gipuzkoarrei 358 milioi euro itzuliko genizkieke; hau da, lehengo urtean baino 24 milioi euro gehiago. Aldiz, jasotzeko garaian, 305,6 milioi euro ordaindu beharko lituzkete gipuzkoarrek; lehengo urtean baino 168 milioi euro gutxiago. Meta-tua 52,8 milioi euroko saldo



Ogasun publikoko langileak bulego batean. AMAIA TXINTXURRETA

positiboa izango litzateke, herritar guztientzat".

Ogasuneko zuzendari Irupe Yarzak gehitu zuen guztira 415.000 aitortpen inguru espero dituztela eta honela sailkatuko direla modalitateen arabera: %55,4 proposamenen bitartez, Internetez %26 inguru eta aurreko urtearen bitartez %18, hain zuzen. "Emaitzaren arabera, %71 itzultzeko izango dira eta, batez beste, zergadunek jasoko dituzte 1.215 euro. Eta ordaintzera tokatzen zaizkien –aitortpen guztien %29–,

batez beste, ordaindu beharko dituzte 2.547 euro".

Mutualitateen berezitasuna

Aurtengo errenta kanpainak badu berezitasun nagusi bat: 100.000 pentsiodun ingururi eragin dien mutualitateen gaia. Horri lotuta, bi zutabe nagusi azpimarratu zituen foru diputatuak: Auzitegi Gorenaren bi ebazpenen baitan egindako kalkulak direla eta Gizarte Segurantzak eta beste erakunde batzuek egindako kalkulak ikusiko dituztela zergadunek.



Lan istripua gertatu zen eguneko argazkia. GOIENA

Hil egin da zama gainera erorita lan istripua izan zuen langilea

Eskoriatzako Fagor Ederlan enpresaren kanpoan gertatu zen istripua martxoaren 13an; martitzenean hil zen

J.M.M. ESKORIATZA

Hil egin da joan den martxoaren 13an lanean ari zela zama gainera erori zitzaion Orixol Garraioak –TKV taldea– enpresako 25 urteko gizonetako behargina. Eskoriatzako Fagor Ederlan enpresarentzako lanean ari zela gertatu zen ezbeharra, eta, LABek jakinarazi duenez, "istripuak eragindako zauri larrien ondorioz" gertatu da heriotza.

Horrekin lotuta, sindikatuak salatu du "2024an dagoeneko 18 langile" hil direla lan istripuetan eta "istripu arin eta larri kopuruaren gorakada gogorra" bizi izaten ari dela gizartea. Gaineratu du garraioa dela "istripu larri eta hilgarrien intzidentzia oso altua pairatzen ari den sektoreetako bat", bertako langileek "trafikoko istripu traumatikoez gain arazo kardiobaskularrak modu nabarmenagoan" izaten dituztelako.

Era berean, garraiolarietako "zamalan prozeduretan gertatzen diren istripuak" jasaten dituztela ere nabarmendu du LABek, eta, hori dela eta, salatu du zamalanak garraiolarietako ez dagozkien arren, enpresa askotan ez dela "segurtasun arau hori errespetatzen" eta "bitartekorik ez duen garraiolariari" uzten zaiola materiala manipulatzeko. Horregatik, sindikatuak azpimarratu du "kontratek zamalan prozedurak garatu eta abian ipini behar dituztela, lan horiek egingo dituzten langileen arriskuak aurreikusi eta beharrezkoak diren neurri guztiak ezarritik".

Sindikatuak, kalera

LABek, ESK-k, Steilasek, Hiruk eta EHNE-Etxaldek osatzen duten intersindikalak elkarretaratzea egin zuen atzo, eguna, "heriotza hori salatuz".

LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA DEBAGOIENEAN ATEAK ZABALIK

Etorkizuna zure esku

Fp ikasLAN Gipuzkoa

ARETXABALETAN:

Apirilak 24
Malatzak 8



ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, 21g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETA
☎ 943 79 79 00 / Whatsapp: 688 811 489
la@aretxabaleta.com
www.ale-aretxabaleta.eus

BERGARAN:

Apirilak 13
Malatzak 7



Miguel Altuna LHII Bergara
Agimibidea, 2 • 20570 BERGARA
☎ 943 899 270 / 943 899 271
info@maltuna.eus
www.maltuna.eus

OÑATIN:

Apirilak 17
Malatzak 15



Oñati Institutua
Lamaña auzoa, 16 • 20560 OÑATI
☎ 943 899 300
info@onati.net
www.onati.net

2024 - 2025 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA MAIATZEAN



ZABALIK

IBAN PEREZ HERNANDEZ

Urrun eta gertu

Urteko lehen idatzia da niretzat zutabe honetan. Apirilean idatzi ditut hitz hauek. Askorako eman du urteko lehen hiruhilekoak. Baina saiatuko naiz zentratzen azken egun hauetan bizi izandakoan.

Urte asko dira jaino nintzen Oñatin bizi ez naizenetik, baina Goiena bezalako komunikabide bati eta teknologia berriei esker bailara gertutik jarraitu eta sentitzen dut.

Aste Santuko eta Pazko Asteko oporrak baliatuz, Sevillaraino joan nintzen, Athleticen Kopako finala ikustera –han eraiki zuten Athletic Hirian–. Goiena kontaktuan jarri zen nirekin eta eskatu zidaten hango testigantza bat bidaltzeko. Eta, noski, plazera izan zen han bitzitakoak, nolabait, helarazi izana komunikabide honi.

Horrek bultzatu ninduen ikertzera debagoiendarrak nola bizitzen ari ziren neu bizitzen ari nintzen ekitaldi bera.

ARGAZKIEK ETA BIDEOEK NAHIKO ISLATZEN DUTE, NOLABAIT, HAN BIZITAKOIA

amaierako helburua ixtea falta zaie, eta ez dute erraza izango Txapeldunen Ligarako sailkatzea, baina bidea zoriontsuago egingo dutela ez dago zalantzarik.

Zaila da bizitakoa hitzekin deskribatzea. Argazkiek eta bideoek nahiko islatzen dute, nolabait, han bizitakoa.

Apirilaren 6a izugarria izan zen Bizkaian eta Sevillan, gabarra 40 urte igaro eta gero atera dute, askok sekulako pisua kendu dute motxilatik eta belaunaldi askok dagoeneko ikusi dute beraien talde kuttuna kopa bat altxatzen.


Goienak primeran islatu zuen apirilaren 6ko aste bukaera hura debagoiendar athleticzaleen irudiekin eta bideoekin. Eta, beste behin, ehunka kilometrotara nuena gertu sentitzeko aukera izan nuen, nahiz eta dagoeneko ia bi hamarkada daramatzadan herritik kanpo.

Adibidez, horrela jakin nuen nire herriko taberna batean partidua zuzenean jarraitu behar zutela.

Aurretikoa eta ondorengoa. Guztiok dugu dagoeneko emaitzaren berri eta askok partidaren analisia eginda dute. Orain, bilbotarrei liga

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Gure bazterrak I

MAIDER GALARDI F. AGIRRE
'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/KYU3Q](https://labur.eus/kyu3Q)

Hego haizeagatik edo tesiko azken urtearen estresagatik 06:30erako ez naiz ohean kabitzen. Erratzun nago, aitita eta amamarenean doktoretza tesiari bultzada bat emateko erretiratuta. Eguna argitzerako, korrika noa Xorroxinerantz, musika aurikularretan. Hala joan naiz Gorostapalotik datorren bidegurutzera arte: erdi korrika, erdi oinez erritmo bizian. Aurrerago topatu dut lehen katagorria, eta topera dudana musikaren atzetik entzuten ditut txoriak eta

erreka. Sobera dut Bad Gyal, eta enbarazu egiten dit abiadura azkarrak eragindako arnasestuak. Kendu ditut kaskoak, eta banoa lasai erreka ondok ur jauzira arte. [...] Gogoratzen dut iaz M-rekin etorri ginenekoa: herri sarrerako parkinga beteta zegoen, eta galdetu ziguten ea Xorroxinera gindoazen. Baietz guk, eta langileek, topera zegoela paseoa. Biharamunean joan ginen, eta bide hori dozenaka aldiz egin badut ere, turista bat gehiago izatearen sentazioa ezin izan nuen gainetik kendu.

Ez gara engainatuko: duela 40 urte Baztanera etorritako bikote baten ondorengoa naiz,

eta beti izan dut kanpo-barru sentipen hori. Hala sartzen naiz Zubipuntara txikitatik, pixka bat burua jaitzita, nahiz eta N-k behin esan zidan nire senideak jada kasik bertako direla. Oraingoan ere itzuli gara tabernara afaltzera. Ezin dut saihestu barrara apalduta hurbiltzea, eta halabeharrez altxatu dut burua zerbitzariari afaria eskatzeko. Han ikusi dut *Erdiz Bizirik!* dioen banderola. Disimulatu nahi izan dut noizean behin hara goazen "bisitari jatorron" eta erabat konprometitzen ez garenon deserosotasuna, baina egiaz banaizen kanpotarraren tonu ia erridikuluan eskatu dizkiot *xinger* eta *gasna* bokadiloak.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala




Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zergatik MGEPn?

Bergarakoa izanda, Miguel Altunan egitea neukan pentsatuta, baina, gurasoekin hitz egin ostean, MGEPn egitera animatu ninduten eta Arrasatera etorri nintzen.

Heziketa ziklo horretan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue; hau da, talde-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer-nolako erronkak izan dituzue?

Bi urtean zehar askotariko erronkak izan ditugu:

Lehenengo mailan hiru erronka nagusi izan genituen:

1. Zilindroa: bertan zilindro baten birdiseinua egin behar izan genuen.
2. Kirolife-k proposatutako bizikletako portabidoiaren birdiseinua.
3. Eguzki jarraitzaile baten diseinua. Hori, Garapen Jasangarriko Helburuei lotuta (GJH).

Eta bigarren mailan lau erronka izan ditugu:

1. Kurtsoaren hasieran, 3Dexperience.
2. Fundizioko pieza baten diseinua eta fabrikazioa.
3. Plastikozko pieza baten diseinua eta injekzio bidezko fabrikazioa.
4. Skate baten diseinua eta fabrikazioa.

Egia esateko, bi urte hauetan asko ikasi dudala uste dut.

Lehen maila orokor samarra da, oinarriak hartzea beharrezkoa da, eta gero, bigarren mailan, batez ere, skatearen erronkan diseinuko fase guztiak landu ditugu: sorkuntzatik hasi eta produktua fabrikatzeraino, tartean sortzen diren arazoei konponbideak bilatuz. Hasieran, gure diseinuak nahiko libreak izaten dira, baina gero, nola fabrikatuko ditugun pentsatzerakoan, muga asko daudela konturatu izan gara. rte oso bat baliozkotzen dute; beraz, hiru ikasturtetan egin ahal izango dut.

“Gauzak diseinatzea eta marraztea gustuko nituen, eta Fabrikazio Mekanikako Diseinua goi mailako heziketa zikloa egitea erabaki nuen”.

Martin Verguizas Arroitauregi (Bergara)

Fabrikazio Mekanikoko Diseinuaren Goi Mailako Heziketa Zikloa

Esperientzia duala ere izan duzu; kontu egiguzu zerbait.

Duala Sormen Design SLn ari naiz egiten.

Beste enpresa batzuen produktuen diseinuak egin, eta gero prototipoak fabrikatzen ditugu. Gaur egun, CAFentzako tren batekin, Irizar enpresako autobus batekin eta Niessen-en etengailuekin ari dira lanean. Nire lana diseinuan eta prototipoen muntaian laguntzea da.

Gustura nago, lankideek asko lagundu didate.

Enpresan egiten ari naizena guztiz lerrokatuta dago ikasi dudanarekin.

Nire lehenengo lan esperientzia izan da, eta merezi izan du. Egia da etxean denbora gutxiago izan dudala ikasteko, baina ondo moldatu naiz dena egunean eramateko.

Erabakita dituzu hurrengo pausoak?

Datorren ikasturtean ikasten jarraitzeko asmoa daukat. Baina oraindik ez daukat guztiz argi zer.



Eman izena!

MGEP: 664 298 683 // 664 298 704

ATE IREKIAK: Maiatzak 4, 11:00

Erguingo patioa berritu dute, erabilera aldatzeko

Dagoeneko amaitu dituzte Arrasate Herri Eskolako Erguin guneko patioa berritzeko lanak, 2023ko abenduan hasi zituztenak; hala, patio berriak helburu pedagogikoek ezarritako hainbat elementu ditu. Besteak beste, natura elementuak, jolas libererako

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasate Herri Eskolako Erguin guneko patio berriak hainbat helburu hezitzaile ditu. Batetik, osasunaren sustapena eta ingurumen hezkuntza. Helburu horren baitan, espazio naturalizatuagoak sortu gura izan dituzte, espazio berdeagoak, naturarekiko kontaktuan daudenak.

Hezkuntza inklusiboa lortzeko bidean, jarduera ludiko eta sortzaileetarako aukera emango duten espazioak sortu dituzte, "jolas libre eta partekaturako erronkak eskainiko dituztenak eta ikasle guztien parte-hartzea ahalbidetuko dutenak", Udal Gobernuaren esanetan.

Berdintasuna ere bultzatu gura dute, "harreman parekideagoak sustatuko dituzten espazioak sortuz, jolaserako eta jardueretarako aukerak dibertsifikatuz eta gatazkak modu positiboan kudeatuz, umeen zaintzan erantzunkidetasuna sustatuz".

Azkenik, irakaskuntza sozialaren baitan, erabilera ludiko askotarako aukera emango duten espazioak sortu dituzte, "komunitatea osatu ahal izateko eskola-orduetan zein eskola-orduetatik kanpora, auzo hezitzaileetako ekipamendu ireki gisa".

Hainbat elementu pedagogiko

Zati handiena mugimendu eremuak hartzen du, eta askotarikoa dira han dauden jolas elementuak. Besteak beste, akazia-enbor bertikalez sortutako labirintoa, kautxuzko tontorrak, akaziazko enborrez osatutako jolas eremua, sare bertikalak eta saltorako eremua daude. Azken hori tranpolin borobil batez osatuta dago, taldean jolasteko zabu batez lagunduta.

Halaber, esplorazio eremuak bilatzeko antzoki bat ere jarri dute, "garapen artistikoa sustatzeko", eta pinu-azalez osatutako espazioa sortu dute irudimena lantzeko, eraikuntza edo



Elementu naturalekin osatutako patioa egin dute. ARRASATEKO UDALA

bestelako jarduerak egiteko. Horrez gain, gune sinbolikoa ere badu, hondar-gunearekin, eta lasaitasunerako elementuak ere ezarri dituzte. Azkenik, bioinerttasunaren eremu bilakatu dute patioa, loreontziak jarrita.

Elkarlanaren emaitza

Proiektuaren sustatzailea Arrasateko Udala izan da, Eusko Jaurlaritzaren finantzazioarekin. Aurrekontua 120.908,89 eurokoa izan da, BEZik gabe -146.299,76 euro BEZa barne-.



Musakolako eraikin berria egiteko lanak. ENEKO AZURMENDI

Musakolako lanak aurrera doaz

Arrasate Herri Eskolako Musakola guneko eraikin berria egiteko lanak ere aurrera doaz. Abenduan hasi zituzten lan horiek, eta, ondo bidean, 18 hilabete beharko dituzte bukatzeko. Hala, 2025-2026ko ikasturterako egongo litzateke prest eraikin berria.

Garaia Parke Teknologikoan kapitala handituko du Udalak

49.250 euro gehituta, 2.026.161,04 euroko kapitala izango du enpresan, osoko bilkuran hala onartu ostean

E.A.B. ARRASATE

Udalak Garaia Parke Teknologikoan daukan kapitala handitzea onartu zuen udalbatzak martitzeneko osoko bilkuran. Egun duen kapitala 1.976.691,04 eurokoa da; hala ere, 2024ko otsailetarako aurreikusitako diruzaintza-premiari erantzunez, bazkide sustatzaileek 550.000 euroko kapital-gehikuntza egingo dute, bakoitzak dagokion ehunekoan. Arrasateri %9,074 dagokio: 49.250 euro gehituko dizkio enpresari; Udalak izango duen kapitala 2.026.161,04 eurokoa izango da.

Jeltzaleek, kapitala handitzearen alde egon arren, salatu zuten prozedura ez zela ondo egin, eta Garaia buruzko batzorde berezi bat sortzea eskatu zuten. Udal Gobernuak erantzun zien aztertuko dutela beharrezkoa den edo ez.

Bestalde, Bixente Etxeberria jeltzaleak uko egin zion zinegotzi aktari eta Josefa Gorosabelek hartu zuten haren lekua.

Osoko bilkuran minutuko isilunea egin zuten Arrasateko alkate ohi Jose Antonio Ardanzaren omenez (Ikus 6. orria).

Astehenean hasiko dira Iluntz aurreko zebra-bideak egiten

Otalora Lizentziaduna eta Ignacio Zuloaga kaleak lotuko dituzte; lanak ekainerako amaitzea aurreikusten dute

E.A.B. ARRASATE

Ignazio Zuloaga kaletik hasiko dituzte lanak. Lehen fase horretarako, kale hori itxi egingo dute, eta Pablo Uranga kalerako sarbidea Otalora Lizentziaduna kaletik bideratu. Ondorioz, Ignazio Zuloaga kalean ezin izango da aparkatu, eta sarbidea bertako komertzioek soilik izango dute, zamalanak egiteko.

Bigarren faseak Otalora Lizentziaduna kaleko erreie bat ixtea ekarriko du, Okoretigitik Iluntz pareraino, gutxi gorabehera, Muzibarrerako noranz-

koan. Ondorioz, ingurabide edo *bypass* bat egingo dute Ignazio Zuloaga kaletik.

Hirugarren fasean, Otalora kaleko espaloi zati bat itxi egingo dute, Arbolapetatik Iluntz tabernara doan zatian. Modu horretan, espaloia zebra-bide berrira egokituko da. Azkenik, laugarrenean, asfaltatze eta margotze lanak egingo dituzte.

Lanak sei aste iraungo dute; beraz, ekainerako zebra-bideak amaituta egotea aurreikusten dute. Aurrekontua 98.048,57 eurokoa da, BEZa barne.

Sanjuanetako lelo lehiaketa abiatu dute AEDk eta Udalak

Leloaren bitartez, antolatzaileen helburua da arrasatearrak jaiak euskaraz bizitzera animatzea. Hala, aukeratutako leloa Udalak sanjuanetarako aterako dituen euskarrietan erabiliko dute. "Erabilera hori kontuan hartuta, esaldi laburra eta argia izatea baloratuko da". Lanak maiatzaren 3a baino lehen bidali behar dira aed@aedelkarte.eus-era.

'Zinema eta Buru Osasuna' zikloa, Agifes-en eskutik

Gipuzkoako biraren baitan, Arrasaten egingo du geldialdia zineforum zikloak. Apirilaren 16an izango da, Kulturaten, 18:00etan, eta *Inocencia interrumpida* filma proiektatuko dute. Egitasmoaren helburua da buru osasuneko arazoaren ezagutza zabaltzea, baita buru nahasmendua duten pertsonen gizarteratzea sustatzea ere.



AGAKOko hainbat ordezkari, eguaztenean, gaztetxean, egitarauaren kartelarekin. E.A.B.

Apirila ez delako edozein hilabete AGAKOrentzat

1987ko apirilaren 3an okupatu zuen AGAk herriko lehen gaztetxea izango zena, eta 1991ko apirilean sortu zuten AGAKO; hori dela eta, hilabete berezia izan ohi da hau gaztetzearantz; aurten ere, urteurrena ospatzeko egitarau zabala prestatu dute

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Aurten 33 urte beteko dira Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua sortu zutenetik, eta, ohi bezala, egitarau zabala antolatu dute hori ospatzeko, *33 urtez elkartasunaren sarea ehuntzen* lelopean.

Festa eta hausnarketa uztartzen ditu programak eta krisi ekologikoa oso presente dago. "Hemendik gertu jarri gura dituzte parke eolikoak eta ikusi dugu AHTak ere zer-nolako sarraskia eragin duen bailara honetan, beste toki askotan moduan. Hori dela eta, pentsatu dugu egitarauan pisua izan beharreko bi auzi zirela", dio Beñat Barrenak, AGAKOko kideak.

Hala, gaur, 18:30ean, *Krisi ekologikoa aztergai* hitzaldia egingo dute Aramaixo Bizirik taldeko Alain Arrutik eta Beñat Arregik, gaztetzean. 20:00etan, berriz, mural margotzea egingo dute eolikoan aurka: *Azken ibaia guztiz lehortzean konturatuko gara dirua ezin dela jan*.

Bihar, zapatua, mendi martxan joango dira Besaidera, 10:00etan irtenda, eta arratsaldean Azpeitian *Lurraren defentsan Euskal Herria bizirik* lelopean egingo duten manifestazio nazionalerako dei egin dute.

Gauean, Neskatasuna eta Yugar taldeek kontzertua eman go dute gaztetzean, 22:00etan hasita –sarrera bost euro da–.

AGAKO Eguna, apirilaren 20an

Datorren asteburuan ere egitarauarekin jarraituko dute gaztetzeko kideek. Hala, apirilaren 19an, egubakoitza, mahai-futbol txapelketa izango da, 18:00etan hasita. Izena emateko, bikoteko bost euro ordaindu beharko dira. 22:00etan, bestalde, murala mar-

GAUR HASITA, BI ASTEBURU IRAUNGO DUEN EGITARAUA IZANGO DA, HAINBAT EKINTZAREKIN

gotuko dute, *Erasorik ez erantzunik gabe* lelopean.

Apirilaren 20an egingo dute AGAKO Eguna. Hasteko, *Udalatxura eta atxa* dokumentala proiektatuko dute gaztetzean, 12:00etan. Ondoren, 20:00etan hasita, Xaukena elektrotxararak girotuko ditu kaleak, eta, eguna borobiltzeko, kontzertuak egingo dituzte gaztetzean, 22:00etan: No Somos Cicatriz, Chuleria, Joder! eta Kaparrak. Kasu horretan, doakoa izango da sarrera. Hurrengo egunean, garbiketa egingo dute auzolanean, 17:00etan.

Aurrerapauso esanguratsurik ez Iaz, Kokoteraino gaz! kanpaina egin zuen AGAKO, Udalaren partetik "konpromiso falta" sumatzen zutelako gaztetzearerako. Aurten, egoera "zertxobait hobean" daudela aitortu du Barrenak. "Gogotsu gaude eta zerbait lortzeko bidean gaudela esan daiteke, nahiz eta oraindik ez dugun aurrerapauso esanguratsurik ikusi aurten horretan".

NIRE USTEZ

GARAZI BEDATSE

Bollerak

Estreinakoz idaztera gatoz, ni eta kolektibo oso bat. Transmaribibolloen txokora, bazterrera. Oraingoan, primizia: Euskal Herriko Bollo Topaketak badatoz.

Baina, zer da bollera izatea? Ez da soilik nor edo nortzuk desiratzen ditugun. Bizitzeko modu bat da, harremantzeko, gozatzeko, armasteko, elkar ulertzeko, borrokatzeko.... Sistema zis hetero kolonial eta patriarkalaren hegemoniatik harago sortzen den oasia da, izaera, osotasuna, kolektibitatea errealitate bihurtzeko identitate politikoa.

Topaketan, identitatearen inguruan eztabaidatu, beste herri batzuetako bollerekin saretu, eta plazererako tartea hartuko dugu.

Badakigu Arrasaten ere bagaudela, bagarela, bazterretan topo egin dugulako. Hortaz, etorri! Eta... irakurle maitea, zu ez bazara bollera, esaiozu zure lagun bollerari.

Bollerak gara. Bollikauak. Bollera da bide bakarra oihukatzen dugunak, ez dagoelako labea bollotarako. Bolloak gara, bollotxoak, bolleronak, bollotzarrak.

Apirilaren 26an, 27an eta 28an, Leitzan ikusiko dugu elkar!

OHARRAK

Besaidek autobusa antolatu du Tolosarako

Urrezko intsignien banaketa-ekitaldira joateko izango da, eta aurrez izena eman beharko da, Besaideko lokalera joanda, martitzen edo eguaztenean, 19:30etik 20:30era.

'Bezeroei arreta emateko gakoak' ikastaroa

Udalak merkatariei zuzendutako ikastaro bat antolatu du. Izena emateko: 943-42 55 57 telefono-zenbakian, 688 83 26 20 Whatsapp-zenbakian edo formacion@fmg.es helbidera idatzita.

Suizidioaren prebentzioari buruzko saioa

Biziraun Elkarteko Eva Bilbaok eta Agustin Erkiziak hitzaldia egingo dute apirilaren 18an, 18:00etan, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, Amaidolua Elkartearen eskutik.

Udalekuetako izen-emateak, azken txanpan

Hilaren 26ra arte eman ahalko da izena. Bestalde, hezitzaile zein praktikagile aritzeko izen-ematea apirilaren 19an bukatuko da.

Elikadurari buruzko hitzaldia hilaren 18an

Kulturateko areto nagusian egingo dute, 17:30ean: *Nola erosi ditzaket elikagai jasangarriagoak diru asko gastatu gabe?*

arbolapeta

arrasate

bginke

ION ANDER CASTRO ZABALA

Era guztietako aukien konponketa
Zumezko artikuluen salmenta

TAPIZERIA OROKORREAN

943 78 71 65
639 01 69 69

"Oso esku onetan gelditzen da denda"

MIKEL LIZARRALDE LIZARRALDE KIROLAK DENDAKO ARDURADUNA

Apirilaren 19an hartuko du erretiroa Mikel Lizarralde, eta, hala, Lizarralde Kirolak dendak beste arduradun bat izango du, ia hiru hamarkadaren ostean

Julen Murua Mesonero ARRASATE

Jada 29 urte igaro dira Mikel Lizarralde (Oñati, 1960) Lizarralde Kirolak denda ireki zutenetik Arrasaten. Ia hiru hamarkadaren ostean, astebete besterik ez zaio gelditzen Lizarralderi erretiroa hartzeko, eta, hori aintzat hartuta, haren dendara joan da GOIENA, urte hauetan guztietan bitzitakoaz eta etorkizun hurbilean egingo duenaz hitz egitera Lizarralderekin.

Zer moduzkoak ari dira izaten azken egunak?

Normaltasun osoz ari dira igarotzen, lan askorekin ari gara eta. Ez dut astirik izan erretiroan pentsatzeko ere. Datorren ostiralean izango da nire azken eguna, baina oraindik ez dut guztiz asimilatu.

Labur-labur, nolakoak izan dira berrogei urte hauek?

Nire mundua izan da, oso gustura aritu naiz bezeroekin, bizilagunekin eta hemen inguruan aritu den guztiarekin. Pena handia ematen dit, baina erretiroa hartzeko data bat ezarri behar izan dut. Arrasateko jende askorekin oso harreman ona sortu dut, eta ez bakarrik arrasatearrek; inguruko herrietako jende asko etorri izan da gurera eta guztiekin oso harreman ona izan dut.

Asko aldatu dira gauzak urte hauetan zehar?

Bai, asko. Lehen, dendan zenuen guztia saltzen zenuen; orain, gehiago kostatzen da saltzea. Orduko arazoa zen bizikleta guztiak hutsetik muntatu behar zirela, eta lan handia eskatzen zuen horrek. Bezero kopurua ere asko aldatu da: gaur egun, jendea topera aritzen da eta duela urte batzuk ez zen horrenbeste jende aritzen bizikletan.

Zein da bizi izan duzun une hobena?

Arrasaten hasi nintzen unea izan daiteke. Ekartzen genuen guztia saltzen genuen eta bizi-



Mikel Lizarralde, haren dendako bizikleta artean. J.M.M.

"PANDEMIA GARAIAZ GUZTIA SALTZEN GENUEN; ORDUAN EZ ZEGOEN BIZIKLETA ZAKAR EDO POLITIK"

kletan jende asko ibiltzen hasi zen orduan. Pandemia garaian ere guztia saldu genuen; ez zegoen bizikleta zakar edo politik, eta iritsi ginen ia bizikletarik gabe gelditzera.

Eta txarrena?

Txarrena izan daiteke pandemia ostea. Bizikleta asko saldu ziren pandemian, baina askok ez zuten erabili eta plataformak erabili saltzen zituzten. Orain, egoerak bira eman du, eta, gurean eragin izugarria izan ez badu ere, ezagutzen dut oso ongi pasa ez duen jendea.

Kosta egingo zaizu errutina alde batera uztea?

Ez da erraza izango; urte asko izan dira hemen lanean eta egun batetik bestera lanera itzultzeko aukerarik ez izatea ea nola kudeatzen dudana. Hasiera batean, etorriko naiz laguntzera behar dutenarekin; izan ere, orain

pertsona bat gutxiago egonda lanean, eta zenbait gauza aldatu nahi badute, laguntza beharko dute. Hala ere, orain arte egitearik izan ez dudana egiteko balioko dit erretiroak. Emaztearekin eta alabekin denbora gehiago igarotzeko, merkatura joateko edo etxean lasai eta inongo presarik gabe egoteko. Bizikletan aritzeko gogoia ere badaukat; bizi guztia aritu naiz bizikleta gainean, eta domeketan bakarrik aritzen naiz, tarteren bat aurkitzen dudanean. Orain gauza berriak eta ez horren berriak egiteko denbora aprobetxatuko dut, eta ziur ez naizela geldirik egongo.

Esku onetan gelditzen da denda?

Jon Lizarralderen eskuetan geldituko da, eta esan dezaket hemen inguruan ez dagoela hura bezalako mekanikaririk. Urte askoan aritu da profesionalekin lanean eta esperientzia handia duen pertsona da. Oso esku onetan gelditzen da denda. Kurioso da, gainera, abizen bera dugula, eta, beraz, dendak ere izen bera izaten jarraituko du. Bezeroek asko maite dute eta, horrenbestez, ziur nago bide onetik jarraituko dutela.

Spinning birtualeko zerbitzua Musakolako kiroldegian

Gimnasioko kardio eremuan eskainiko dute eta eremu lehorreko bazkideek nahi dutenean erabili ahalko dute

J.M.M. ARRASATE

Spinning birtualeko zerbitzua eskaintzen hasi da Arrasateko Udala Musakola kiroldegian; egun osoan 45 minutuko eskolak eskainiko dituzte, etengabe. Zerbitzu horren bitartez "erabiltzaileari ordutegi malgutasuna eskaini nahi zaio; nahi, ahal edo behar denean saioa egiteko aukera izan dezan", udal ordezkariak adierazi dutenez.

Saioak, egunero

Aste osoan egongo da eskurgarri spinning zerbitzua, ordu-

ro: astean zehar, 07:30ean hasiko da lehenengo saioa eta 20:30ean azkena. Asteburuetan, berriz, lehenengo 09:30ean hasiko da eta azkena, 12:30ean; arratsaldean, 16:30ean lehenengo eta 18:30ean azkena.

Hizkuntzari dagokionez, Udalak adierazi du "euskaraz eta gaztelaz" eskainiko dituztela saioak. "Ordu bakoitietan euskaraz izango dira eta ordu bikoitietan, gaztelaz. Gainera, saioak ez dira ordu eta egun berberetan errepikatzen; programa aldatzen doa".



LUKEN UGARTEBURU

Musikatua dator 'Galdegazte'

Maixa Lizarribar elkarrizketatu dute Arrasateko Gaztelupeko DBHko laugarren mailako ikasleek. Platoan Lore Larrañaga, Lua Otaduy eta Amaier Gallastegi ikasleak izan dira, eta errealizazio-gelan saioa jarraitzen Garazi Arregi, Irati Rodriguez eta Maddi Barrutia. Apirilaren 16an emitituko da saioa Goiena telebistan, 19:30ean, 21:30ean eta 23:30ean.

Erguin auzoan egingo du geldialdia ludoteka ibiltariak

Ludoteka ibiltaria Erguingo Itxaropena plazan izango da datozen lau zapatuetan, 11:30etik 13:30era bitartean, eta bi hezitzaile izango dituzte bidelagun. Egundak honako hauek izango dira: apirilaren 13a, 20a eta 27a eta maiatzaren 4a. Ohi bezala, 3 eta 12 urte artekoek eta haien guraso edo arduradunek izango dute aukera parte hartzeko.

Gaur emango diete hasiera 2024ko Altamirako jaiak

Gaurtik domekara bitartean ospatuko dituzte Altamira auzoko jaiak, eta musika emanaldiak, euskal dantzak eta gazte txoenei zuzendutako ekintzak egongo dira bertan. 18:30ean emango diete hasiera jaiak, Zerrajerako sirenarekin txupinazoa botata, eta, jarraian, *Col d'Altamira* igoeraren III. edizioa egingo dute.

Gallardo, Europako kickboxing txapeldun

Arrasateko borrokalariak bosgarren roundean gozatua hartuta menderatu zuen Europako txapeldun ohi Marine Bigey frantziarra. "Nekatuta ikusi nuen, eta ahaztuko ez dudan amaiera eman nion borrokaldiari", adierazi dio GOIENARI

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Aste Santua atseden hartzeko aprobetxatu dute askok, baina Maialen Gallardok (Arrasate, 25 urte) beste zeregin batzuk izan ditu. Frantziako Cruzilles-les-Mepillat hirian izan zen martxoaren 30ean, han jokatu zuten Europako Kickboxing txapelketa, eta arrasatearrak txapeldunaren gerrikoa ekarri du handik ISKA kategorian, 48 kilokoan. Hain justu, Marine Bigey frantziarra izan zuen aurkari, Europako txapelduna zena. "Europako txapelduna neukan aurrean, kontrario frantziarra, borrokaldia haren zaleen aurrean... Egoera ez zen erraza, dena neukan kontran, baina kontu horiek guztiak alde batera utzi nituen eta borrokaldian zentratu nintzen; oso garbi neukan zein zen helburua, eta borrokaldia irabazteko konbentzitu ita igo nintzen ringera".

Atzetik aurrerako borroka

Gasteizen bizi den arrasatearrak aitortu du kosta egin zitzaizola borrokaldian sartzea, lehenengo rounda maldan gora jarri zitzaizola, baina bigarrenetik aurrera gozaten hasi zen; bereziki, besoekin eta belaunekin egin zion min frantziarrari. Hala, laugarren roundean sabelean

jaso zuen kolpe batek min egin zion, baina, momentu hura gaindituta, gainontzean, oso ondo ibili zen. "Ikusten nuen kontrarioa nekatzen ari zela, kolpeak geroago eta energia gutxiagorekin ematen zituela, eta, orduan, hazi egin nintzen". Hala, bosgarren eta azken rounda borobila izan zen Gallardorendako: "Gozatu egin nuen, borrokaldiko unerik onena izan zen hura. Kontrarioa horren nekatuta zegoen, aurreikusi egiten nuen zer egitera zihoan, eta jolas egiteko aukera ere izan nuen: pasatzen uzten nion, ondoren nik erantzuten nion... Une oso polita izan zen hura". Hala, bost roundeko borrokaldian une oro erritmoa ezartzen ibili eta gero, epaileek ez zuten zalantzarik izan puntuetan garaipena arrasatearri emateko orduan.

Japoniara joateko gogoz

Borrokalditik lehenbailehen errekuiperatzeko lanean dabil Gallardo, eta badaki Europako txapelketa irabazi izanak aukera berriak zabalduko dizkiola. "Goiz da oraindik, baina nire entrenatzaileak dagoeneko jaso du Japoniara borrokatzera joateko gonbidapena. Halako aukerak joango dira irteten, seguru, eta ea hara joaterik dugun".

[apirilak 28] izango da garrantzitsua", adierazi dio GOIENARI Iñaki Ogara *Arri*-k. Hala, domekan (Ibarra, 18:00) Zornotzaren bisita izango dute moreek.

EBA mailako gizonezkoek ere etxean jokatu dute (zapatua, 19:00, Iturripe), eta haiendako ligako azken partidua izango da. Berez, ez dago askorik jokoan, lauko finalerako sailkatzeko aukera ematen duen bigarren postua urrun dago eta. Baina Getxoren kontra zapore onez amaitu nahi dute liga.

MUko neskek lauko finalerako sailkatzea dute helburu

Lehenengo mailako MUko neskek lauko finaleko postuetan daude sailkatuta –bosgarren dira, baina lehenengoa zuzenean igotzen da–, eta lau jardunaldi geratzen zaizkie liga amaitzeko. "Lau jardunaldi hauetan kome ni zaigu akatsik ez egitea, baina, bereziki, gure atzetik dugun La Salle izango dugu kontrario zuzenena. Euren kontrako partidua



Maialen Gallardo, borrokaldiaren une batean. M.G.

AURREZTU % BETI

BETIEREK MAITASUNA

EROSKI

club -ari

4

Kalkulu erraz batekin ikusiko duzu asteko 35 eurotik gorako gastua eginez gero, Urrezko Txartela izatea merezi duela.

EROSKIn erositako GUZTIAREN % 4 une horretan bertan jasoko duzu zure EROSKI club txartelean, supermerkatuetan, hipermerkatuetan, gasolindegietan, optiketan, bitxi dendetan, online supermerkatuetan zein bestelakoetan erosi

- ✓ Hileko kuota 4,99 eurokoa da
- ✓ Ez du jarraitzeko konpromisorik
- ✓ Gehitu egiten zaie gainerako eskaintza eta promozioei

Gure kutxetan edo hemen eta orain lagunduko dizugu:

DOAN

2 hilabeteko kuota

EROSKI

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30

"Istoriaoa idazterakoan oso libre sentitu naiz"

ANE ODRIOZOLA IDAZLEA

Jaiotzez legazpiarra izan arren, Arrasaten du lantokia Ane Odriozola idazleak. 'El valle del hierro' argitaratu berri du, 1577an Mirandaolan kokatzen den fikziozko nobela

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Ane Odriozola (Legazpi, 1979) idazleak beste salto bat eman du bere ibilbidean. *Gibola*-ko trilogia amaitu ostean, NdeNovela argitalpen-zigiluarekin batera *El valle del hierro* liburua argitaratu berri du.

Jaioterritik gertu kokatu duzu liburu berria, Mirandaolan.

Bai, hori da. *El valle del hierro* Mirandaolako gunea da. Horrela deitzen zaio, XIV. mendean hogei burdinola zeudelako. Han kokatu dut, 1580. urtean mirari bat gertatu zelako, eta mirari hura kontatu nahi nuen. Hala ere, nobela honetan kanpora ere irteten naiz: zati garrantzitsu bat Gasteizen gertatzen da eta beste bat, Errioxan.

Intrigazkoa izan arren, nobela historikotik ere badu lan horrek?

Nire asmoa ez da inoiz nobela historiko bat idaztea izan. Thriller bat idatzi nahi nuen, baina istorioa XVI. mendean kokatzen duzunean ambientazio historikoa beharrezkoa da; bestela, eleberria erren gelditzen zaizu. Horrenbestez, dokumentazioa lan garrantzitsua izan da, baina biak fusionatu ditut, zati historikoa eta intrigaren zatia.

Bi istorio paralelo daude, baina abiapuntua Arria familia izango da.

Thriller kutsua eman nahian, liburua desagerpen batekin hasten dut. Desagertua Domingo Arria da, ikazkina. Plazao-latarrentzat egiten du lan, burdinolako jabeentzat. Gau batean, bilera bat du haiekin, baina etxetik Mirandaolara dituen hiru-lau minutuetan desagertu egingo da. Hor sartuko da haren emaztearen istorioa, senarra aurkitu nahian. **Asencia emazteak pisu handia du liburuan, ezta?**

Bai. Asencia guztiok ezagutzen dugun emakume baserriar indartsu eta langile hori da. Izaera indartsua du, oso ema-

kume bizia da. Buruan sartzen zaio senarrarekin gertatu dena argitu behar duela, eta nobela osoan erakutsiko du indar hori. **Baina Gasteizko kaleetan beste emakume bat, Jurdana, agertuko da, eta hark ere badu indarra.**

Beti pentsatu izan dugu XIV. mendean emakumeek ez zutela ahotsik, baina ni ziur nago emakume indartsuak bazirela. Horregatik, nire nobelan bi daude protagonista bezala. Domingo Arria desagertu bitartean, Gasteizen lau-bost urteko

Zelakoa izan da sortze prozesua?

Gibola-koarekin alderatuta oso ezberdina izan da. Trilogia hura autoargitaratu egin nuen, eta oraingo honetan argitaletxe batekin argitaratu dut. Gainera, ez edonolako argitaletxea, Planetak argitaratu du, NdeNovela argitalpen-zigilu berriarekin. Abentura bat izan da. Zigiluaren inaugurazioa, lehenik, eta argitaratzaile zein marketineko eta komunikazioko pertsonak izatea ostean. Kolpetik pertsona ugari dituzu zure liburuarentzako



Odriozola, *El valle del hierro* liburua eskuetan duela. RUBEN BLYTH

Jurdana gazte bat agertuko da. Han zapatagile batekin egingo du topo, Gines izenekoa. Biek batera egingo dituzte urte batzuk, baina, Gines hildakoan, gauza gogorak bizitzea egokituko zaio. Bi istorioak, Asenciarena eta Jurdanarena, elkartu egingo dira puntu batean, eta bien artean talde garrantzitsua osatuko dute.

"BETI PENTSATU IZAN DUGU XIV. MENDEAN EMAKUMEEK EZ ZUTELA AHOTSIK IZATEN"

lanean, eta sentsazio oso ezberdina da. Autoargitaratzean, dena nik egiten nuen, eta orain egin egiten didate.

Aske izan zara idazteko orduan?

Istoriaoa idazteko, egia esan, bai. Argitaratzailearekin istorio osoa lantzen duzu, eta askotan entzun izan da istorio osoa aldatzen dizutela, baina ez da nire kasua izan. Hori mito hutsa dela esango nuke. Iradokizunen bat egin dit, gehiago ez. Ni oso libre sentitu naiz. Egia da kontrol pixka bat galdu dudala. Liburua zelan saltzen den galdetu didatenean, adibidez, ez dut erantzuten jakin, alor hori beste batzuek eramaten dutelako.

'Trapu zikinak' antzezlanaren egongo da ikusgai gaur

19:00etan hasiko da, Juan Arzamendi Musika Etxeko (JAME) auditoriumean; Emakume Txokoak antolatatu du

G.B.Z. ARRASATE

Emakume Txokoak antolatutako egitarauaren baitan, Lore More antzerki taldearen *Trapu zikinak* lana ikusteko aukera egongo da gaur, 19:00etan, Juan Arzamendi Musika Etxeko (JAME) auditoriumean. Sarrera doakoa izango da.

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak programaren baitan sortu zuen Nafarroako antzerki taldeak *Trapu zikinak*. Garbilekuetan bildu eta lan egiten zuten emakumeen lanari omenaldia egitearen desirarekin sortu zuten. "Herri garbitokietatik abiatuta antzerki sorkuntza kolektiboa" bezala izendatzen dute antzezlanaren Lore Moreko kideek.

2018an sortu zuten antzerki konpainia Maialen Diazek eta Mikele Urrozek. Biek jardun dute lanaren zuzendari eta autore lanetan. Horrez gain, ohol-

tza gainean izango dira antzezle lanetan, Laura Villanueva aktorearekin batera. Ekoizpenaren alorrean, berriz, Lucia Ezker ibili da lanean.

Antzezlanaren oinarria

Oiartzunen egin zuten Geuretik Sortuakeko egonaldia Lore Morekoek. Bertan, garbilekua biziberritzen ibiliak ziren, eta elementu hori hartu zuten abiapuntutzat. Taldekideen arabera, garai batean emakumeak elkartzeko leku bakarrak garbilekuak ziren, espazio erlijiosoak eta kartzelak salbuetsita. Espazio horiek *trapu zikinak etxean garbitzen dira* esamoldea gezurtatzen zutela ere jabetu ziren. Ideia horiek oinarri, iragana ikuspuntu feminista batetik imajinatu zuten, eta garbilekuetan zebiltzan emakumeen harremanak antzeztea erabaki.

Zeramika ikastaroak antolatuko ditu Loixe taldeak, Kulturolan

Apirilaren 23tik ekainaren 13ra arte izango dira ikastaroak, eta aurrez izena eman beharko da, 685 79 61 27 telefono-zenbakira deituta. Hastapen eta trebatze saioak egingo dituzte, martitzen eta eguenetan. Ordutegi ezberdina izango duten hiru talde osatuko dira: A taldea (10:00-12:00), B taldea (16:00-18:00) eta C taldea (19:00-21:00).

Sara Zozayak joko du datorren asteko Kooltur Ostegunean

Sara Zozaya bakarlari donostiarra kontzertua emango du apirilaren 18an Arrasateko gazte-txean, Kooltur Ostegunen baitan. Beti bezala, 22:00etan hasiko da kontzertua, eta sarrerak zazpi euroko prezioa izango du. 2023an aurkeztu zuen *Zozayak Nara* izena daraman lan berria, eta ostegunean Arrasaten aurkeztuko du diskoa lehen aldiz.

Liburuaren Eguneko ekimenetarako izena eman beharko da

Apirilaren 23an, Vanessa Gonzalezek *Kukuak kontu* ipuin kontaketa egingo du Santa Marinako auzo-bibliotekan, 18:00etan. Apirilaren 26an, berriz, Euskal Barrokensemblek eta Goikobalu Txikik *Euskelelea* ikuskizun musikala egingo dute Kulturaten, 18:00etan. Bibliotekaren eta Udalaren webguneetan eman daiteke izena.

'El huesped del sevillano' zarzuelako entseguak, martxan

Urteko lehen zarzuelaren arrakasta ikusita, beste zarzuela bat prestatzen dabilta Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko kideak. Entseguak martxan daude jadanik. Astelehen eta asteazkenetan elkartzen dira, 21:00etan, Kulturolako beheko solairuan duten lokalean. "Kantatzea eta antzeztea gustuko duena etor dadila gurera", adierazi dute.

"Aramaio ezagutu nuenean liluratu egin ninduen"

HAIZEA LOPEZ IDAZLEA

Aramaion kokatu du 'Alianza de sangre' izeneko eleberria Sopelako idazleak; liburuak bultzatuta ezagutu du bertatik bertara herria, aurrez sekula egon barik baitzegoen

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO

Aramaion gertatutako erailketa bat du ardatz Haizea Lopez (Sopela, 1992) idazlearen *Alianza de sangre* eleberriak. Martxoaren 21ean ikusi zuen argia, eta, liburuaren hasierako bertsioa Iparraldean kokatuta bazegoen ere, haren ordezkariak gomen-datuta lekualdatu egin zuen.

Misterio handiko thriller bat Aramaion kokatu duzu; zergatik?

Aramaion izatearen arrazoia oso kuriosoa da. Bizitzan lehen aldia da eleberri bat guztiz berridatzi behar izan dudana. Hasieran, Iparraldean kokatuta zegoen. Nire ordezkariari asko gustatu zitzaion eleberria, baina kokapenak ez zuen konbentzitu. Orduan, esan zidan Bizkaiko edo Arabako herriren batean kokatuko lukeela istorioa. Zerrenda egin nuen eta horien artean zegoen Aramaio. Nire favoritoa zen. Sekula han egon barik nengo. Autoa hartu eta hara joan nintzen. Albinako urtegian buelta bat eman nuen eta herrira joan nintzen. Udaletxean dokumentazioa eskatu nuen: mapak, herriko historia, istorioak... Eta jakin nahi nuena zen ea uneren batean norbait bizi izan zen urtegian, etxerik egon ote zen... Eta kamieroen etxeari buruzko informazioa topatu nuen. Leku perfektua iruditzen zait.

Herrien zerrenda zerren arabera osatu zenuen?

Zenbait baldintza bete behar zituzten: mendialdean zegoen herria izan behar zuen, txikia eta biztanle gutxiak, eta urtegi edo laku bat eduki behar zuen kanpoaldean, protagonistak isolatu behar baintuen.

Aramaio zerk erakarri zintuen?

Zerrenda egin nuenean nire gustukoena zen. Argazkietan ikusi, eta ipuinetako herria zela iruditzen zitzaidan. Ikusi nuen *Suitza txikia* ere deitzen diotela, eta informazio pila irakurtzen hasi nintzen. Harrizko galtzadak



Haizea Lopez eskutan *Alianza de Sangre* liburu bat duela. H.L.

"ESPERO DUT IRAKURLEEK NIK IDAZTEN DISFRUTATU DUDAN BEZAIN BESTE GOZATZEA"

harrapatu ninduen. Herriaren esentzia mantentzen du, mendialdeko benetako herria da. Joan nintzenez eta ingurua ezagutu nuenean, liluratu egin ninduen. Behar nuen esentzia mantentzen du, eta ez nuen zailtzarik izan.

Eleberria idazteko, nola ezagutu ondo herria inoiz han egon gabe?

Informazioa lortzen igaro nuen denbora gehien. Urtegia bisitatu eta ez nuenean gertu etxerik ikusi, pentsatu nuen lekuak ez zuela balioko. Informazioa eskatu eta irakurri nuenean, garai batean etxea zegoela jakin nuen, eta lizentzia literarioa hartu nuen Maialen eta Gari han kokatzeko. Hiru aldiz bisitatu nuen, gutxi gorabehera.

Espoilerrik egin gabe: Iratxe Galdeanoren erailketa da ardatza.

Iratxe Galdeano aktorea hilda agertzen da film labur baten

aurkezpenean Sastiñako ermitan. Gari, haren bikotekidea, da susmagarri nagusia, eta aramaioarrak ere argi daukate Garik erail duela Galdeano. Modu berean, poliziak ere nahiko argi dauka Gari izan dela. Jokoa da Maialenek, Iratxeren eta Gariren haurtzaroko lagunak, Gariren errugabetasunean sinetsi behar duela. Etengabeko joko psikologikoa da.

Jaso duzu aramaioarren feedbackik?

Uste dut ezetz. Egia da maiatzeko Lorabarri azokan egoteko gonbidatu nauela Aramaio Udalak. Gogo handia daukat herriaren kritika jasotzeko. Ilusioa egiten dizu, baina baita beldurra ere. Azkenean, ez da nire ingurua. Beti duzu herritarrak dezepzionatuko dituzun beldurra.

Ibilbidea hasi du eleberriak; zer bide izatea gurako zenuke?

Espero dut eleberria irakurtzen duen orok nik idazten disfrutatu dudana bezain beste gozatzea. Uste dut hori dela helburu nagusia, irakurlea orrietara itsatsita geratzea, amaierara heldu eta harriztea. Espero dut herritarrak eroso sentitzea idatzi dudanarekin.



Igor Ayastuy eta Kepa Etxebarria, Etxaguen auzoko bolatokiaren I.A.A.

Hiru txirloko Arabako talde bakarra, Etxaguen auzokoa

Urtebete ere ez du Etxango Txirluek Kirol Klubak, eta kideen helburua Euskal Herriko txapelketa jokatzeko da

I.A.A. ARAMAIO

Hiru txirlotan jokatzeko bolatokia badute Etxaguen auzoan, eta, duela gutxira arte, festa giroan aritzen ziren. Orain, duela urtebete baino gutxiagotik, Etxango Txirluek Kirol Kluba daukate. Adin-tarte askotariko hamazazpi taldekide ditu eta gehienak lehiaketetan ibili gabekoak ziren. Horietako bi dira Igor Ayastuy eta Kepa Etxebarria aramaioarrak.

2022ko Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketako azken jardunaldia Etxaguen auzoko bolatokian jokatu zen, eta, Ayastuyk azaldu duenez, orduan egin zieten taldea sortzeko proposamena: "Bina saio egin behar zuten Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, eta azkena hemen izan zen. Eurekin jokatzeko ibili ginen eta aipatu ziguten ea zergatik ez genuen kluba sortzen. Azkenean, animatu egin ginen. Ho-

rrera hasi ginen. 2023aren amaierarako sortu genuen hamar bat laguneko talde bat".

Azaldu dutenez, Arabako lehen taldea da hiru txirlo modalitatean: "Arabako badaude beste bolatoki batzuk, baina ez hiru txirlokoak". Hala, Euskal Herriko Txapelketan talde modura lehiatu ahal izango dira, baina ez orain jokatzeko ari den Gipuzkoako Txapelketan: "Etxango Txirluek bezala ezin dugu jokatu, Arabako taldea garelako. Sartu behar dugu Aretxabale-tako, Bergarako edo Elgetako taldeetan, jokatzeko. Hartuko dugu parte inguruko saioetan".

Ateak zabalik

Taldean sartzeko, kideekin jarri behar da harremanetan: "Neskak falta dira; animatu! Gutxiago dira, baina badaude oso jaurtitzaila onak. Etortzen dena ongi gietorria izango da".

Klimaren krisiari eta erronkei buruzko hitzaldia hilaren 16an

Arabako Foru Aldundiak kudeatzen duen +55 Elkarteak programaren baitan, hainbat hitzaldi eta tailer egiten ari dira hileroko Aramaion. Apirilari dagokionez, Ekonomia eta Ingurumen Politikan doktore Unai Pascualek *Klima krisia eta erronka sozioekonomikoak* hitzaldia egingo du datorren martitzenean, 18:00etan, kultur etxean.

Abian da Txirritolaren ipuin eta mikroipuin lehiaketa

Azken urteetan bezala, ipuin eta mikroipuin lehiaketa antolatuta du Txirritolak. LH-1eko ikasleek taldeko ipuinak aurkeztu ahal izango dituzte eta LH-2koek eta LH-3koek, banakako ipuinak. Nerabeek, gazteek eta helduek mikroipuinak idatziz hartu ahal izango dute parte. Idazlanak aurkezteko azken eguna apirilaren 24a da.

"Harro gaude Ekainek utzitako arrastoarekin"

FIDEL ANDRES ETA ELENA IGLESIAS EKAIN ANDRES IGLESIASEN GURASOAK
Orain dela urtebete Vietnamen motor istripuan hil zen gaztea gogoan, epaiketa prozesuaren gastuetarako dirua batzeko jaialdia egin dute; jendetza batu da

Mirari Altube ARETXABALETA

Ekain Andres Iglesias (Aretxabaleta, 1997) gogoan, musika jaialdia egin zuten joan den zapatuan, haren heriotzaren urteurrenaren bezperan, Arlutz osteko kantxan. Sekulako jendetza batu zen, Vietnamen auto batekin izandako motor istripuan hildako gaztea omentzeko eta epaiketa prozesuari aurre egiteko dirua batzeko.

Pozik jaialdiak emandakoarekin?

Sekulakoa izan zen. Gure espektatiba guztiak gainditu zituen. Ekainen kuadrillakoek jarritako tabernan guztia agortu zen. Eta giro oso ona, sana, sortu zen; festa giroa. Ekain bera zegoen han, giro horretakoa zelako; festako erregea izango zatekeen, zenbat disfrutatutako zukeen...

Ibone alaba, Ekainen arreba, Balin dago; zelan jarraitu du handik?

Galdera mordoa egin dizkigu, eta hemen egoterik izan ez delako pena handiarekin.

Eta zuek zelan bizi izan zenuten?

Asteburu luzea eta intentsua izan zen, lan aldetik zein bizipen aldetik. Urduri eta emozio handiarekin bizi izan dugu, poztasunez eta penarekin. Mina hor dago, baina gutxiago sufritu dugu. Era berean, harro ere sentitua gara, harro hark utzitako arrastoarekin; gure semearen heriotzatik urtebete pasatu arren, gogoan dutela hura, eta hau guztia harengatik egin dutela pentsatzeak harrotu egiten gaitu.

Semearen kuadrillak antolatu du guztia, ezta?

Bai. Haren lagunak salbatu egin gaituzte. Ekain hil zela esan zigitenean pentsatu genuen: bukatu da, ez dago gehiago. Baina ez, guri ematen ari zaigu mordoa; eta, bereziki, lagun bitartez gabilta jasotzen guztia. Zaindu egin gaituzte une oro: Gabon egunean gure etxera etorri ziren; irailean Ekainen urtebetetze eguna ospatu zuten;



Fidel Andres eta Elena Iglesias. XABI URZELAI

zuhaitz bat landatu; Iboneren alboan ere egon dira... Zainduak, babestuak eta oso maitatuak sentitzen gara. Eta Ekainekin oso harro, sentimendu horiek guztiak transmititzen jakin zuelako eta hain maitatua delako.

Indarra jaso duzue epaiketa prozesuarekin aurrera egiteko?

Bai, bai. Oraindik gogoan dugu prozesua hasteko lehen egunean 4.000 euro ordaindu behar izan genituela eta hurrengo egunean notariotzan paperak bideratzeko



Ekain Andresen kuadrillako kideak joan den zapatuan. JULEN GARAI

"Sekulako" lagunak

Jaialdiak emandakoarekin pozik eta oso eskertuta daude. "Eskerrak eman beharrean gaude etorri ziren guztiei, parte hartu zuten taldeei, Udalarari eta, bereziki, kuadrillari. Guzti-guztia antolatu zuten eurek. Eta Ekain bertan egon zen haien bitartez".

beste 2.000 euro eskatu zizkigutela. Orduan, atzera egitea pentsatu genuen; baina esan ziguten amorerik ez emateko hain erraz. Jarraitzera animatu gintuzten, eta gero eta garbiago dugu ondo egin genuela. Jaialdiko diru-kontuen berririk ez daukagu, baina horrekin eta Ekainlore ekimenearekin prozesuari aurre egiteko beste lortu dela ziur gaude. Eta horrek beste lasaitasun bat ematen du.

Zabalik dago prozesua, ezta?

Bai; urtarrilean jakinarazi zigiten prozesu zibila zabaldu zutela, istripua eragin zuen autoaren gidariari dokumentazioa kendu ziotela eta ikerketa-taldea martxan zegoela. Eta orain, prozesu penal abiatzea geratzen da.

Zuen abokatuek zer diote?

Ikerketa-taldea gidariarekin eta haren abokatuekin harremanetan jarriko zela kalte-ordainaren gainean berba egiteko. Baina ez dakigu ezer gehiago. Hori bai, esan diet jakinarazteko gidariari uztailearen 27an han izango naizela ni [Elena].

Bertatik bertara lekua ezagutzera joan gura duzu.

Bai; Ibone alabarekin joango naiz. Hegazkineko txartelak dagoeneko hartuta ditut eta ibilbidea ere zehaztuta dugu. Gogorra izango da, badakit. Dena den, istripua izan zen bidegurutzeari dagoeneko ikusita daukat Google Earth bidez, bertaratzeko hain gogorra ez dadin izan.

Eta gidariarekin egoteko asmoarekin; erantzunak gura dituzue?

Polizia-txostenean jasota dago istripu bat izan eta atzerritar bat hil zela. Besterik ez. Nik azaldu gura diot zein zen atzerritar hori: Ekainen argazkiak erakutsi, zelakoa zen jakinarazi eta guretzat semea galtzea zer izan den. Kartzelara joatea? Ez; agian, despiste bat izan zelako, baina bai ikusi gura dut egindakoaren kontziente den pertsona bat.

Orduan hasiko da zauria ixten?

Bai. Orain arte, egoerak eraman gaitu batetik bestera, guk gidaritzarik izango ez bagenu bezala. Gainera, ez du laguntzen hain urrun gertatu izanak eta hura lau hilabete aurretik joanda egoiteak. Guretzat asko da prozesua abian jarri izana; izan ere, ez dugu mendekurik nahi eta dirurik jasotzekotan ere ez da asko izango, ez gabilta horren bila. Baina heriotza bat gertatu da eta norbaitek epai bat eman behar du. Egin behar genuena egin dugu.

'Casteller'-ak bertatik bertara ezagutzeko aukera hilaren 19an

Castellers de Vilafranca elkarreko 200 lagun etorriko dira apirilaren 19an eta *castells* edo giza-dorreak egingo dituzte Herriko Plazan, 19:00etan. Vilafranca del Penedes herriko elkarreko Kataluniako ezagunen artean dago eta haien gogoan izan da Aretxabaleta etortzea. "Euskal Herrira etorri izan dira, eta, hala, gurekin harremanetan jarri ziren. Beste kultura bat ezagutzeko aparteko aukera izango dugu", adierazi du Ibai Zangituk, Kultura zinegotziak.

Elkarteko kideek herritarrek gonbidatu dituzte erakustaldia bertatik bertara jarraitzera; eguraldi txarra eginez gero, kiroldegian izango da.

Haiku erronka eta Literatruke azoka Liburuaren Egunerako

Liburuaren Nazioarteko Eguneko ekintzak apirilaren 26rako iragarri ditu Udaleko Kultura Sailak. Egun horri begira, haiku erronka deitu du. Japoniar jatorriko poema txikiak dira haikuak -errimarik gabeko 5-7-5 silabako hiru bertsok osatuta-, eta horiek Arkupera eraman beharko dira edo online aurkeztu, apirilaren 21erako. Gero, hilaren 26ean, irakurri egingo dira horiek eta hainbat opari banatuko dituzte zozketa bidez.

Literatruke azoka ere egingo da egun horretan. Trukatutako gura diren liburuak alde aurretik eraman beharko dira Arkupera, eta han bonu bat jasoko dute beste bat hartzeko azoka egunean.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Arkupeko klimatizazio sistema, aldatzear

Kultur etxeko berokuntza eta hozte sistema ordezkatzeko proiektua "bide onetik" doa; Udal Gobernuak iragarri du Energiaren Euskal Erakundeak bi laguntza emango dizkiola: bata aeroterminia sistema instalatzeko eta bestea eguzki-plakak jartzeko

Mirari Altube ARETXABALETA

Arkupe kultur etxeko galdarak eta hozteko makinak aldatzeko proiektua bideratuta dauka Udal Gobernuak, eta prentsa-ohar bidez jakinarazi du lizitazioa datorren astean jarriko dutela abian Hirigintza batzordean.

Aldaketa horiek egiteko arazoia da berokuntza zein hozte-sistemak zaharkituta daudela eta arazoak eman dituztela azken urteetan: "Hainbat matxura izan dira eta kultur etxean beharrezkoa den erosotasuna bermatu ezin den egoera batera iritsi gara". Hain zuzen ere, 2023ko abenduan hainbat lan egin beharrez izan ziren behin-behinean konpontzeko.

Horren guztiaren jakitun eta arazoari behin betiko konponbidea emateko, 2024ko udal aurrekontuan 245.000 euro bideratu zituzten klimatizazioarako eta 69.000 euro eguzki-plakak jartzeko.

Kontsumoan aurrezpena

Beroa eta hotza sortzeko sistema ordezkatzear gain, bero eta hotz horren banaketa sisteman ere aldaketak egingo direla adierazi dute: "Eraginkortasuna hobetzeko eta erabiltzaileentzako erosotasun termikoa nabarmen hobetzeko".

Berokuntza-sistemaren aldaketa horrek kontsumoan aurrezpen esanguratsua ekarriko duela gaineratu dute, eta eguzki-plakak sistemarekin konbinatuz gero eraikinaren energia-eraginkortasuna nabarmen hobetuko dela. Teilatuan eguzki-plakak 60 kW-ko potentzia instalatuko dute.

Laguntza EEEK

Iragarri dute egin beharrezko lan horietarako dirulaguntza handia lortu dela "udal teknikarien kudeaketari esker". Hala,

Energiaren Euskal Erakundeak bi laguntza eman dizkio Udalari: 169.353 euro aeroterminia-sistema instalatzeko eta 45.540 euro eguzki-plakak jartzeko.

Udal Gobernuak uste du inbertsioaren %65 baino gehiago estali ahal izango dela laguntza horiekin. Hori horrela, Udal aurrekontuan gordetakoari beste erabilera bat emango dio: "200.000 euro aurrekontutik askatu ahal izango dira, herriarentzat beharrezkoak diren beste inbertsio batzuetara bideratzeko".



Kurtzebarri eskolan jarritako eguzki-plakak, alboan Arkupe ikusten dela. GOIENA

Gipuzkoako bola-txapelketako jaurtialdia dago bihar

Gipuzkoako 53. hiru txirlo bola-joko txapelketari dagokion laugarren jaurtialdia izango da bihar, zapatua, bolatokian, 17:00etan hasita –izen-ematea 5 euro da–. UDAko taldeak dihardu txapelketan, eta azken saioan, Elgetan, Isana Gorosabel laugarrena izan zen, sei txirlo botata.

Gauean, 23:00etan hasita, oster, Uratz Alde elkarteko bola-jaurtiketa irekia egingo dute –izen-ematea, 10 euro–, San Jose jaien bueltakoa. Txapelkunak 100 euro jasoko ditu eta haren ondorengo laurek 75 euro, 30 euro eta 20 euro, hurrenez hurren. Elkarteko bazkide onenak, oster, txerri-beso bat jasoko du.

Umerez betetako antzezlanak aste bukaeran Arkupen

Txalo Produkzioak konpainiaren eskutik datorren *Baginaren bakarrizketak* lanak emakumeen sexualitatea izango du berbetarako gai gaur, egubakoitza, 20:00etan, Arkupen –prezioa: 5 euro–. Oholtzan izango diren hiru emakumeak eztabaida piztu eta moldeak apurtzeko gogoz etorriko dira. Adin, arraza eta kultura askotariko 200 emakumeri egindako elkarrizketen emaitza da.

Umeez, oster, *Munduari itzulia 80 egunean* emango diote Eriz Alberdi aktorearekin zapatuan, 17:00etan –prezioa: 3 euro–. Zabor-poltsak erabilita kontatuko die istorioa, erratzak, trapauek eta zakarrontziak lagun hartuta.

Bluesa eta jazz domekan San Martin eta Serranorekin

Paul San Martin piano-joleak eta Fran Serrano kontrabaxu-joleak osatutako bikoteak blues eta jazz doinuak oinarri izango dituen kontzertua eskainiko du hilaren 14an, Arkupen, 19:00etan.

Eskarmentu handiko musikariak dira biak ala biak. San Martin donostiarra, esaterako, blusean murgilduta dago, stridre eta woogie boogie estiloetan, hain zuzen ere, eta hainbat disko kaleratu ditu Stay Blues taldearekin zein bakarka; gainera, Leizarra musika eskolako irakaslea da.

Serranok, oster, izen handiko taldeekin eta musikariekin kolaboratu izan du eta bakarkako lan bat dauka argitaratuta.

Euskararen bueltako hausnarketa, Arizmendik deituta

Arizmendi Ikastolaren 20. urteurrenaren baitan, euskararen bueltako solasaldia antolatu dute: *Euskara, aurrera ala atzera goaz?* Apirilaren 17an izango da, 18:00etan, Arkupen, eta edonorentzat izango dituzte atea zabalik. Honako hizlari hauek hartuko dute parte: Imanol Larrea –Soziolinguistika Klusterra–, Jon Sarasua –Euskaltzaindia–, Jasone Mendizabal –Euskaltzaleen Topagunea– eta Mari Karmen Arrieta –Eskoriatzako Udaleko Euskara teknikaria–.

Bigarren solasaldia maiatzaren 15ean egingo dute, Arrasaten, Kulturaten, eta gaia izango da *Arizmendi Ikastola kooperatiba, gaur zergatik?*

INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



Olazar Erretiratuen Elkarte kideek batzar orokorra egin zuteneko. IMANOL BELOKI

Erretiratuek domekan izango dute lehen irteera

Olazar Erretiratuen Elkarte kideek antolatu dituzten egun osoko zein egunetarako irteerez gain, batzar orokorra apirilaren 16an egingo dutela jakinarazi dute. Horrekin batera, Interneteko iruzurren gaineko hitzaldia antolatu dute maiatzaren 14rako

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Olazar Erretiratuen Elkarte kideak aste honetan batu dira, esku artean dituzten ekintzak eta aurrera begirakoak fintzeko. Hori horrela, domeka honetan, apirilaren 13an, Cas-tejon-Fitero irteera egingo dute. Nafarroa Garaiko hegoaldeko udalerrian gidariarekin batuko dira Eskoriatzako erretiratuak, eta Marques de Montecierzo bodegan bisita gidatua egingo dute; hango ardoak probatu eta urdaiazpiko pixka bat jateko aprobetxatuko dute. Fiterora joango dira handik, eta hango bainuetxea ezagutuko dute. Bazkaria, berriz, Venecia hostalean egingo dute, eta bingoa eta dantzaldia izango dute egunari amaiera emateko.

Batzar orokorra, hilaren 16an Asteburu honetako irteeraren ostean, berriz, datorren martitzenean, apirilaren 16an, batzar orokorra egingo dute Olazar Erretiratuen Elkarte kideek.

18:00etan elkartuko dira, kultura etxean, eta han, besteak beste, 2024. urterako kudeaketa plana aurkeztuko dute, altak eta bajak adierazi, juntako kide berrien hautaketa egin eta abar.

Maiatzaren 4an, sagardotegira Maiatzaren 4an, berriz, urteroko hitzordua izango dute; hain zuzen ere, Urnietako Oianume sagardotegira bazkaltzera joango dira. Izena eman nahi duten interesdunek erretiratuen bulegoan eman beharko dute, eta bazkaltzera joateaz gain Irungo sagardo egunera joango direla lehenbizi adierazi dute antolatzailleek. Sagardoaren giroan murgildu, eta gero, bapo bazkaltzera eta txotx egitera. Olazar

OLAZAR ERRETIRATUEN ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA HILAREN 16AN IZANGO DA

Elkarteko bazkide direnek 55 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, 60 euro.

Interneteko iruzurren gainekoak Maiatzaren 14an, bestalde, Internet bidez egiten diren iruzurren gaineko berbaldia izango dute, Laboral Kutxa banketxeke pertsona batek gidatuta. 18:00etan izango da, kultura etxean, eta elkarte kideak dituzten zalantzak argitzeko tartea izango dute.

Marokora astebete Maiatz amaieran, bestalde, Marokora joango dira Olazar Erretiratuen Elkarte kideak, hain gus-tuko duten irteera luzea egitera. Astebeteko bidaia izango dute, maiatzaren 18tik 25era, eta han zenbait ekintza egingo dituzte: Bahia jauregia, Udaiarren kasbah gotorlekua, Saharako duna... Madrilera autobusez joango dira eta bertatik irtengo dira bidaian, hegazkinez.

Berdintasunetik gizonek egin dezaketena, oholztan

Maitatzeari izeneko ikuskizun poetiko musikala eskainiko du Popatik taldeak gaur, egubakoitza, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Sarrera doakoa izango da. Xabier Crehuet, Ekaitz Goikoetxea eta Aingeru Mayor dira Popatik taldea osatzen dutenak, eta hiru gizon horiek oholztza gainera igoko dira, maitasun erromantikoaren moldeak haustera. Hain zuzen ere, hiru gizon horiek maitatzearen arteari buruz arituko dira: zaurgarritasuna, elkar zaintza, erantzunkidetasuna, samurtasuna, askatasuna, eskuzabaltasuna... Saioa laburbilduz, gizarte honetako hiru gizon gizarte berri bat amesten.

Auzoetan jaiak antolatzeko oinarriak jendaurrean daude

Azken urteetan, Eskoriatzako herriguneko auzoetako jaiak antolatu, indartu eta berreskuratu egin dira, eta horiek antolatzeko eta dirulaguntzak eskatzeko asteon argitaratu dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Eskoriatzako herriguneko auzoetan jaiak antolatzeko dirulaguntzen oinarriak. Eskaerak egiteko beharrezko dokumentazio guztia, onuradunen informazioa, oinarriak, eta bestelako informazioa Eskoriatzako udal webgunean daude irakurgai. Eskaerak aurkezteko epemuga maiatzaren 9a izango da, eta, informazio gehiago behar duenak 943-71 46 88 telefono-zenbakira deitu dezake.

Garazi & Sala bikote akustikoaren saioa bihar Urrestillan

Punk-rock doinuak oinarri, zenbait bertso eskainiko dituzte Asier Sala eta Garazi Barrena musikariek zapatuan Eskoriatzako egingo duten kontzertu akustikoan. Azkenaldian emanaldi ugari egiten ari dira bi arrasatearrak, Garazi & Sala izenpean, eta, Eskoriatzako emanaldia berotzeko, gaur, egubakoitza, Arrasaten, Altamira-

ko plaza txoan kontzertua emango dute, 22:30ean.

Eskoriatzako bihar, zapatua, izango da kontzertua, 18:00etan, Urrestilla tabernan, eta bertsoz betetako saioa egingo dutela aurreratu du Asier Salak: "Bertsioak eskainiko ditugu. Kantu klasikoak izango dira; ingelesezko punk-rock doinuetatik abiatuta, euskal abesti klasi-koetarainoko errepasoa egingo dugu. Bide horretan, folk doinuak dituzten kantuak ere tar-tekatuko ditugu".



LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

Ekintza bandalikoak eskolan

Apirilaren 1ean, komunitatean sortutako mural zati bat erre zuten Luis Ezeiza Herri Eskolan, Kulunka haur eskolaren parean. Ikastetxeke ordezkariak haserre daude eta Eskoriatzako Udalak ekintza bandalikoak aho batez gaitzetsi ditu. Erretakoaren arrastoak garbituta, kalteak ahalik eta bizkorren konponduko dituztela adierazi dute udal ordezkariak.

"Orain heldu da gazteei testigua emateko unea"

IÑAKI KORTAZAR ARANA ATXORROTX KULTURA ELKARTEKO KIDEA

Inkernu tabernako kontzertuak 20 urtez antolatzen ibili ostean, Iñaki Santamariak eta Aitzol Zubizarretak erreleboa hartuko diote bestelako taldeak oholtzara eramateko

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Iñaki Kortazar Arana (Eskoriatza, 1983) Inkernu tabernan antolatzen diren musika kontzertuen atzeko lana egiten aritu da 20 urtez. Hala ere, orain, erreleboa emango die Aitzol Zubizarreta eta Iñaki Santamaria gazte eskoriatzarrei.

Inkernu tabernako kontzertuak antolatzen 20 urtez aritu ostean, testigua gazteagoei emateko erabakia hartu duzu; zer dela eta?

Garrantzitsua da erreleboa prestatu eta ematea. Denbora bat dela hasi ginen testigua emateko norbaiten bila; aire freskoa, ilusioa eta ideia berriak behar zirela ikusten genuen. Orain heldu da momentua gazteei testigua emateko eta haiek bide berriak irekitzeko. Gogotsu ikusten ditugu, eta oso pozgarria da hori elkartearentzat eta herriarentzat. Orain arteko eredu jarraitzea izango da helburua. **Inkernun izan diren emanaldi guztietatik zein izan da zuretzat go-goangarriena? Azpimarratzekorik?**

Denak izan dira bereziak; kontzertu bakoitzak izan du bere xarma eta bere istorioa. 150 emanalditik gora egin dira Inkernun eta denak eta bakoitza gogoratzen ditut. Batzuk aukeratu beharko banitu, nahiz eta ez den erraza, maitasun bereziz gogoratzen ditut nazioartetik etorritakoak: Irlandatik etorritako Big McFarlan & Terry O'Neill, Kataluniako Eina taldea, Taiwandik etorritako Go Chic eta Japoniako Taiuta taldea, adibidez. Etxekoei dagokienez, Governorsen, Gosereren, Laurobaren eta Izaroren hasierako kontzertuak aipatuko nituzke, eta Deabruak Teilatueta eta Iskanbila eszenan berriz ere agertzeko momentuak.

Nola izan da kontzertuak antolatzeko modua?

Taldeekin kontaktuan jarri, eta orduan hasten da harreman guztia. Erreparorik gabe kon-



Iñaki Kortazar eskoriatzarra. I. BELOKI

"TXIKIA BAINA HANDIA DELA INKERNUN JOTZEA ESAN DIGUTE MUSIKA TALDE ASKOK"

taktatu ditugu taldeak, eta sorpresa politikak izan ditugu. Sekula taberna txiki batean imajinatuko ez genituzkeen taldeak izan ditugu gurean, eta, kontzertuaz gozatzeaz gain, lagun onak ere egin ditugu. Hasieran, hilabetean behin antolatzen genituen kontzertuak, eta hemen ezinbestekoa izan zen Andoni Zubiagaren laguntza. Hark ekarri zituen Inkernura eszenatoki eta lona zahar bat, eta orduan hasi zen dena. Gainera, hura izan da kontzertu gehienei soinu jarri diona. Ostean, beste kide batzuk izan ditugu lan hori egiten. Kostuari dagokionez, elkarte bat izanda, aurrekontu mugatua izan dugu beti.

Denen gustura antolatzea ez da erraza izango, ezta?

Beti ahalegindu izan gara estilo ezberdinak ekartzen eta aukerak ematen taldeei: bakarlariak,

hasiberriak, ibilbide luzea duten taldeak... Eta estiloarekin, berdin. Denetik entzun, ikusi eta gozatzeo aukera izan dugu. **Tabernaren espazio txikia arazo izan da?**

Musikarientzako plaza eroso da Inkernu; ikuslea gertu, bero eta gogotsu. Eszenatokitik eskertzen da publikoa gertu izatea eta espazio intimo batean jotzeko aukera izatea. Espazioa baino gehiago, giroa da azpimarratzekoa. Txikia baina handia dela Inkernun jotzea esan digute.

Ezinbestekoa da kontzertuak antolatzen jarraitzea?

Ezinbestekoa baino gehiago, herriarentzat eskaintza kultura osatzeko aukera bat da kontzertuak antolatzea. Berez herriak eskaintzen duenari ekarpena egitea eta osagarritasuna bilatzea izan da beti gure helburua.

Maiatzeko bigarren asteburuan ospatuko duzue Atxorrotx Kultura Elkartearen Eguna. Horretan ere buru-belarri aritu zara dena antolatzen. Programa prest duzue? Errekan Gora jaialdia, berriz, irailaren hirugarren asteburuan. Hori ere lotzen?

Maiatzaren 11ko egitaraua prest eta itxita dago. Apirilko hirugarren astearen kaleratuko dugu egitaraua; beraz, astetxo bat itxaron beharko dute interesdunek. Errekan Gora jaialdiaren egitaraua ere ia prest dugu, eta itxura ederra dauka aurtengo jaialdiak. Sorpresa bat baino gehiago antolatu ditugu aurtengo menuan, eta laster argitaratuko den *teaser*-ean izango dituzue ikusgai lehenengo osagaiak. **Erreleboa eman arren, Inkernuko oholztatik gertu ikusiko zaitugu? Antolaketan laguntzeko gertu hala ere, ezta?**

Noski! Beti egongo naiz gertu eta prest laguntzeko. Kontzertuez gozatu eta beste leku batetik entzun eta ikusiko ditut proposamen berriak.

LEINTZ GATZAGA | 19



Hiruerreketara iristen, zubian ateratako erretratu. GUREL GURASO ELKARTEA

Udaberrilekuetan ekintza ugari; tartean, Hiruerreketara irteera

Martxoaren 26rako eta 27rako herriko gaztetxoendako ekintza bereziak antolatu zituen Gurel elkarteak

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Aste Santuaren atarian, Udaberrilekuak egin zituzten Leintz Gatzagako haurrek. Gurel Guraso Elkarteak antolatuta eta bi begiraleren gidaritzapean, bi egunean goizetan ekintza ugari izan zituzten.

Oporraldiko ekintzei hasiera emateko, Hiruerreketara irteera izan zuten. Mendiko arropak jantzi, ogitartekoak prestatu, eta 11:00etan abiatu ziren Deba ibaiaren sorrera-lekura gatzagar gazteak. Gero, Dorleta Santutegian egin zuten geldialdia, eta hango belardian egunerako

prestatutako zenbait jolas egin zituzten. Bigarren egunean, berriz, patinetan aritzeko ikastaroa egin zuten, eta, horretarako, Gatzagako pilotalekuan zirkuitua prestatu zuten, kono batzuk jarrita. Udaberrilekuei amaiera emateko, *Monitore galduaren bila* jolasa egin zuten.

Antolatzaileak "pozik" daude

Udaberrilekuetan aritu diren haurrak oso gustura aritu direla azpimarratu nahi izan dute Gurel elkarteak: "Oso gustura aritu dira eta laburra egin zaiela adierazi digute".

Argia moztuko dute bi auzotan hilaren 16an, martitzena

Leintz Argik jakinarazi duenez, argi mozketa programatua egingo du datorren martitzenean, apirilaren 16an, Leintz Gatzagan. Hain zuzen ere, Goierrin eta Arlaban gainean eragingo du argi mozketak -moztutako potentzia: 350 kVA-, eta argindar-instalazioaren kalitate eta fidagarritasuna hobetzeko hainbat esku-hartze egingo dituztela azaldu dute.

Hori horrela, 08:30etik 16:00etara bitartean egingo dira argi hornidura barik Leintz Gatzagako bi auzoetan, eta esku-hartzeak irauten duen bitartean aparatu elektronikoak deskonektatzea gomendatu dute Leintz Argiko teknikariek.

Makilakorta Fest jaialdiko egitarauaren berri eman dute

Makilakorta Fest jaialdia maiatzaren 4an ospatuko dute. Gatzaga City Krew gazte taldeak antolatutako eta Gatzagako Udalak babestutako jaialdia erroto egin da azken urteotan, eta sare sozialetan eman dute egitarauaren berri. 09:30ean, pilota goxoarekin jokaturako txapelketa hasiko da; izena emateko, *@gatzacitykrew* Instagram kontura mezua bidali beharko da, eta bikoteka hamar euro ordaindu egunean bertan. 11:00etan, herri kirolak izango dira; 14:30ean, herri bazkaria -txartelak Labidean salgai-; 17:30ean, eskupilota txapelketa finala jokaturako da; eta 19:30ean, Etxekalte eta The Clayton taldeak izango dira.



Lyon (Frantzia) ondoko Michel Jurine tailerreko langileek San Pedro elizan, asteen, organoaren kutxa hutsa atzean dutela. GOIENA

Itzuli da 1889ko organoa, artisau adituek berritua

Lyon (Frantzia) ondoko Michel Jurine tailerreko langileek asteen ekarri dute San Pedro elizara Stoltz Freres organoa, bi urte eta erdiz instrumentu baliotsua modu artisauan berritzen aritu ondoren. Asmoa da ekainaren 29an inauguratzea, San Pedro egunean

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Albiste izan da, asteen, 1889ko martxoaren 18an inauguratu zen San Pedro elizako Stoltz Freres organoa. 2022ko otsail erdialdean hasi ziren balio handiko organoa desmuntatzen, eta asteen itzuli da haren habitat naturalera, San Pedro elizara. Rontalonen, Lyon (Frantzia) ondoan kokatuta dagoen SARL

Michel Jurine Manufacture D'orgues enpresako bederatzi lagunek ekarri dute organoa Bergarara, eta, GOIENARI azaldu diotenez, organoaren pieza "guzti-guztiak" zaharberritu dituzte azken bi urte pasatxoan: "Gure tailerretik ekarri dugun kamioia deskargatzea eta pieza guztiak eliza barruan ondo kokatzea izan da lehen lana. Orain, orga-

noa berriz muntatzea falta zaigu; pieza handiak igotzea eta jartzea ez da lan konplikatu, baina gero, mekanika guztia ondo jarri behar dugu, eta horrek zehaztasun handiz lan egitea eskatzen du. Pieza guztiak ondo berritu eta jarri behar dira, gero organo-joleak zehaztasun handiz jo behar duelako. Gainera, aprobetxatuko dugu San Pedro elizan

geratu ziren metalezko tutuak ere ondo garbitzeko".

San Pedro egunean inauguratzea Michel Jurine tailerreko langileek ondo baino hobeto dakite San Pedro elizako organoa balio handikoa dela: "Maisulan bat da, Euskadiko organo interesgarrienetako bat. Berezia da beste batzuekin alderatuta oso ondo kontserbatu dela XIX. mendean egin zenetik, eta horregatik da balio oso handikoa da ondare ikuspegitik".

Helburua da ekainaren 29an San Pedro egunean inauguratzea organo berritua, eta egun horretan "zerbait berezia" egin nahi dute, baina hori egin aurretik organoaren harmonizazioa eta afinazio lanak falta dira, eta lan horretaz ere Michel Jurine tailerreko adituak arduratuko dira: "Bereziki, harmonizazioa da lanik konplikatuena eta luzeena, eta, ondoren, afinatu egingo dugu. Lan zaila eta luzea da, baina guretzat ohorea da halako harribitxi bat berreskuratu ahal izatea. Lanerako giro ezin hobea dugu, organo-jolearekin eta erakundeetako ordezkariarekin".

Lan garestia eta zehatza

San Pedro elizako organo-jole titular Aitor Oleak azpimarratu duenez, "esperientzia handiko langileak" dira egunotan San Pedro elizan lanean dihardutenak. "Organoaren hauspoa eta soinuak ihes egiten zuen zirkuitu guztiak birgaitu dituzte, eta baita tutuak eta mekanika osoa ere. Lanek bi urte eta erdi iraun dute, aurreikusitako moduan. Pozik gaude elkarlan honi esker berriro entzun ahal izango dugulako organoa behar den moduan". Gipuzkoako Foru Aldundiaren, San Pedro parrokiaren, Berga-

rako Udalaren, Donostiako Elizbarrutiaren eta Stoltz Freres Organoaren Lagunen Elkartearen ekarpen guztien batuketari esker 468.103 euro lortu ziren, organoa berritzeko behar zen aurrekontua. Diputazioak 234.000 euro jarri ditu; San Pedro parrokiak, 80.000 euro; Udalak, 60.000 euro; Donostiako Elizbarrutiak, 54.000 euro; eta Stoltz elkarteak, 40.103 euro.

Oleak azaldu du zergatik den horren garestia organoa birgaitzea: "Sei pertsona aritu dira lanean 30 hilabetez. Planoak egin dituzte, notaz nota soinu guztiak -36 joko bider 56 teklatu-nota eta 30 pedal nota-, eta nota horien konbinazioak grabatu; instrumentua desmuntatu eta Rontalera garraiatu; makina pneumatikoa leheneratu; hauspoak zaharberritu; sekretuak berritu; noten mekanika zaharberritu; zurezko eta metalezko obrak berritu [2.343 hodi dira]; kontsolaren eta noten mekanika berritu; haizegailua berritu; instrumentua Bergarara ekarri; eta, azkenik, muntatu, harmonizatu eta afinatu".

Asmoa da Michel Jurine tailerreko langileak apirilaren 27ra arte egotea lanean San Pedro elizan: "Bederatzi langile horiei zor diegu organoa bere jatorriko soinuaren entzun ahal izatea. Stoltz berbak *harrotasuna* esan nahi du alemanez, eta hori da sentitzen duguna: harro gaude organo hau Bergaran izateaz, ondare oso baliotsua da".

DIPUTAZIOAK, ELIZAK, UDALAK ETA STOLTZ FRERES ORGANOAREN LAGUNEK ORDAINDU DUTE: 468.103 EURO

Elkororen gaineko liburua bihar aurkeztuko dute udaletxean

'Han egon zen. Jose Luis Elkorro, bizitza bete bat' da liburua, eta Mikel Zubimendi kazetari bergararrak idatzi du

J.B.L. BERGARA

Mikel Zubimendi kazetariak (Bergara, 1969) Jose Luis Elkororen (Elgeta, 1935) inguruan idatzi duen *Han egon zen. Jose Luis Elkorro, bizitza bete bat* liburua (Txalaparta, 2024) aurkez-

tuko dute bihar, apirilak 13, udaletxeko osoko bilkuren aretoan (12:00). 1976tik 1979ra eta 1983tik 1987ra Bergarako alkate izan zen Elkorro, eta baita Eusko Legebiltzarreko parlamentari eta Espainiako diputatu eta senatari ere,

ezker abertzaleetik. Elkorro ez da biharko aurkezpenean egongo, gaixorik dagoelako.

Elkarrizketa luzeak oinarri

Franco hil ostetik gaur egunera arteko Euskal Herriaren hainbat pasarte garrantzitsu jasotzen ditu Zubimendik liburuan, Elkorroekin izandako elkarrizketa luzeak oinarri hartuta: ikurrinaren legeztapena, Alkateen Mugimendua, lantegien euskalduntzea, Xibertako eta Zuricheko bake negoziazioak, *Egin*



Liburuaren azala. TXALAPARTA

egunkariaren sorrera eta itxiera... Eta hala berresten du Zubimendik liburuan: "Elkororen aurkako erasoak eta espetxealdiak gorabehera, apal eta konpromiso handiz jardun zuen inurri lanean; betiere, Euskal Herri euskalduna, burujabea eta askea helburu". Zubimendik GOIENARI adierazi dioenez, liburua egiteko "biluztu" egin zen Elkorro: "Kontatu beharrekoak kontatu ditu, nahiz eta guztia haren detaileetan ezin den idatzi; gaur-gaurkoz, oraindik ez".

Laster eman ahalko da izena udako eskaintzan

Ume eta nerabeentzat hainbat ekintza antolatuta ditu Udalak, ekainerako eta uztailerako

J.B.L. BERGARA

Udalak atzo aurkeztu zuen umeei eta nerabeei zuzendutako udako eskaintza. Udaleku irekiak, kirol eskaintza eta Laboratorium museo eskaintza aintzat hartuta, haur eta gaztetxoek denetarikoko ekintzez gozatzeko aukera izango dute ekainean eta uztailean. Udaleku irekiak ekainaren 24tik uztailearen 19ra izango dira –hiru astekoa, uztailearen 12ra arte–, eta izena eman daiteke apirilaren 15etik maiatzaren 5era; www.bergara.eus-en, BAZen edo udal liburutegian eman ahalko da izena. Udako kirol campusa udaleku irekien data berberetan egingo da eta izena eman ahalko da apirilaren 15etik 28ra; www.bergara.eus-en edo Agorrosinen eman ahalko da izena.

Bestalde, udako igeriketa kanpainak bi txanda izango ditu: ekainaren 24tik uztailearen 5era eta uztailearen 8tik 19ra. Gainera, gazteendako udako kirol kanpaina ekainaren 24tik uztailearen 19ra izango da; bi kanpainetan izena eman ahalko da apirilaren 26tik maiatzaren 7ra, www.bergara.eus-en edo Agorrosinen. Amaitzeko, Laboratoriumek ere eskaintza zabala dauka, *Gozatuz zientziaratu!* lelopean: www.laboratorium.eus.

"Obra txikia" postuetan, "biziberritzeari" ekiteko

Oxirondo biziberritu nahian, postu finkoen itxura aldatzeko lanak abiatuko ditu Udalak hilaren 15ean, eta saltzaileen jardunean eragina izango du. Elikaenea da proiektuaren oinarria eta Ereindajenek gidatuko du; dena ondo bidean, ekain erdialdetik aurrera

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Oxirondo azoka biziberritzeko Udalak "ezinbestekotzat" jo zituen obren azken zatia astelehenean, hilak 15, jarriko dute martxan. Azokako postu finkoen espazioa "erakargarriago" egin nahi dute, eta, horretarako, Udalak 48.202 euroko inbertsioa egingo du –Goitu Eraikuntzak enpresak egingo du obra–. Helburua espazio guztiari antzekotasun estetiko eskaintzea izango da.

Obraren eragina murriztu nahi

Oxirondo azokako postu finkoetako saltzaileek eraikin osoa hilabete oso batez ez ixteko "beste aukera bat" eskatu zioten Udalari, eta, Ainhoa Lete zinegotziaren arabera, haien eskarei men egin diete, ahal izan duten neurrian: "Hasiera batean, enpresak esan zigun hilabete batez obra-eremuak itxita egon beharko zuela, eta, orduan, kezka sortu zen saltzaileengan, normala denez. Kalte-ordain batzuk mahai gainean jarri arren, azken asteotan kalteak murriztu ahal izateko lanketan aritu gara. Hala, obrak hilabete iraungo duen arren, obra-eremua itxita egongo da hamabost egunez".

Saltoki finkoen eremua itxita egongo den arren, jarduna ez da erabat etengo. Bixain harategia



Oxirondo azoka, asteon; eskuineko eremuan hasiko da obra, hilaren 15ean. J.B.L.

zamalaren gunean kokatuko da, behin-behinean, eta bezeroak atzeko atetik artatuko dituzte; hau da, autobus geltokiaren ondoan dagoen zamalanetarako atetik. Izotz jaki izoztuen dendak itxi egingo dute hamabost egun horietan eta Ikuz garbitegiak "normaltasunez" jardun ahalko du, pertsiana zati bat obra-eremutik kanpo duelako.

Letek gaineratu duenez, obrak iraun artean, eguazteneko eta zapatuko baserritarrek azoka ondoko Oxirondo plazan salduko dituzte euren produktuak.

Saltzaileen erreakzioak

Postu finkoetako saltzaileek ez dute hilabete oso batez itxi behar izango, baina obraren eragina-ekin kezkatuta jarraitzen dute, bereziki, Bixain harategikoek; zalantzak dituzte hamabost egunean bukatuko ote den obra, eta ez dute argi ikusten obra horrek zenbaterainoko onura ekarriko dion negozioari. "30 urte daroatzagu Oxirondon, eta gu gaude netan ondo gaude, baina esan digute denon onerako izango dela obra... Ikusiko dugu. Esan genien, adibidez, abuztuan egi-

teko obra, baina esan ziguten gehiegi atzeratuko zela proiektua. Obrek, artean, kalte egingo digute, besteak beste, bi pertsonak jardun beharko dugulako lanean. Ikusiko dugu nola geratzen den".

Izotz dendakoak hamabost egunez itxiko du, baina espero du etorkizunean egoerak hobera egiteko balioko duela: "Sakrifizio handia izango da niretzat hamabost egunez ixtea, egun bakar bat ixtea ere gogorra da eta. Baina horrela egin beharko dugu, eta ea denon onerako den". Azkenik, Ikuz garbitegiak obra-eremutik kanpo geratuko den pertsiana zatian artatuko ditu bezeroak, ohiko ordutegian.

Ereindajan, Elikaeneako gidari

Ainhoa Lete zinegotziak azpimarratu duenez, Elikaenea den da-topagunea izango da Oxirondo biziberritzeko proiektuaren oinarria: "Elikaenea salmentarako gune bat gehiago izango da; erreminta izango da Oxirondo biziberritzeko, Oxirondo lehen sektoreko erreferentzia-gune izateko eta herritarron erosketan ohituretan eragiteko. Bailarako ekoizleen produktua erdigunean jarriko da, prezio politika zehatz batekin eta, betiere, baserritarrendako topagune bezala planteatuta".

Ereindajan elkarteak kudeatuko du Elikaenea eta horretarako hitzarmen bat sinatuko dute. "Irabazi asmorik gabeko kooperatiba txiki bat da; hori garrantzitsua da. Bost urteko ibilbide polita dute elikaduraren inguruan, ez bakarrik salmentara begira. Lehen sektorearekin hainbat lanketa egin dituzte, jangela komunitarioa... Badute eskarmentua, eta uste dugu proiektuarekin guztiz bat egiten duela elkarte horrek", dio Letek.

OHARRAK

Pentekosteak: bilera

Jaiak antolatzeko bilera irekia egingo dute apirilaren 16an Irizarren (19:30).

Elorregiko jaiak

Apirilaren 26tik 28ra ospatuko dituzte San Prudentzio jaiak, eta hilaren 27ko bazkarirako izena eman behar da apirilaren 14rako; zerrendak Alkartasuna elkartearen eta Sanprubusean egongo dira.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

21
K
KALITATEA

Enpresa Registrada Nº006525

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Burdinolako eta Valentziako Skulls taldeko jokalaria, Labegarietan, domekan jokatutako partiduan. BURDINOLA

Espainiako Zilarrezkoan jarraituko du Burdinolak

Ondo sufrituta eta aldeko golei esker lortu du Burdinolak Espainiako emakumezkoen Zilarrezko Mailatik ez jaistea; joan den asteburuan Labegarietan hiru partidu jokatu zituzten, eta horietatik bi irabazi ostean lortu dute bergararrek maila mantentzea

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Burdinola Irristaketa Klubak Espainiako emakumezkoen Zilarrezko Ligan jarraituko du datorren denboraldian. Ondo sufritu behar izan dute mailari eusteko, baina lortu dute helburua eta datorren urtean aurtengo maila berean jokatuko dute. Pazko Astea "oso aste gogorra" izan zen Burdinolako jokalarientzat, denboraldiko partidu garrantzitsuenak jokatu zituzten-eta asteburuan.

Lagunartekoa, prestaketa gisa Asteburuko partidu erabakigarriak prestatzeko, joan den eguztenean Torrelavegan (Kantabria) jokatu zuten Sobre Ruedas taldearen aurka, eta 2-1 galdu zuten. Hurrengo bi egunetan, egunean eta egubakoitzean, entrenamendu gogorak egin zituzten, asteburuan Labegarietako kiroldegian izango zituzten zita garrantzitsuak ahalik eta ondoen prestatzeko. Izan ere, hiru partidu jokatu zituen Burdinola taldeak

joan den asteburuan Labegarietan izan zen hockeyko Espainiako emakumezkoen Zilarrezko Ligako jardunaldian.


Aldeko golei esker

Hirurak irabaziz gero bermatuta zuten maila berean jarraitzea, eta hori izan zen taldearen helburua. Hirutik bat galdu egin zuten, baina aldeko golengatik mailari eustea lortu dute, eta pozik daudela aitortu zuen entrenatzaileak, Agustin Ojangurenek: "Castelloko Vila-realean kontra irabazi egin genuen eta Valladolideko Rolling Lemons taldearen aurka, berriz, galdu. Hirugarren partidu Valentziako Almassera Skulls taldearen kontra jokatu genuen eta iraba-

LIGAKO D MULTZOAN HIRUGARREN AMAITU DU BURDINOLAK, LAUGARRENAREKIN BERDINDUTA

zi egin genuen; partidu gogorra izan zen hirugarrena. Lehia zuzena zen eta elite mailako jokalaria atera zituzten. Hala ere, Burdinolako neskek sekulako partidua egin zuten".

Sartutako gol kopurua kontuan hartzen da sailkapen orokorrerako, eta Burdinolako neskek aurkariek baino gol bat gehiago sartu zuten. Horri esker, hirugarren postuan sailkatu da etxeko taldea asteburuko jardunaldiaren, ostean eta horrek esan gura du mailari eustea lortu duela eta hurrengo denboraldian ere maila berean jokatuko duela: "Datorren urtean ere Espainiako emakumezkoen Zilarrezko Ligan egongo gara, senior kategorian. Oso-oso pozik gaude". D multzoko hirugarren amaitu dute bergararrek, 18 punturekin, laugarren sailkatu Valentziako Almassera taldearen puntu kopuru berberarekin –argazkian bi taldeak batera ageri dira domekako partiduan–; Valentziako taldea mailaz jaitsiko da.



NIRE USTEZ

ANA CARPINTERO

1,2,3, 'klik'!

Itsasora begira, olatuak nola apurtzen diren entzuten, haizea aurpegian, eguzki izpiek ukitzen duten gorputz atalean berotasuna sentitzen... Edo okindegiko ilaran, zain, labea zabaltzean irteten den epeltasunaz eta usainaz gozaten, ogi epela esku artean hartzen... Edo zure etxeko gozotasunean, zure tristurak sabelean sortzen duen korapiloa sentitzen, bilatutako bakardadeaz gozaten, babesgune den zure txokoaren intimitatean...

Askotarikoak dira egunero bizi ditugun emozioak; gozoagoak batzuk, latzagoak besteak... baina benetan behar bezala dastatzen ditugu? Ezetz esango nuke; horregatik, *sentsazioen kaptura* egiten saiatzen naiz ni. Momentu horietan, zentzumen guztiak aktibatu, memorian gordetzeko arreta eskaini eta 1, 2, 3, *klik!*, kaptura egiten dut. Honek momentua intentsitate handiagoz bizitzen laguntzen dit, eta gero, behar dudanean, berriro ekartzen ditut gogora dastatzeko, birgogoratze... Zailagoa da, noski, desatseginagoak diren emozioekin, beldurra, tristura... baina hauei ere bere tokia eta garrantzia ematen laguntzen du. Pistak ematen ditu. Interesgarria da. Interesgarriak gara.



BKE-KO ESKUBALOI SAILA

Igoera fasetik kanpo geratu dira

Gizonezkoen senior mailako eskubaloi taldea lehen territorialeko igoera fasetik kanpo geratu da, Pasai Donibanen 26-25 galdu eta liga laugarren amaituta. 28 punturekin amaitu dute, azken hamar urteetako puntu kopuru handiena: "Goiko postuetan egonkortu garen arren, azken urratsa falta izan zaigu. Badugu zer landu denboraldi amaierara arte jokatuko dugun Kopan".

Pilota: Bergara Hiria txapelketa, finalerdietara begira

Martitzenean jokatu ziren 26. Bergara Hiria pilota txapelketa lehen final laurdenak. Promes mailan, Oier Ibarluzeak eta Markel Calvok 22-18 irabazi zieten Harkaitz Muruari eta Unax Landari. Nagusietan, emaitza berarekin, Iker Egiguren eta Aingeru Bernaola finalerdietara pasatu ziren, Beñat Zubizarreta eta Manex Balerdi garaituta.



Bernaola eta Egiguren. BKE-KO PILOTA SAILA

Oparo eta borobil dator aurten Apirilean Musika

Bergarako Musika Eskolaren 40. urteurrenaren barruan, urteroko zita nagusietako bat izan ohi den Apirilean Musika ekimenak 20 urte bete ditu. Maiatzaren 8ra bitartean 28 ekintza antolatu dituzte, eskolan urte osoan egiten duten lana herriari erakusteko asmoz

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bergarako Musika Eskolaren urteroko egitarauan ekimen berezia izan ohi da Apirilean Musika, eskolan egiten duten lana herriari erakustea duena helburu nagusizat. Musika eskola 40. urteurrena ari da ospatzen eta Apirilean Musika ekimenak ere urteurren borobila betetzen du, aurtengoa 20. edizioa da eta. Askotariko 28 ekintza antolatu dituzte, guztiak doakoak: ikastaroak, askotariko instrumentuen emanaldiak, elkartrukeak, ipuin musikatuak, opera proiektzioa...

Lana da, baina merezi du

Eskolako irakasle Leire Ugarteren arabera, "oso garrantzitsua" da Apirilean Musika: "Urte osoan egiten duguna erakusteko balio izaten digu. Irakasleondako zoramena izaten da apur bat, lan handia dakarrelako, baina ederra izaten da erakustea ikasleak noraino hel daitezkeen". Antzeko iritzia dauka Bittor Giral irakasleak: "Irakaslea naiz, baina bertako ikaslea ere izan nintzen, eta Apirilean Musikak ohikotasunetik irteteko aukera ematen digu. Sormenari bide ematea da, proiektu berriak martxan jartzea; lan handia da, baina



Apirilean Musika aurkezteko agerraldia musika eskolan, eguaztenean. J.B.L.

ilusioz eta gogotsu egiten dugu. Musikak zenbat aukera eskaintzen dituen berresteko modu bat ere bada ekimena".

Eskolaren "konpromisoa"

Eskolako ordezkariekin batera Kultura zinegotzi Maite Usabiega izan zen agerraldian, eta eskolak egiten duen lan pedagogikoa azpimarratu zuen: "Go-



Egitaraua ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

raipatzekoa da musika eskola ze osasuntsu heldu den 40. urteurrenera. Kalitatezko hezkuntza musikala eskaini dute lau hamarkadaz eta herriko musika maila eurei esker mantendu da, besteak beste. Gainera, pedagogikoki ere garai berrietara egokitzen saiatu dira urtez urte, eta horren adierazle da Apirilean Musika; denetariko ikuskizun eta emanaldiez gozatu ahalko dugu. Eta ez hori bakarrik: ekimena ere bada musika eskolak komunitatearekin duen konpromisoaren erakusle".



Jokin Guridi, Aroztegin, atzean erakusketako elementu bakarra den kubo duela. O.E.

Zabalik dago 'EØME' Aroztegin, ezohiko proposamen berezia

Jokin Guridi bergararraren erakusketak elementu bakarra dauka: proiektio ikusgarriz jantzitako hiru metroko kubo

J.B.L. BERGARA

Apirilaren 5ean ireki zuen Jokin Guridi Urrutiak (Bergara, 1983) *EØME* izeneko erakusketak, bertaratu zirenen harridurarako. Izan ere, elementu bakarra dago Aroztegi aretoan erakusketan. Eta elementu bakarra hori ez dago paretetan, areto erdian baizik. Lau aldetan proiektatuta dagoen hiru metroko kubo da elementua eta barrura sartu eta jolastera gonbidatu nahi du Guridik ikuslea. Aretoa ilunetan dagoela, argiztatutako kuboan murgildu behar du bisitariak.

Kuboan sartu, norberak sortu

Barrutik eta kanpotik ikusi eta entzun egiten kubo. "Pieza batzuk daude ikusteko edo entzuteko direnak, eta beste parte batzuk ere ageri dira interaktiboak direnak, eta nor-

beraren *avatar* modukoa sortu eta norbera jolastuko da horko itzal edo ispilurekin". Apirilaren 21era arte egongo da zabalik ohiko erakusketen antziz ez duen proposamen hori. "Helburua ere bazen zerbait desberdina ekartzea, ohikotasunetik kanpo dagoena eta, aldi berean, jolastera edo parte hartzea ere gonbidatzen duena, nork bere artelan propioa ere sortu dezan".

Artearen, arkitekturaren eta teknologiaren arteko harremanean murgiltzera gonbidatzen du bisitaria *EØME*-k. Aurrez pentsatutako artearen nozioak uztera eta aro digitalaren aukera mugagabeak zabaltzera. Hemen artea ez da objektu estatiko bat distantzia batetik miresteko, baizik eta parte hartzera, elkarri eragin eta sorkuntza-prozesuaren parte izatera gonbidatzen duen entitate bizia.

Bandaren kontzertu pedagogikoa etzi

Bandak kontzertu pedagogikoa emango du etzi frontoian (12:30). Gazte bandak azken bi piezak joko ditu, gainera. "Oso berezia izaten da une hori. Gazteentzat helduekin jotzea motibazio handia da, eta oso serio hartzen dute. Eta helduok ere gustura hartzen ditugu musikari gazteak. Zenbait kasutan, guraso-seme-alabak ere izango dira elkarrekin jotzen...", adierazi du Enrike Txurrukak.



Iazko kontzertu didaktikoan, ikasle gazteak musikari helduen ondoan jarrita. GOIENA

'Martina' txotxongiloa protagonista duen ikuskizuna bihar

Kataluniako L'Horta Teatre antzerki taldearen *Martina eta paperezko basoa* txotxongilo ikuskizuna antolatu du Kuku-baso elkarteak, Udalaren laguntzarekin. 3 eta 8 urte arteko umeendako antzezlan da, euskaraz, eta Seminarixoa ikusi ahalko da bihar, hilak 13, 18:00etan hasita. Sarrera lau euro ordaindu beharko da.

Euskararen egoeraren gainean jardungo du Iñaki Iurrebasok

Udalak eta UEMak Iñaki Iurrebaso (Legazpi, 1967) sozioliniguista gonbidatu dute hitzaldia egiteko; apirilaren 16an izango da, udaletxean (19:00). *Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek?* izenburupean, honako galdera hau erantzuten saiatuko da Iurrebaso, besteak beste: *Asko edo gutxi erabiltzen da euskara, dagoen ezagutzarako?*



lazio urrian egin zuten azkenekoz Aiherra-Antzuola eguna. GOIENA

40. urteurrena ospatuko du Aiherra-Antzuolak

Udalak "harreman estua" du aihertarrekin, Olatz Lezeta alkatearen hitzetan, eta horren emaitza da biharko ospakizuna; gerora, gehiago egingo dira. Instituzioetatik harago, ordea, herritarren arteko harremana izan du hizpide; batik bat, gazteena

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

40 urte bete ditu aurten Aiherra-Antzuola senidetzeak, eta bihar ospatuko dute bi herriek, egun osoko egitarauarekin.

Oiogorri filmaren aurkezpena izango da, lehenik, Torresoroan, 12:00etan: Pette Etxebarria zinemagileak ondu du Aiherran (Nafarroa Beherea) eta Antzuolan, Geuretik Sortuak dirulaguntzari esker; ondoren, senidetzearen 40 urteak batzen dituen argazki emanaldia egingo dute. 14:30ean, berriz, herri bazkaria izango da, eta Joxe Mendizabalen dantzaldiak emango dio jarraipena. Azkenik, 19:00etan, Itzal erromeria taldearen kontzertua egongo da, Zurrategin.

Nazio ikuspegia

Egitarau oparoa antolatu du, beraz, Udalak, baina Olatz Lezeta Antzuolako alkateak adierazi du ospakizunaz harago egunak baduela beste aldarririk ere; esaterako, Euskal Herria "zabala" dela aldarrikatzea: "*Bi herri, nazio bakarra*, ezta? Euskal Herriko bi herri txikiren arteko harremana da ospatzen dena, Euskal Herrian euskaraz bizi garen eta erlazioz gaitzekoen bi herriren artekoa".

Udalak harreman "jarraitua" du aihertarrekin, "sekulako ekintzak" egin gabe bada ere, eta, hala, Lezetak espero du harremana urteurren honetatik

harago luzatzea. Haren hitzetan, "osasuntsu" dago, baina gazteei dagokie testigua hartzea: "Nahiko jende nagusiak hartzen du parte, eta zaharkitu samar dago. Gauza gutxi egin daiteke harreman instituzional batekin, hor harremanak herritarren artekoa izan behar delako; batik bat, gazteena".

Ekintza gehiago

Biharkoa, ordea, ez da urteurren honetako ekintza bakarra, aur-

tengo bigarren topaketa baitute bi herriek. Segura (Gipuzkoa) izan zuten lehen geltokia, Iparr-Hegoa jaialdia aprobetxatu baitzuten elkartzeko martxoan, eta Aiherra izango dute, berriz, hirugarrena, urriaren 19an. Birtartean, Lezetak herritarrak animatu ditu Antzuolan zein Aiherran antolatzen diren bestelako ekintzetan parte hartzera. "Ea asmatzen dugun 40 urtetik aurrera ere harremanarekin jarraitzen".

"Aberatsa da senidetzea"



IMA BERISTAIN ARAMENDI HERRITARRA

Ima Beristain eta Juan Antonio Iturbe izan ziren senidetzearen lehen harriak jarri zituztenetako bi; urte "oso aberatsak" izan dituzte. Senidetzea mantentzeko "ahalegin asko" egin direla diote, eta, batzuek emaitzarik ez eman arren, ez dela "ez gazteen ez zaharren" errua. Herritarrak animatu dituzte Aiherra eta senidetzea ezagutzera.

"Gazteok dugu, agian, testigua"



JON MATA ETXANIZ HERRITARRA

Gazte mugimenduko kide honen hitzetan, bi herrietako gazte "gutxi batzuen" artean harremana egon arren, "ez dago hedatuta" eta "hobetu" daiteke: "Orain, agian guri dagokigu testigua hartzea, baina gazteek eta gazteendako sortutako egitarau bat beharko litzateke; horrek funtzionatuko luke, eguna oso zaharkituta baitago".

Zabalik dago udalekueetan izena emateko epea, hilaren 19ra arte

5 eta 12 urte arteko haur eta gazteei zuzenduta daude, goizetan; begirale izateko ere eman daiteke izena

A.R.K. ANTZUOLA

Idolaz aisialdi elkarteak eta Udalak antolatuta, uztailaren 1etik 18ra egingo dira udaleku irekiak, eta zabalik dago izena emateko epea, hilaren 19ra arte. 5 eta 12 urte arteko haur eta gazteek izango dute parte hartzeko aukera, bi adinak barne, 09:30etik 13:00etara. Horretarako, inprimakia bete behar da eta udaletxean edo liburutegian entregatu; udala@antzuola.eus helbidera ere bidali daiteke, ordainagiriarekin batera. Hain justu, 84 eurokoa da kuota arrunta, 56koa familia ugariena eta 10ekoa DBE onuradunena.

Horrez gain, begiraleendako lan eskaintza ere irekita dago. Hala, izen-emate dokumentua bete eta interesdunek identzuola@gmail.com helbidera bidali behar dute eskaria, hilaren 19a baino lehenago.



lazio udaleku irekiak. GOIENA

Lore bilketa eta tailerra

Hilaren 20an, lore bilketa eta orri markatzaile tailerra egingo dute lehenengo mailatik hasi eta hirugarrenekoenera arte: 10:00etan izango da, Herriko Plazan, eta 17a baino lehen eman behar da izena liburutegian.

Azken saioa egingo du martitzenean Hil Arte Bizi egitasmoak

Etorkizuneko hilerria irudikatuzeko asmoz, gogoeta parte-hartzailea egiten aritu dira azken hilabeteotan dozenaka herritar, Hil Arte Bizi egitasmoak, Antzuolako Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz ikerketa taldeak bultzatuta, eta ondutako txostenaren zirriborroa aurkeztuko dute hilaren 16an, martitzenean,

18:00etan, Olaranen. Helburua da batik bat prozesuan parte hartu dutenei jasotakoaren berri ematea, haiek ere oharrak egin ditzaten.

2023ko maiatzean egin zuten aurkezpena jendaurrian, eta urrian egin zituzten lehen bi saio irekiak; baita azaroan beste bat ere. Nere Erkiaga izan da dinamizatzailea, Hil Arte Bizi egitasmoko kidea, eta xede izan du herritarrak heriotzaren inguruan ahalduntzea, "naturaltasunez" uler dezaten gaia.

'Emakume izoztua' liburua izango dute hizpide eguaztenean

Helduen euskarazko irakurle taldea batuko da eguaztenean, hilaren 17an, eta Annie Ernaux idazle frantziarraren *Emakume izoztua* liburua izango dute hizpide, Alaine Agirreren gidaritzapean. Hain justu, Gema Lopez Las Herasek euskaratu du, Jokin Zaitegi lehiaketa irabazi ondoren. 18:00etan izango da saioa, udal liburutegian.

Hilaren 18ra arte eman daiteke izena Pagoetako irteeran

Euskal Herriko natura parkeak ezagutzeko egitasmoak ez du etenik, eta apirilaren 20an egingo dute hurrengo irteera. Pagoetara (Gipuzkoa) joango dira, baina, horretarako, hilaren 18a baino lehenago eman behar da izena, labur.eus/arrolapagoeta edo arrolamt@gmail.com helbideetan. Iturriaran-Aia-Pagoeta-Aia ibilbidea egingo dute.

Langile batailoietako presoak aurten gogoan

Intxorta 1937 Kultur Elkartek eta Elgetako Udalak hilaren 20rako iragarri dute 2024ko Memoria Eguna. Epaietarik gabe "esklabo-lanetara" zigortutako biktimak izango dituzte gogoan; elgetarrak zein Elgetako berreraikitze lanetara behartutakoak

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Apirilaren 23an 87 urte beteko dira Italiako Aviazione Legionari eta Alemaniako Kondor Legioak Elgeta suntsitu zutela. *Saboia* eta *Junkers* hegazkinak hiru egunetzauritako bonbek suntsitu zuten herria. Urtero moduan, Memoria Eguna egingo dute Elgetan. Domekan izango da ekitaldi nagusia, apirilak 20, 12:00etan.

Gerraren ostean frankistek preso hartu eta "esklabo-lanetara" behartutako biktimak izango dituzte bereziki gogoan aurten. Intxorta 1937 Kultur Elkartek ahalegin handia egin du biktima haien izen-abizenak batzen, eta Elgetako Udalaren parte hartzearekin egingo dute aitortza ekitaldia. "Xumea izango da. Plaka jarriko dugu udalletxeko fatxadan; *Regiones devastadas* dioen plakaren ondoan", azaldu du Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kide Nerea Villak. Iaz jartzekoa zen plaka izango da. "Txalaparta doinuak, hitzaldiak eta aureskua ere izango dira".

Egia, justizia eta erreparazioa

Elgetar asko aritu ziren frankisten langile batailoietan; 70 baino gehiago batu ditu memoria taldeak. Elgetaren berreraikitze lanak ere esklabo-lanetara



Langile behartuak Aiako Harrian 40ko hamarkada hasieran. EREZUMA SENDIA

EKITALDIA 12:00ETAN HASITAKO DA, PLAZAN, ETA PLAKA BAT JARRIKO DUTE UDALETXEAN

behartutako presoek egin zituzten; izan ere, jakinekoea da frankistek atzemandako 102 preso heldu zirela 1940an Elgetara. Haien lehenengo egitekoa hondakinak kentzea izan zen. Herria suntsitu eta zazpi urtera jarri

zuten udalletxe berriaren lehen harria. Herrian berreraiki zen lehen eraikina izan zen. Elizak jasandako kalteak konpontzeko lanak egiteko, berriz, sei urte behar izan zituzten.

Lagun horien guztien memoria atera nahi dute argitara Intxorta 1937 Kultur Elkartek eta Elgetako Udalak aurtengo Memoria Egunean. Azpimarratzen dute epaitu barik sartu zituztela langileen batailoietan. Beste behin egia, justizia eta erreparazioa aldarrikatzeko ere baliatuko dute Memoria Eguna.

Bisita gidatuak, erritmo onean

Intxortako ibilbide tematikoaren bueltan, bi bisita gidatu egin ditu Nerea Villak jaiegunotan. Martxoaren 30ean, Tolosatik eta Valladolidetik etorriko bost lagun izan ziren ibilbidea egiten. Apirilaren 7an, dozena bat lagun elkartu ziren. Ikastetxeetatik ere jasotzen dira bisita eskaerak. Opor aurretik, Donostiako Larramendi ikastetxeko ikasleak izan ziren Elgetan.



Domekan egindako bisita gidatua. INTXORTA 1937 KE

Liburuaren Egunaren bueltako ekintzak hil amaierara bitartean

Artista-liburuen erakusketa ikusgai dago dagoeneko, eta ipuinen ordu berezia izango da gaur, 17:30ean

L.Z.L. ELGETA

Bi aste barru ospatuko da Liburuaren Nazioarteko Eguna, hilaren 23an, eta Udal Liburutegiak programazio berezia gertatu du. Gaur, barikua, umeendako ipuinen ordu berezia izango da. 17:30ean, HH-2 eta LH-1 arteko haurrentako saioa izango da; eta 18:30ean, LH-2 eta LH-6 artekoendako.

Datorren barikuan, hilak 19, umeek egingo dituzte kontalari lanak. *Gu ere kontulari* saioa deitu du Udal Liburutegiko Geaxi Ezpeletak, eta zabalik dago

izen-ematea. Kontalari lana egin nahi dutenek izena eman behar dute liburutegian.

Liburutegia Plazara 26an

Apirileko azken barikuan izango dira azken ekitaldiak. Hilaren 26an, mahaia jarriko du Ezpeletak plazan, 16:00etatik 18:30era, Liburutegia Plazara ekimenaren baitan. 17:30ean, *Istorio baten truk* ipuin kontaketa musikatua egingo du Kontukabi taldeak. Gainerakoan, Hitzez Pitz saioak izango dira martitzenetan eta astrotopaketa hilaren 24an.



IMANOL SORIANO

Inoiz baino jendetsuagoa aurten

180 pilotu inguru izan dira aurten Piñu-koku enduro martxan, eta balorazio oso positiboa egin dute bai parte hartzaileek bai antolatzaileek. Gazteen martxa eta Azurtzagaineko jaitsiera nobedade izan dira, gainera.

Gipuzkoako hiru txirilo bola joko txapelketako jardunaldia ere izan da herrian. Asola Berriko Enara Montiel nagusitu da, zazpi txirilo jota.

OHARRAK

Frontenis txapelketako lehen partidak gaur

Hamabost bikote daude eta bi asteburutan jokatu dute txapelketa. Hilaren 21eko bazkarirako izen-ematea zabalik da.

'Bizkarsoro' pelikula martitzenean 18:00etan

Espaloia kafe antzokian izango da ikusgai. Arte zuzendari Izaskun Urkijo han izango da.

Gurasoendako hitzaldia eguaztenean 18:30ean

Gaia izango da umeen eta nerabeen ongizate emozionala.

Gazte Eguneko sarrerak salgai Haizean

Bazkaria 20 euro da eta kontzertuetarako sarrera, 5 euro.



Arantzazu 36 zm, 5 mende, herri 1 lanaren irudietako bat. ARTEMAN

Arantzazu zer den ikusiko da proiektzioan

Arantzazuren iragana eta oraina jasotzen duen 'Arantzazu 36 zm, 5 mende, herri 1' dokumentala aurkeztuko dute gaur, 19:00etan, Santa Ana antzokian. Pello Sarasua zuzendaria, lanean parte hartu duten hainbat lagun eta Eñaut Elorrieta egongo dira

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Gaur, egubakoitza, 19:00etan estreinatuko dute, Santa Ana antzokian, *Arantzazu 36 zm, 5 mende, herri 1* dokumentala, Arantzazuren iragana eta oraina kontatzen duen ikus-entzunezkoa. Aurkezpenean izango dira zuzendaria bera, Pello Sarasua eta baita dokumentalean parte hartu duten hainbat lagun. Alkateak ere hartuko du hitza, Eñaut Elorrietaren zuzeneko musikarekin hasiko den ekitaldian.

70 minutuko dokumentala

Arantzazuren ondare immateriala jasotzea pentsatu zuen ArantzazuLab erakundeak, eta horretan hasi zen Arteman komunikazio agentzia, elkarrizketak eginez. Dokumental baterako materiala bazegoela ikusi zuten orduan haiek, eta artxiborako izan behar zuen lana dokumentalerako egokitzen hasi ziren. "Duela urtebete pasatxo egin genituen grabazioak.

Testigantzak jasotzea zen helburua, eta zortzi fraide eta Arantzazu hainbat arrazoiengatik gertu duten beste horrenbeste lagun elkarrizketatu genituen. Artxiborako lana zena ikus-entzunezko bihurtu da, azkenean", dio Artemaneko Gorka Etxabek.

Dokumentala egiteko, baina, konfiantzazko esparru bat sortzea beharrezko ikusi zuten, eta, horrela, gizartegintzan aritua den Pello Sarasuarengana jo zuten. "Jasotako materialarekin hark egin du gidoia eta zuzendu du dokumentala. Guk, aldiz, irudien grabazioak, postproduktzioa eta muntaia. Elkarrekin aritu gara Sarasua eta gu", argitu du Gorka Etxabe aretxabaletarrak.

GAUR DA AURKEZPENA, SANTA ANAN; ASTEBURUKO OHIKO ZINEMA ORDUETAN ERE ESKAINIKO DUTE

Testigantzak eta irudiak

Arantzazu zer den erakusten duen dokumentala da *Arantzazu 36 zm, 5 mende, herri 1*. Garai bateko Arantzazu eta egungoa, espiritueltasuna, natura, artea edo euskara, adibidez, arrazoi moduan hartuta. "Irudi ederrez jantzita dago eta esango nuke dokumental atsegina eta sakona dela, herritar guztiek gustura ikusteko modukoa. Arantzazuko historia, tresnak, tradizioa, balioak, kultura, natura... jasotzen ditu, eta etorkizunerako galdera zabalik utzi", dio parte hartu duen Paulo Agirrebalzategi fraide araoztarrak. Jose Mari Arregi eta Juan Migel Dorronsoro dira agertzen diren beste fraide bi; elizatik kanpokoen testigantzen artean, Jon Sarasuarena eta Xabier Euzkitzerena jaso dira.

Eguaztenean Donostian -400 lagun batu ziren Antzoki zaharrean- ikusi zuten eta gaur Oñatin da aurkezpene. Beste herri askotara ere iritsiko da.

Bisita gidatua egingo dute gaur Araozko ostataua erakusteko

Araozko ostatuaren esleipena egiteko beste deialdi bat egin du Oñatiko Udalak, eta gaur, egubakoitza, egingo dituzte bisita bereziak ostatuan bertan, zerbitzua ustiatzeko interesa dutenekin.

Ustiapen kontratua lau urtekoa izango da eta beste bost urtez luzatu daiteke. Hileko gutxieneko alokairua 800 eurora jaitsi

da deialdi berrian, baina beste puntu batzuk ere baloratuko dituzte. Bestalde, ostatuaren ustiaketa hartuko duen enpresak gutxienez bi laguneko lantaldea aurkeztu beharko du, jangela zerbitzari bat eta elikagaien manipulazailer tituluak duen sukalde arduradun bat. Bezeroekin harreman zuzena izango duten pertsonak euskaraz ulertu eta berba egiteko gaitasuna beharko dute izan.

Apirilaren 22ra arte dago proposamenak aurkezteko.

Enpresa berrietarako dirulaguntzak eska daitezke dagoeneko

Enpresa berriak sortzeko dirulaguntzak emango ditu aurten ere, Udalak eta dagoeneko zabalik dago epea eskaerak egiteko. Oñatin enpresa jarduera berri bat sortu edo eskuz aldatuta jarduerari jarraipena emango dion herritar orok eska dezakete dirulaguntza. Horretarako, eskatzaileak herrian erroldatuta egon behar du, gutxiarik, enpresa

eratu baino sei hilabete lehenagotik. Sortzen den enpresa berriak ere Oñatin izan beharko du egoitza soziala eta fiskala, eta baita lantokia bera ere.

2023ko urtarrilaren 1etik eta 2024ko ekainaren 30era bitartean alta emandako negozioak sartuko dira enpresa berrien zerrendan, eta, hori egiaztatzeko, Ekonomia Jardueraren gaineko Zergan alta eman zeneko data hartuko dute kontuan. 25.000 euro daude banatzeko eta azaroaren 29a arte eska daitezke.

Emakumion Etxiaren kudeaketaz bilera gaur, egubakoitza

Gaur, egubakoitza, Emakumion Etxiak izan beharko dituen kudeaketa eta gobernantza definitzeko hirugarren saioa egingo dute. Eltziako hirugarren solairuan izango da bilera, arratsaldean, 16:30etik 19:30era. Bilera horretan aurreko saioetan jasotakoak ere aztertuko dituzte; alegia, espazioak zein lantalde eta egitura beharko dituen.

Gazteendako hitzaldia egongo da, etxeko ekonomiari buruz

Emantzipaziorako etxeko ekonomiari buruzko hitzaldia antolatu du Maratz zerbitzuak gazteendako. Diru sarrerak, gastuak, familia-aurrekontua doitzea, pertsona zorpetuaren perfila... Gai askori buruzko argibideak eman eta zalantzak argituko dituzte. Apirilaren 18an izango da, 18:00etan, gaztelekuan.

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganese Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

Vivaldiren 'Lau urtaroak' hari-instrumentuen bidez

Musika eskolarekin batera prestatutako bi kontzertu didaktiko egingo ditu Aequus Ensemble orkestrak zapatuan Santa Anan. Konpositore italiarraren pieza famatua joko dute eta gaztetxoek Potx pailazoarekin ezagutuko dituzte obra eta hari-instrumentuak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Orkestra ezagutzeko emanaldia prestatu du Ganbara Faktoriak zapatuak. Era didaktikoan egingo dute, instrumentuak erakutsiaz eta nola jotzen diren azalduaz. Bide batez, gainera, Antonio Vivaldi musikariaren lana ere azalduko dute. Faktoriako parte den Aequus Ensemble orkestra izango da, hain zuzen ere, kontzertua eskainiko duena, eta bereziki umeendako izango dela aurreratu du zuzendariak, Aitor Biainek.

Instrumentuak probatu

Bandarekin egin izan duten moduan, orain orkestrarekin egingo dute ume eta gaztetxoei begira

prestatutako kontzertu didaktikoa. Hari-instrumentuen familia modu didaktikoan aurkeztea da helburua. "Orkestra barrutik ezagutzeko ekintza izango da. Vivaldiren *Lau urtaroak* izeneko kontzertua izango da eta konpositoreak lau urtaroak nola deskribatzen dituen ikasiko dugu. Instrumentuak probatzeko modua ere egongo da, gainera, ze soinu duten entzuteko, eta nola jotzen diren jakiteko. Musikaria, obra bera eta instrumentuak ezagutzeko kontzertua izango da", azaldu du Biainek.

Potx pailazoarekin

Bi emanaldi izango dira. Lehenengo 10:30ean izango da, ins-

trumentua aukeratzea tokatzen zaien musika eskolako ikasleendako eta euren senideendako. Potx pailazoaren laguntzarekin, Vivaldik urtaroak nola deskribatzen dituen ikusiko dute; baita kontzertu batean nola egon behar duten ere.

Bigarren emanaldia 12:00etan hasiko da, herritar guztiendako, eta aurreko kontzertuan erabilitako dinamika bera erabiliko dute. Gainera, umeak musikarien artean eseri ahal izango dira kontzertua euren ondoan jarraitzeko. Ordubeteko saioak izango dira. Eguerdiko entzunaldirako sarrerak salgai daude, bost eurotan, Txokolateixan.



NIRE USTEZ

JONMIKEL INTSAUSTI

Aketegiko tontoretik

Iragan martxoaren 16ko eguerdian Gipuzkoako puntarik garaienean nintzen Euskal Mendi Federazioaren mendeurrena ospatuz. Euskal mendizaletasunaren urtemugan, nire mendizale iraganera begira hainbat kontu datozkit gogora: zeruan diz-diz dagiten sokalagunak, zidorretan izandako berbaldiak, eguzki zein lainopean, elur, harri, orbel, belar eta lokatzetan zuzendutako pausoak eta begi ninietatik iragazitako ostadarraren mila koloreak.

Baina zer da niretzat mendia? Bat dagit Luis Pedro Peña Santiago handiak definitu zuenarekin: "Mendia ez da bakarrik bakardadea; are gutxiago, Euskal Herriko mendia. Gehienetan, geure inguruari arreta pixka batez so eginez, Historia berarekin egiten dugu topo. Mendiak, ataka desolatuak, basoak, zubiak, bentak, baselizak, bordak, zalbideak, trikuharriak, harrespilak, kondairak, mitoak, erromeriak, artzainak, gudak, peleginazioak... Ez da gauza gehiegi? Ez, bizitza osoa da gure bidera jauzi egiten ari dena, eta guk ezin dugu geldiarazi, bera gu geu garelako". Geu gara mendia!

Ni Hil eta Ikarass metal taldeak datoz Burrundaren eskutik

Apirileko azken bi asteburuetarako antolatu ditu Burrunda Faktoriak lehen ikasturteko azken kontzertuak. Apirilaren 19an izango dira hurrengoak: Gasteiztik etorriko den Ni Hil taldeak eta Durangoko Ikarass taldeak joko dute zuzenean, 22:00etan. Metal musika entzuteko gonbidapena, beraz, oraingoan. Zortzi euro izango da sarrera arrunta eta hiru murriztua. Elkarteko kideek, bestalde, txartelak atera dituzte denboraldi berri honetan ere ekimena diruz laguntzeko.

Lehen ikasturteko azken kontzertua Pelax taldeak egingo du, hilaren 28an, Aloñako Igoera eguna borobiltzeko.

Oñatiko musika izango dute berbaigai datorren eguaztenean

Aurkeztu berri duten *Oñati Vizirik* diskoaren testuinguruan antolatutako ekintzen artean, musikaren inguruan antolatutako bigarren mahai-ingurua egingo dute apirilaren 17an: *Oñatiko musikaren iragana eta oraina*. Gonbidatuak izango dira: Iñigo Biain, Naia Hernandez, Jesus Mari Aranburu eta Aitor Regueiro. Dinamizatzailea Aitziber Aranburuzabala kazetaria izango da. Kultura etxean izango da tertulia, 19:00etan.

Aste honetan egin dute lehen mahai-ingurua, eta Euskal Herriko musika eszenaz jardun dute, Itziar Ugarte kazetariak gidatuta. Datorren astean herriko musika izango da berbaigai.



Ganbara Faktoriako Aequus Ensemble orkestraren emanaldietako bat Santa Ana antzokian. GANBARA FAKTORIA



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Egubakoitz arratsaldeetako saioetako bateko ikasleak eta irakasleak. O.E.G.

Xakean nola jokatu ikasten

Herriko gaztetxoei xakean erakusten izaten dira astero Alberto Vesga eta Markel semea. Adin askotariko ikasleak dituzte eta xakearen ezaugarriak eta arauak ikusi eta jokaldiak praktikatzeko eta aztertzen dituzte, xakean nola aritu ikastearekin batera

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI
Gaztelekuak urtero antolatu ohi duen xake txapelketan gaztetxo askok ematen dute izena, eta uda kanpainako xake eskaintzak ere oso harrera ona izaten du. Zaletasuna dagoela ikusita, eskolak ematen hasteko proposamena jaso zuen Alberto Vesgak Urgain ikastetxearen aldetik.

Xake elkarterik ez herrian

Vesgak baietz esan eta Errekaldeko geletan hasi zen xakea erakusten herriko gaztetxoei: "Ikasleak herriko ikastetxe gutxiak dira. 5 eta 6 urtekoak daude talde batean eta 8 eta 12 urte artekoak beste batean. Egubakoitzetan izaten dira eskola horiek, ordubeteak. Ikasle nagusiagoak ere badituzte; Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntza egiten dabilzanak, esaterako. Haiekin Larrañako institutu

egiten ditugu saioak, martitzenetan". Hogei bat ikasle joaten dira asteroko saioetara; uda kanpainan 60 inguruk ematen dute izena.

Legazpiko Santikutz xake elkartereko kide da Vesga; 40 urte

beteko ditu aurten elkarreak. Oñati ondo ezagutzen du "Sustrai fruta dendako jabea da" eta harritu egiten du hemen xake elkarterik ez egoteak: "Jende asko ezagutzen dut Oñatin eta badaikit xake zaletasuna dagoela; uda


kanpainako eskoletara ere behin baino gehiagotan etorri izan gara, gainera, gaztetxoei xakean irakastera. Kirol elkarte asko daude Oñatin, baina xake elkarterik ez, eta ez dakit zergatik. Uste dut elkarte bat egoteak asko erraztuko lukeela zaletasuna duten herritarren praktika, eta probatu gura dutenak ere erakarriko lituzke".

Azken asteetan Gipuzkoan egin diren hainbat lehiaketatan Oñatiko parte-hartzaileak egon direla ere gaineratu du Vesgak; esaterako, Azkoitian eta Legazpin. Maiatzean Donostian egingo den finalean ere egongo dira jokalaririk onenak.

Jolasten ikasten dute

Markel semearekin batera etortzen da Alberto Oñatira xake eskolak ematera. Xakearen oinarriko ezagutzak lantzen dituzte txikienekin: piezen kopurua, koloreak, arauak... eta jokaldiak entrenatzen eta lantzen dituzte nagusiagoekin. Taula erraldoi baten aurrean jarri eta ariketak eginez hasten dituzte saioak, esaterako, gaztetxoekin, eta partidak egiten dituzte eskolaren amaieran. "Ikasten dutena praktikan jarrita askoz hobeto ulertzen dute, eta horregatik izaten dute eskolek bi zati. Jolastera etortzen dira. Gainera, umeak oso azkarrak dira eta agudo ikasten dute. Sekulako poza da xakean ikasi gura duten gaztetxoak ikustea eta eurekin batera xakean aritzea", dio semeak.

Egubakoitzetan eta martitzenetan ematen dituzte saioak, eta irekiak dira. Interesa duena eurekin jar daiteke harremanetan. Bide batez, gurasoak eta herritar oro animatzen dituzte xake elkarte bat sortzeko.



OIHANA ELORTZA

"Kontzentrazioa sustatzen du xakeak"

MARKEL VESGA
XAKE IRAKASLEA

"Sekulako poza" hartzen du Markel Vesgak umeek xakean ikasteko gogoak dutela ikusita.

Zer da irakasten diezun lehen gauza?

Gehienek badakite piezak mugitu behar direla, eta bakoitzak zer dakien galdetuz hasten gara. Piezak ezagutu eta nola mugitu ikasten dugu gero, xake-matea egiteko, aurkaria garaitzeko.

Azkar ikasten da?

Umeak azkarrak dira.

Nolakoak dira saioak?

Umeek jolastu egin gura dute eta jolastera datoz. Ariketa batzuk praktikatzeko ditugu, lehenengo, eta gero, partidak egin; zeharo kontzentratzen dira partidetan eta gogoz zapaltzen dute erlojua. Xakeak lortzen du umeak ehuneko ehuneko kontzentratuta egotea. Ikaragarria da.




PATXI OLANO
6 URTE

"Jokatzen hasi aurretik eskua ematen diogu elkarri. Egin behar dena da piezak mugitu taularen alde batetik bestera joateko, bestearnak janz".



LUKA REGUEIRO
5 URTE

"Bi jokalarik jokatzen dute eta bakoitzak hamasei pieza ditu: dorreak, zaldiak, alfilak, erregea, erregina eta peoiak. Pieza zuriak hasten dira beti".



JOSEBA ERLE
10 URTE

"Gustura etortzen naiz xakean egitera. Amarekin jolasten nintzen etxean, eta orduan dut gustuko. Ikasi egiten dugu hemen, eta jolastu ere bai".



MATTIN GOITIA
8 URTE

"Txikia nintzela, aitak erakutsi zidan xakean jolasten, eta orain hona etortzen naiz ikastera. Lehen, aitak irabazten zituen partidak, baina orain, nik".

"Aupa!

Lortu dot azkenien!

Oin, Debagoienien

nun erosi neike

auto bat?"



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

goienaOkmgida

Debagoiengan baldin badago,
hemen dago.



Goiena
Okm Gidaren
eskaintza osoa.



lazo irabazle Ainara Urrutia –argazkian helmugan– Kilimon Trail irabaztetik dator; domekarako faboritoetako bat da. I. SORIANO

Domekakoak errekorrak ontzeko osagaiak ditu

MENDI LASTERKETAK Arrasate-Udalatx lasterketaren zortzigarren edizioak 400 korrikalari batuko ditu irteeran (10:00). Mondraitzeko lagunek zuzeneko emanaldiaren aldeko apustua egin dute, eta 'Goiena.eus' atarian egongo da ikusgai

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE
Iazko eguraldi makurrak ez zuen baimendu korrikalariak errekorretatik gertu ibiltzea, baina domekarako bestelako iragarpenak daude, eta Mondraitz kirol klubeko lagunak garbi dute irteera puntuan batuko diren faboritoek eskura izan dezaketela 2022an Gontzal Murgoitio (1.47.22) eta Onditz Iturbek

(2.07.32) ezarri zituzten errekorrak ontzea. "Horretarako bi gauza behar dira, ibilbidea bikain egotea eta, noski, puntako lasterkariak izatea. Eta domekan biak izango ditu. Ainara Urrutia da emakumezkoetan faborito nagusia; joan den astean Kilimon Trail irabazi zuen, sasoiaren egongo da. Eta gizonezkoetan Ibai Larrea ere oso maila oneko ko-

rrikalaria da", adierazi dio GOIENARI aurtan lasterketa antolatzailerak gisa biziko duen Iñigo Alzolak.

Mondraitzekoek martitzenean aurkeztu zuten lasterketa, eta bi lagun horiez gain beste izen batzuk ere nabarmendu zituzten: "Garazi Abasolo, Ane Zabala eta Iera Urretagoiena garaipeneko lehian ibiliko direla espero da.

Lasterketari buruzko datuak

- Irteera ordua: 10:00.
- Distantzia: 21 kilometro.
- Desnibel metatua: 1.330 metro.
- Gehienezko garaiera: Udalatx, 1.092 metro.
- Korrikalari kopurua: 400.
- Debagoiendarrak: 215.
- Arrasatearrak: 126.
- Gizonezkoak: 357.
- Emakumezkoak: 43 –iaz baino %16 gehiago–.
- Lasterketako errekorrak: Gontzal Murgoitio (1.47.22) eta Onditz Iturbe (2.07.32). Biak 2022an.

Gizonezkoen artean, berriz, aurreko urteko txapeldun den Mikel Zabalegi, Aitor Ajuria, Walter Becerra eta Asier Azkara ere hor ibiliko dira".

Udalara autobusean

Aurtengo beste nobedadeetako bat izango da Udalaren ekimenez autobus zerbitzua egongo dela Udalara igo eta handik jaisteko. "Udala auzoko parkinga autoz betetzen da eta segurtasun aldetik ez da batera egokia, besteak beste, larrialdi zerbitzuetara begira. Horregatik, domeka goizean Udalara ezingo da autoz joan, zirkulazioa itxita egongo da, baina autobus zerbitzua egongo da, doan. Arrasate pasealekuko autobus geltokitik irten da –Arimazubi plaza alboan– bi autobus ibiliko dira joan-etorrian, 08:00etatik 13:30era.

Emankizuna zuzenean 'Goiena.eus'-en

laz moduan, aurtan ere lasterketaren kontakizuna zuzenean –Goiena.eus atarian– egitearen aldeko apustua egin dute Mondraitzekoek. "Ikusleendako halako lasterketak jarraitzea ez da erraza, ez direlako zirkuitu itxiak. Hala, trail mundu hau hazten dabil, eta halako emankizunek geroago eta harrera hobea dute. Iaz eguraldiak ez zuen batere lagundu, eta, hala ere, gustura geratu ginen emaitzarekin. Aurtan baliabide gehiago jarriko ditugu eta Mondraitzekoak, Artemanekoak eta Goienakoak ibiliko gara elkarlanean", adierazi du Iñigo Alzolak.

Hala, ibilbideko puntu finkoetako irudiak izateaz batera, eguraldiak lagundu egingo duenez, lasterketaren jarraipena egiteko Udalatxeko aireko irudiak ere hartuko dituzte, eta, horrekin batera, mendiko bizikleta elektrikoekin ere jarraituko eta grabatuko dituzte korrikalariak.

UDALA AUZORA JOATEKO AUTOBUS ZERBITZUA EGONGO DA, DOAN, ARIMAZUBI PLAZAKO GELTOKITIK

ERRUGBIA Ligako azkena Arrasateko neskendako bihar

Arrasateko eta Eibarko neskek osatzen duten taldeak ligako azken norgehiagoka –atzeratutakoa– jokatuko du zapatuan (13:00, Mojategi). Envases Rioja taldearen kontra. Arrasatearrak hamargarren daude sailkapenean (16 puntu) eta errioxarrak, azkenaurreko postuan. Gizonezkoen taldeak, berriz, zazpigarren postuan amaitu du liga.



Arrasatearrak erasoan. GOIENA

ARETO FUTBOLA Mondratek bigarren amaitu nahi du ligan

Denboraldi oso ona egiten dabilen Mondrate bigarren dago (50 puntu), Tolosalarekin berdinduta. Lider dagoen Antiguokok (67) beste maila bateko taldea daukala erakutsi du. Eskoriatzak azken bi partiduak irabazita arnas apur bat hartu du –12. postuan dago–. Asteburuan etxetik kanpora jokatuko dute bailarako bi ordezkariak.

ESKUBALOA Oñatiarrak ligako kantxa zailtako batera doaz

Ez dabil izaten urte erraza Fagor Professional taldeko mutilendako: hiru partidu irabazita azkeneko postuan daude Euskadiko Txapelketan eta hiru jardunaldi geratzen zaizkie liga amaitzeko. Hala, zapatuan (17:30) ligako kantxa zailnetako batean jokatuko dute, hirugarren postuan dagoen Txikipolit Zarautzen kontra.

PILOTA Bergara Hiriko bigarren jardunaldia martitzenean

Martitzenean, apirilak 16, jokatuko dute Bergara Hiria txapelketaren bigarren jardunaldia (19:30ean hasita). Aste barruan Balerdi antzuolarra kalean geratu ostean, oraingoan bergarar bat izango da seniorren partiduan: Ander Etxaniz. Bergarakoak Lozarekin osatuko du bikotea eta Amiano eta Garmendia izango dituzte aurrean.



Bergarako taldekideak, Agorrosingo aurtengo partidu batean, gol hat ospatzen; Zarautz dator zapatuan. I. SORIANO

Opor ostekoa trabatzen zaionak agur esango du

FUTBOLA Lider dagoen Aretxabaleta (60) eta Bergara (52) ligako azken txanpan sartu dira eta jokatzeko dituzten 21 puntuek erabakiko dute euren etorkizuna. Maila bat beherago, Mondrari iguera berrestea geratzen zaio; xanpaina hozten izango dute jada

Xabier Urtzelai Atxa ARETXABALETA Gizezkoen Ohorezko Erregionalari zazpi jardunaldi geratzen zaizkio eta jokoan dauden 21 puntuek askorako ematen dute. Izan ere, aurrealdean dabiltzan Aretxabaletak (60), Eibarrek (56), Zarautzek (56) eta, apur bat atzerago, Bergarak (52) Hirugarren Mailara igotzea dute begiz jota. Aste Santuko oporraldia bereziki liderrari etorri zaio ondo –asteburuko emaitzak berretsi beharko dute hori–; izan ere, oporren aurretik Calzonen mutilek bi partidu galdu zituzten jarraian, eta eskertuko zuten etenaldia. Ez da larritzeko momentua: Aretxabaletak bi partidu jarraian galdu zituen azke-

neko aldiaren abenduan izan zen, Eibarren eta Oiartzunen kontra–, eta ondoren, bederatzi partidu irabazi zituen jarraian. Domekan, atzealdeko postuetatik ihes egin nahian dabilen Urolaren bisita izango dute (16:30).

Liderraren akats txikienaren zain dauden bi talde dira Bergara eta Zarautz, eta zapatuan (11:30, Agorrosin) elkarren kontra jokatzeko dute. Zarautzarrek ondo dakite Agorrosin ze plaza zaila den –mahoneroek partidu bakarria galdu dute etxean–, eta Bergararen esku dago aurrealdeko lehia horretan gauzak gehiago estutzea.

Emakumezkoen Ohorezko erregionalean Amaiak Baten

kontra berdindu (1-1) eta gero, Debagoiena Bailarak Intxaurdirren kontra jokatzeko dute domekan Azkoagainen (12:30).

Mondrak eskura du iguera

Gorengo mailan Mondrak nagusitasun handia erakutsi du; sei jardunaldi geratzen dira eta zuri-moreek 13 puntuko abantaila dute –eta Aloña Mendiren kontrako partiduak alde–. Asteburuan bertan hasi daitezke zuri-moreak ospakizunetan, baldin eta zapatuan (16:30, Mo-jategi) Euskaldunaren kontra irabazi edo berdindu egiten badute eta Aloña Mendik domekan (16:30, Azkoagain) Ilintxaren kontra galdu egiten badu.

Galeano Antzuolako finalean da; Barrocalek Biarritzen du lehia

PILOTA Antzuolan jokatzeko duten Ados binakako txapelketako finalak bi debagoiendar izan ditzake

X.U. ARRASATE

Abenduan hasi zuten Ados Binakako Txapelketa azken txanpa erabakigarrian sartu da. Datorren asteburuan, apirilaren 21ean, jokatzeko dute Antzuolan final handia, eta dagoeneko herrikide bat sailkatu da norgehiagoka erabakigarriarako: Leire Galeano. Antzuolakoak joan den asteburuan jokatu zuten finalerdia, Labriten, eta Ruiz de Infanterekin bikotea osatuta 22-20 irabazi zieten Zabaletari eta Zabalarari. Txapelketa osoan egon den emozioa izan zen nagusi baita finalerdian ere. Tentsio handiko partidua jokatu zuten lau pilotariek, eta igarri egin zitzaizen zama. "Partidua ondo hasi dudala esango nuke, baina ondoren kosta egin zaigu norgehiagoka irabaztea. Bagenekien lana ondo egiten bagenuen norgehiagoka gogorra izango zela", adierazi zuen antzuolarrak.

Bi bikoteek azken unera arte izan zuten partidua irabazteko aukera, baina urdinek amaieran lortu zuten markagailua iraultzea (22-20), eta finalerako txartel preziatua eskuratu. Hala, finala etxeko zaleen aurrean jokatzeko ekar dezakeen presioari lotuta, zera erantzun zuen Galeanok. "Norgehiagoka berezia da, eta bai, etxean beti izaten da presio handiagoa, baina etxeko jarraitzaileen aurrean gustura jokatzeko dut beti".

Barrocalek, bihar

Oraindik baina, posible da beste debagoiendar bat ere finalean egotea, Maddi Barrocal bergararrak bihar, zapatua, izango duelako finalerdia Biarritzen (18:30, Plaza Berri pilotalekua). Bergararrak Agirrerekin dihar-du jokatzeko, eta aurrean izango dituzte Iturriaga eta Orbeago; sarrera 5 euro da.



Maddi Barrocal, artxiboko irudi batean. GOIENA



Realaren eta Real Madrilen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean!

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Real Madrid norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Real Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partidua apirilaren 27an izango da, 21:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: apirilaren 22a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Realak ikusteko aukera izango duzue!

goiena[™]
kide

Okm:
batzen gaituen distantzia

"Oso eskertuta gaude jasotako harrerarekin"

AMETS ORMAETXEA EZPELETA NEOMAK TALDEKO KIDEA

'Kontu zaharrak berri' biraren baitan, Arrasateko hiru kide dituen Neomak taldea Amaia antzokian izango da etzi, domeka, 19:30ean; sarrera guztiak agortuta daude

Aitziber Aranburuzabala Juldain
ARRASATE

2021ean egin zuten Neomak izenarekin lehen kontzertua, eta Arrasateko Pandero Jaialdian egin zuten bigarrena. 2022an argitaratu zuten diskoari zukua atera diote eta askotariko musika-zalaren egarriak asetzea lortu dute. Amets Ormaetxearekin egon da GOIENA (Arrasate, 1997). **Ordu erdi eskasean agortu ziren domekako kontzerturako sarrerak.** Bai; sorpresaz hartu genuen. 10:00etan hasi ziren sarrerak saltzen eta 10:20 bueltan zazpi bakarrik geratzen ziren. Eskerrak eman gura dizkiegu sarrerak erosteko ahaleginetan ibili zineten guztioi; webgunea kolapsatu egin zen, gainera.

Sarritan agortzen dira sarrek zuen emanaldietan; ohituta?

Egia da proiektu honen itxiera-kontzertu ia guztietan agortu egin direla, baina ez da beti hala gertatzen. Bira hau hasi genuenean denboratxo bat gindoazen kontzertuak egin barik, eta bukatzen dugunean beste tarte bat hartuko dugu agertokitik kanpo. Hortaz, zerbait puntuala dela esango nuke *sold out* kontu hori, baina oso eskertuta gaude, sekulakoa ari da izaten.

Bogan zaudete, indarra daukazue; non dago sekretua?



Neomak taldeko Amets Ormaetxea *Aioiai* bideokliparen grabaketan. MARIO LEZAUN

"GURE SUSTRAIAK NON DAUDEN BADAKIGU, BAINA GUSTATZEN ZAIGUNA EGIN NAHI DUGU"

Esango nuke horrenbeste denbora elkarrekin egotean dagoe la sekretua, eta denok bide antzerakotik eta denok interes berberak izatea; izan ere, oso ezberdinak gara taldekideak, baina adin eta bizipen antze-

rakoak ditugu, eta hor dago, nire ustez, sekretua.

Trikitiari eta panderoari helduta jarraitzen duzue, baina hainbat musika estilo uzartuta.

Bai; beti esaten dugu badakigula gure oinarriak eta sustraiak non dauden, baina horrek ez duela esan nahi beti hor egon behar dugunik. Guri gustatzen zaiguna egitea da gure helburua beti, gaur egun ikusiko eta entzungo genukeena egiteko gogoz. Uste dut denok eboluzionatzen dugula, eta gu ere ez gara txapelketatan ibiltzen ziren neska-

tila haiek; bagara, baina, aldi berean, ez; bada, hortik tiraka ari gara Neomak bideratzen. Egunerokotasunean entzuten dugun musika ez da trikitia bakarrik; egia da folklorezaleak garela, baina bestelako erreferentzia asko ditugu.

Zer jasotzen duzue zaleengandik? Zorionez, adin askotariko publikoa dugu; alde batetik, publiko oso gaztea dugu, baina baita jende heldua ere, eta, egia esan, oso eskertuta gaude.

Disko bakarraren ibilaldia Kontu zaharrak berri birarekin ari zarete borobiltzen; pozik?

Oso pozik gaude. Zazpi kantuko bildumak askorako eman digu, bai. 30 kontzertu inguru egin genituen iaz, eta ikaragarria da aretoetako biran jasotzen ari garen harrera. Donostian, Bilbon, Donibane Lohizunen eta Iruñean egon gara eta beste hiru geratzen zaizkigu eskaintzeko: Arrasaten, domekan; Azpeitian, apirilaren 20an; eta Gasteizen amaituko dugu, apirilaren 23an. Kontzertu bakoitzean gonbidatu bat dugu; Arrasatekoan, Galiziako Fillas de Cassandra bikotea.

Herri Urratsen ere izango zarete; zuek egin duzue aurtengo kantua.

Iazko jaialdian, eguraldiak hala behartuta, ezin izan genuen kontzertua osorik eskaini; hortaz, gogotsu goaz arantzatzko hori kentzera. Pozik hartu genuen kantua egiteko eskaintza eta sekulako plazera izan da.

Atsedean hartuko duzuela iragarri duzue, baina sortzen jarraituta.

Euskal Herritik kanpo pare bat kontzertu egingo ditugu udan, baina datozen hilabeteetarako gure asmo nagusia sortze-lanetan buru-belarri sartzea da. Ari gara kantu berriak sortzen dagoeneko; horrenbestez, etorriko dira gauratzko berriak.

Debagoieneko Dantzari Eguna bihar, zapatua, Arrasaten

Arrasateko, Antzuolako, Aretxabaletako, Oñatiko eta Eskoriatzako 170 dantzari batuko dira

A. Aranburuzabala ARRASATE

Arrasateko Txikitxu Arrostitxua eta Lore Gazteak taldeei egokitu zaie, Udalaren babesarekin, bihar ospatuko duten 29. Debagoieneko Dantzari Eguna antolatzea. Eskualdeko dantza taldeen arteko harremana sustatzea du helburu biharko topaketak. "Lau taldetako dantzari helduak gonbidatu ditugu: Antzuolako Oinarinekoak, Aretxabaletako Leizarra taldekoak, Oñatiko Oñatzeakoak, eta aurtun, estreinakoz, Eskoriatzako Gorosarri dantza taldekoak ere izango dira; bada, sei taldetako 170 dantzari inguru batzea aurreikusten dugu", diote anfitrioiak.

Egun osoko egitaraua

11:15ean abiatuko dira Kulturo-latik kalejiran, eta dantza saioa egingo dute ondoren, Herriko Plazan. Arrasateko Udaxpe txistulariak, gaiteroak eta Garinband taldeak, eskualdeko musikari gehiago eta Erraldoi eta Kilikien Konpartsa izango dituzte lagun.

Goizeko saioen ostean Kulturolan elkarrekin bazkaldu ondoren, erdiguneko kaleetan zehar ibiliko dira arratsaldean, Arrasateko Ttakun txalaparta elkarrekin kideen konpainian.

ARRASATE-UDALATX MENDI LASTERKETA

GOIENA TELEBISTA ETA 'GOIENA.EUS'

DOMEKAN, APIRILAK 14, 10:00ETAN ZUZENEAN 'GOIENA.EUS' ATARIAN
ASTELEHENAN, APIRILAK 15, 19:30EAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
'HARMAILATIK' SAIOAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Ane Cuestak zuzendu duen *Zirrara* film laburraren une bat. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Euskarazko film laburren zirkuitua, herriz herri

Euskaltzaleen Topaguneak bultzatzen duen euskarazko film laburren erakusleihu den 21. Laburbira ekimenak bost geltoki izango ditu Debagoienean; Jardun Euskara Elkarteak gonbidatuta, Bergarako Seminarixoan izango da gaur, 20:00etan hasita

Aitziber Aranburuzabala BERGARA "Euskarazko ikus-entzunezkoen aktibazioan eragiteko helburuarekin" abiatu zuen Euskaltzaleen Topaguneak Laburbira zirkuitua, tokiko euskara elkarteekin elkarlanean eta hainbat udalen babesa ere jasota. Gaur egungo euskal zinemagintzaren lagin bat herriz herri erakustea du aurten 21. aldia izango duen zirkuitu ibiltariak ere helburu. Gaur abiatu eta maiatzaren 12ra bitartean 37 herritan izango da euskal sortzaileen lanekin gozatzeko aukera.

Zortzi film labur
Euskal Herriko zinemagile profesionalek zein amateurrek

egindako lanen erakusleihu "zabala" izango da aurtengo zirkuiturako aukeratutako zerrenda ere. "Askotariko generoak, lan egiteko moduak, protagonistak eta istorioak aurkituko ditugu aukeratu ditugun zortzi filmetan. Honako hauek izango dira aurtengo emanaldietan ikusgai: Ander Iruretagoyenak zuzendu duen *Babesa*; Jone Arriolaren *Dena asmatuta dago*; Guillermo Ordasen *Katalinaren zoria*; Amaia Lejarretak zuzendutako *Erro*; Mikel Alvarezen *Mundu berri bat*; Ane Cuestaren *Zirrara*; Ilune Diaz eta Jordi Nueten *Talkak*; eta Kim Maitenyren *Betizu buru* izenekoa, hain justu. Debagoieneko zine-

magile askoren lanak batu izan ditugu, baina oraingoan ez da halakorik", azaldu dute Euskaltzaleen Topagunetik.

Bergaran gaur ikusgai
Bost saio izango dira Debagoienean: Jardun Euskara Elkartearen eskutik, Bergarako Seminarixoan, gaur; Antzuolako Udalak antolatuta, apirilaren 20an, Torresoroa aretoan; Txirritola Euskara Elkartearen eskutik, Aramaioko kultura etxean, apirilaren 28an; maiatzaren 7an, Arrasateko Amaia antzokian izango da, AEDren eskutik; eta Aretxabaletako Udalak antolatuta, Arkupe kultura etxera eramango dute, maiatzaren 9an.

Abiatzear Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen fasea

Debagoieneko bederatzi bertsolari izango dira lehian; eguenean izango da lehenengo saioa, Eskoriatzan

Aitziber Aranburuzabala ESKORIATZA Udazkenenean hasiko da aurten hamabigarrenez jokatu duten txapelketa, baina alde zuzenetik txartela eskuratu beharko dute izena eman duten 74 bertsolariarik. Horien artean hauek daude:

Eskoriatzako saioan izango den Jon Mata antzuolarra; Eskoriatzako Haizea eta Oihana Arana ahizpak; Oñatiko Aitor Tatiegi, Mainer Arregi eta Urko Arregi neba-arrebak, Urko Egaña Calderon; Martin Berrizbeitia are-

txabaletarra eta Ane Zuazubiskar arrasatearra.

Sarrerak eskuragarri
Hogei saiotan eta bi itzulitan banatu dute sailkapen fasea: Eskoriatzan abiatu eta Oñatin bukatuko da lehenengo eta beste bi saio egingo dituzte bigarren itzulian eskualdean: Antzuolan eta Elgetan.

Dagoeneko eskuragarri daude sailkapen faseko bi itzulietako saioen sarrerak, *Bertsosarrerak.eus* atarian.

Goienakideen txokoa

MARTXOKO IRABAZLEAK

- | | |
|--|---|
| INNJOO SUPERB TABLETA
Luis Maria Aranzeta Egizabal (Elgeta) | SIRIMIRI JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Amala Abarategi Aranburuzabala (Arrasate) |
| HARREMAN DENDAKO OTARREA
Mikel Garay Villar (Arrasate) | 'ALMAZENEAN' ANTZERKIRAKO SARRERAK
Aitziber Aitzpelea Alustiza (Oñati) |
| ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Maren Belastegi Guridi (Bergara)
Miren Arejolaleiba Agirrezabal (Oñati) | 'TEMPUS FUGIT' DANTZALDIRAKO SARRERAK
Loli Ceciaga Bengoa (Arrasate) |
| Vicente Medina Zabaleta (Oñati) | KORRIKAKO KAMISETAK
Kontxi Moyua Altube (Oñati) |
| GOIKO BENTA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Garazi Madinabeitia Kortabarría (Oñati) | Joxe Villar Carballo (Arrasate) |
| MAULANDA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Belen Zumalde Barrena (Oñati) | Julen Martin Arizabaleta (Oñati) |
| UXARTE JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Lorea Zurutuza Alberdi (Bergara) | Imanol Lukas Etxarri (Oñati) |
| | Nerea Sanzberro (Arrasate) |
| | Mikel Maiztegi Mugarza (Oñati) |
| | REALAREN ETA CADIZEN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK
Mari Asun Ibañe Oquina (Arrasate) |

SARRIAK JASOTZEKO:

Antzikruzteko sarrerak. Goiena Kluboak txartela eskututa, bina sarrera izango dituzte Antzikruzteko txarteldugan. Sarrerak hiru hilabeteko eremu izango dute. **ARRIKRUTZ KOBETAKO** Antzikruzteko Oñati: 943 06 20 00. **Dendak** antzerkitik igandean 10:00 - 17:00 (aurten deialdi hiru egiteko) Harenmendeko otaria. **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bakarreko txartelarekin, Harenmendeko Otaria. **Antzerkitako Erak** hipermarketuan duen dendara. **Tableta jasotzeko**, zator GOIENAREN egotzera. Saio jasotzeko, **BAZKIDEAREN TXARTELA** eskututa edota **BAZKIDE ZENBAKIA** adierazten duen txartela da. **GOIENAREN** Oñatara Lizarrialduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Oñatara: antzikruzteko@goiena.eus. 09:00 - 18:00. Egubakotzetan 09:00 - 14:00.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker
La sed del minotauro antzerkitako sarrerak ditugu.
Arrasate | Amala antzokia | Apirilak 21 | 19:30

PARTE HARTZEKO:
E-postaz: goienakide@goiena.eus **WhatsApp:** GOIENAKIDE "minotauro"
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen (DPO) 15/988 legearen arabera, jarduera honetarako zure datu pertsonalari Goiena Foruaren bitartez automatikoki bideratuko dira. Zure biletak haren helburu bakarra da indarrez dagoen zuzeneko gonarria. Eskubidea izango duzu datuak zuzentzeko, iruzkitzeko edo ezarritako helburu kanonikoetatik kanonikoki gaituraz.

Irabazi bi pertsonarendako otordua

ARANTZAZUKO JATETXEARI ESKER
Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: apirilak 16

- 943 25 05 05
- goienakide@goiena.eus
- 'Goiena app'-a / zozketa atalean.
- GOIENAKIDE Jasotzea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Bergara. Bergara erdigunean etxebizitza erosiko nuke. Hiru logela, igogailua eta garajeduna. Telefonoa: 653 29 37 04

Bergara. Artzamendi kalean edo inguruan etxebizitza erosiko nuke. Hiru logela, balkoia eta igogailua (ahal bada). Deitu 678 93 44 46 zenbakira.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Arrasaten etxea errentan hartuko genuke. Ume bakarrek familia gara. Biok lanean gaude. 680 87 38 66

Bergara. Bergaran etxea errentan hartuko nuke. Bi ume dituen ama naiz. Deitu telefono zenbaki honetara: 645 70 34 10

Oñati. Oñatin alokairurako etxe bila dabilen alaba bakarrek familia gara. Biok lanean. 632 69 62 33

3. LOKALAK

305. BESTELAKOAK

Arrasateko denda eskualdatzen da. Arrasaten dagoen Centro Cien bazarra eskualdatzen da, erretiroagatik. Saltokia Olarte kaleko 23. zenbakian dago, Arrasateko erdigunean. 635 71 60 44

Saltokia eskualdatzen da Aretxabaletan. Erositako aukera duen Tinta Beltza saltokia eskualdatzen da Aretxabaletan. Jostailuak, eskola-materiala eta bestelakoak saltzen dituen eta papergintza zerbitzua duen denda da. 943 77 07 92.

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate eta Aretxabaletan. Adineko pertsonak zaintzeko eta haien garbitasunean laguntzeko prest dagoen emakumea. Asteleheneretik ostiralera bitartean, edozein ordu-tegira moldatu naiteke. 624 69 88 81

Arrasate eta Bergara. Orduka lan egiteko, aste-buruetan edo gauetan

prest dagoen emakumezkoa. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Sozio-sanitario ikasketak ditut. 632 69 40 90

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsu eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

Bergara. Emakumea prest goizetan pertsona nagusiak zainduko. Deitu 642 37 01 92 zenbakira.

Bergara. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edo pasiatzera laguntzeko prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 611 24 18 98

Bergara. Mutil gaztea eraikitza lanetan laguntzaile gisa, pertsonen zaintza, lorezaintza-lanak eta taberna eta pisuetako garbiketarako egiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 671 64 11 25

Debagoiena. 38 urteko emakumezkoa lan egiteko gertu. Asteazken zehar 15:00etatik aurrera eta aste-buruetan etxetik kanpo edo orduka lan egingo nuke. 612 59 36 74

Debagoiena. Adineko pertsonak zainduko eta haien garbitasunean laguntzeko prest dagoen emakumea. Tabernetan ere lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egin dezaket, malgutasun osoa baitut. 688 75 22 52

Debagoiena. Arratsaldetan edo orduka etxeak edo atariak garbitzen lan egingo nuke. 613 21 78 61

Debagoiena. Emakumea prest pertsona nagusiak edo haurrak zainduko eta garbiketa lanetarako. Deitu telefono zenbaki honetara: 612 27 67 87

Debagoiena. Garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zainduko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. 602 82 99 55

Debagoiena. Emakumezkoa garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zainduko prest. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. 631 90 15 92

Debagoiena. Mutil arduratsua asteburutan lan egiteko prest. Nagusiak zaindu edo tabernetan lan egingo nuke. Telefonoa: 651 73 31 75

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke, baita orduka edo asteburuetan ere. Pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo pasiatzera laguntzeko eta garbiketa lanak egiteko gertu. Sozio-sanitario ikasketak egiten ari naiz. 672 96 46 49.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko prest dagoen emakumea. Pertsona nagusiak zaindu zein lagundu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu: 631 61 82 46.

Bergara. Neska pertsonak zainduko eta garbiketa-lanak egiteko prest. 671 64 11 25

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zainduko prest nago, baita tabernari lanak egiteko ere. Malgutasun osoa duen gizonzkoa naiz. 688 75 23 63

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka pertsona nagusien zainduzein lan egingo nuke. Sozio-sanitario ikasketak ditut. 677 00 90 26

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka pertsona nagusien zainduzein lan egingo nuke. Sozio-sanitario ikasketak ditut. 677 00 90 26

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka pertsona nagusien zainduzein lan egingo nuke. Sozio-sanitario ikasketak ditut. 677 00 90 26

Debagoiena. Garbiketa lanak egiteko eta pertsonak zainduko gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. 612 22 86 07

Debagoiena. Gizonzkoa pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia handikoa. Sozio-sanitario ikasketak ditut, baita garbiketa ikasketak ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Malgutasun osoa. Deitu zenbaki honetara: 643 47 39 37

Debagoiena. Haurrak edo pertsona nagusiak zainduko, garbiketa lanak egiteko edo bestelako edozein lanetarako prest. 611 24 18 98

Debagoiena. Neska arduratsua pertsona nagusiak zainduko prest. Etxean bertan bizi izaten, etxetik kanpo edo asteburuetan lan egingo nuke. Berehalako prestasuna. Deitu telefono zenbaki honetara: 613 13 51 88

Debagoiena. Neska euskalduna pertsona nagusiak zaindu, tabernetan lan egin edo bestelako lanak egiteko prest. Sozio-sanitario ikasketak egiten ari naiz. Aste-buruetan edo jai-egunetan lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 656 79 28 37.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Deitu zenbaki honetara: 647 31 48 17

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zainduko edo garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Garbiketa ikasketak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo bestela, malgutasun osoa dut. Deitu zenbaki honetara: 602 44 48 98

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo pasiatzera ateratzeko gertu dagoen mutila. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 604 28 78 39

Debagoiena. Neska arduratsua pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka lan egingo nuke. Deitu zenbaki honetara: 634 94 30 78

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Sozio-sanitario ikasketak ditut. Malgutasun osoa. Deitu zenbaki honetara: 642 79 62 62

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta etxe zein atarietako garbiketarako gertu dagoen emakumea. Malgutasun osoa dut. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo gauetan lan egiteko prest nago. Deitu zenbaki honetara: 656 69 28 80

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko prest nago etxe, baserri eta egoiztan. Autoa daukat. Sozio-sanitario eta eskor-gak maneiatzeko tituluak ditut. Malgutasun osoa dut. Harremanetan jartzeko deitzenbaki honetara: 631 98 15 50

7. ANIMALIAK

702. EROSI

Yorkshire txakurra erosiko nuke. Yorkshire txakurra erosiko nuke. Baldin baduzu edo laster izango baduzu, deitu telefono zenbaki honetara: 679 24 91 36

703. EMAN

Txakurkumeak oparitzen dira. Txakurkumeak oparitzen dira. Aita Border Collie. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 624 79 52 56

8. DENETARIK

805. TRUKATU

Txilar ezitia trukean. Txilar ezitia ematen da (miel de brezo) arrautzen, sagarren edo bestelako produktuen truke. Aretxabaletan jasotzeko prest. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 656 75 76 98


ASTEA GOIENA TELEBISTAN



LIBEREN KONTZERTUA

Bi boko taldeak Kooltur Ostegunetan egindako kontzertua osorik entzuteko aukera.

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 19:30 eta 23:30



ARRASATE-UDALATX LASTERKETA ZUZENEAN

Goiena.eus atarian emango dute domekan, 10:00etatik aurrera. Astelehenean laburpena, Harmailatik saioan.


'Harmailatik' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GIPUZKOAKO EZTI ONENA EZAGUTZEN

David Mansok egiten du Gipuzkoako ezti onena eta harekin egingo du berba Julen Muruak.

'Landara' Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30



MAIXA LIZARRIBAR KAZETARI GAZTEKIN

Arrasateko Gaztelupeko DBHko laugarren mailako ikasleek egingo diote elkarrizketa.

'Galdegazte' Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30



OIHANE MATEOSI ELKARRIZKETA

Amaia Uribe kazetariak egingo dio elkarrizketa EITBko kazetariari. Bi kazetarien arteko solasaldia.

'Elkarrizketa' Eguaztana, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goienakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagok argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

Korosti
inmobiliaria

Bergara: Ibarra,
87m² erabilgarri,
3 logela, ganbara eta
trastelekua. Erabat
kanpoaldekoa.
140.000€

Bergara: San Antonio,
69m² erabilgarri,
2 logela, terraza,
trasteleku eta garajea
igogailuarekin.
203.000€

Bergara: Iriburu,
73m² erabilgarri,
oso eguzkitsua eta
kanpoaldekoa. Eraikina
igogailuarekin.
155.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:



BERRI-ZAKUA



Mitxelo eta Lauri
Urrezko ezteiak beteko dituzte arrasatearrek apirilaren 13an. "Zorionak, Perez de Arenaza eta Basauri familien partetik! Segi zoriontsu izaten".



Iraia Ugarte Lopez de Okariz
Hilaren 31n jaio zen, Oñatin. Argazkian, anaia Eñautekin.

ZORION AGURRAK




ARETXABALETA Abel Sáez Bilbao
13an, 76 urte. Zorionak! Jarraitu holako energiakin, inork ezin zaitu geratu. Muxu handi bat etxeko guztion partetik, batez ere, Izaro eta Aitzolen partetik.



ESKORIATZA Beñat Arana Romero
Apirilaren 13an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Disfrutatu zure eguna topera! Asko maite zaitugu, aitaxo, amatxo eta Unai.



ARETXABALETA Eira Barkero Kortabarria
Apirilaren 13an, 2 urte. Zorionak, sorgiño! Korrikan bizkorra zara baina laster harrapauko zaitxugu besarkadaik goxuenak emuteko! Muxukote!



ARRASATE Ilazki Lorenzo Martinez
Apirilaren 12an, 8 urte. Zorionak, Ilazki! 8 urte! Asko maite zaitugu. Patxo erraldoi bat etxeko guztion partetik!



ARRASATE Izadi Bragado Alvarez
Apirilaren 12an, 13 urte. Zorionak, gure etxeko neska handiari! Pillo bat maite zaitugu. Muxu handi bat etxekoon partetik!



ARAMAIO Alain Larrañaga Iburguren
12an, 2 urte. Zorionak! Gaur 2 urteko guregana etorri zitzela! Zelako zoriontsu itxen guzkuzun... Asko maite zaitugu! Etxeko danon partetik.



ARRASATE Laia Ezkurra Iturbe
Apirilaren 12an, 12 urte. Zorionak, maitia! Urtebetetze ospakizun itzela eta urte borobila izan deizula. Muxu pila-pila!



BERGARA Maddi Milikua Mendizabal
Apirilaren 11n, 8 urte. Zorionak, maitia! Besarkada eta patxo potolo bat etxeko danon partetik.



OÑATI Unai Sanchez Arroiabe
Apirilaren 11n, 8 urte. Zorionak, Unai! Disfrutau zeure egunian! Patxo haundi bat danon partetik! Asko maite zaitugu!



OÑATI Izaro Bellido González
Apirilaren 10an, 12 urte. Zorionak, politt hori! Ondo Ondo pasa zure egunian! Muxu haundi bat familixaren partetik, asko maite zaitugu.



OÑATI Ani Idigoras Garcia
Apirilaren 10an, 6 urte. Zorionak, politta! Primeran pasatu zure urtebetetze egunean.



VILASSAR DE MAR Indar Mentxaka Calero
Apirilaren 10an, urtebete. Zorionak, politxo! Primeran pasau eguna eta asko disfrutau! Patxo eta besarkada haundi bat Arrasatek!



BERGARA Isolde Beristain Laskurain
9an, 13 urte. Zorionak, Isolde! Oso ospatu dugu zure urtebetetze eguna. Muxu haundi bat familia guztieren partetik.



OÑATI Maitane Dorado Fuente
Apirilaren 8an, 39 urte. Zorionak, guapisima! Disfrutau eguna topera ta jarraitu zoriontsu izaten, muxu erraldoiak familia osoaren partetik.



ANTZUOLA Elene Kone Mugica
Apirilaren 8an, 9 urte. Urte askotarako, Elene! Oso ondo pasau eta txokolate goxua in. Ainara, Aitziber, Aitor eta Irati.



OÑATI Eñaut Ugarte Lopez de Okariz
Apirilaren 6an, 4 urte. Zorionak, pitxin! Ondo ospatu eta asko disfrutau zure urtebetetze egunian. Patxo potolo bat! Asko gura zau!




ARRASATE Enaitz eta Iradi Ibarrodo Belategi
Apirilaren 6an, 4 urte. Zorionak, bikote! Primeran igaro zuen eguna. Asko maite zaituztegu. Musu eta besarkada potolo etxeko guztien partetik.



OÑATI Auritz Gorosabel Urrutia
Apirilaren 6an, 14 urte. Zorionak, Auritz, familixa danan partetik! Asko disfrutau ta ondo pasau zure eguna! Asko gura du!



BERGARA Enara Martin Unamuno
Apirilaren 4an, 12 urte. Zorionak, Enara! Segi beti bezain alai! Asko maite zaitugu!



OÑATI Ekain Bartolome
Apirilaren 4an, 3 urte. Gure etxeko txikiak 3 urteko egiten ditu ia. Zorionak etxekoen partetik maitia!



BERGARA Ainere Gallastegi Lete
Apirilaren 4an, 11 urte. Zorionak, politxo! Atzo zalakuan eta iada 11 urte. Segi horren alai eta jator izaten, gure bizitzak alaitzen. Mila muxu maite.



ARRASATE Markel Errasti Canales
Apirilaren 4an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasau zure urtebetetze egunean. Musu handi bat familien guztien partetik.



ARRASATE Sara Zabaloa
Apirilaren 3an, 10 urte. Zorionak, maitia! 10 urte! Disfrutatuko dugu familian. Muxu!



OÑATI Ibai Aramburu Gende
Apirilaren 3an, 3 urte. Zorionak, Ibai! Primeran pasatu zure eguna. Patxo haundi bat familixa danan partetik.



OÑATI Markel Egaña Agiriano
Marxoaren 29an, 4 urte. Zorionak, Markel! Ondo ondo pasau zure eguna. Patxo haundi bat familixa danan partetik.



OÑATI Ane Ormazabal Alonso
29an, 31 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzipitezza! Muxu haundi bat lagunen partetik! Asko Maite zaitugu!



ARRASATE Elene Garcia
Marxoaren 27an, 10 urte. Zorionak, Elene! Aurten oporretan ospatu dugu! Asko maite zaitugu! Patxo erraldoia danon partetik!



OÑATI Eneko Lera Diaz
Apirilak 12an, 1 urte. Zorionak, Maitia! Egund polita izan eta segi horrela, gure bizitzak alaitzen! Patxito asko familia danan partetik!

ZORIONTZEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta Goiena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Golenara edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

HILETA

**Juan Osa Unamuno**

2024ko martxoaren 18an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, Juanitoren familiaren izenean, egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztioi.

Ondra-meza zapatuan izango da, apirilaren 13an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Oñatin, 2024ko apirilaren 12an

URTEURRENA

**Ana Maria Guridi Aguirrebengoa**

2023ko apirilaren 7an hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, apirilaren 13an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren parrokiari.

Aldez aurretik, esker on bertaratzzen zareten guztioi.
Oñatin, 2024ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA

**Rikardo Marrero Arostegi**

Eneko Marreroren aita

2024ko apirilaren 4an hil zen, 50 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

Kurtzebarri BHIko langile, guraso eta ikasleak.
Aretxabaletan, 2024ko apirilaren 12an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 12 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 78 15 15

Zapatua, 13 JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

Domeka, 14 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 78 22 26

Astelehena, 15 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

Martitzena, 16 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Eguaztena, 17 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

Eguena, 18 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 12 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Zapatua, 13 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Domeka, 14 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Astelehena, 15 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Martitzena, 16 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Eguaztena, 17 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Eguena, 18 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 12 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Zapatua, 13 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Domeka, 14 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Astelehena, 15 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Martitzena, 16 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguaztena, 17 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Eguena, 18 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

HILDAKOAK

Fernando Echevarria Elorza. Aramaion, hilaren 4ean. 79 urte.**Ildefonso Lorenzo Gutierrez.** Aretxabaletan, hilaren 4ean. 87 urte.**Rikardo Marrero Arostegi.** Aretxabaletan, hilaren 4ean. 50 urte.**Julian Mendo Boyero.** Aretxabaletan, apirilaren 2an. 93 urte.**Mercedes Diez Sanabria.** Arrasaten, apirilaren 6an. 80 urte.**Ovidio Diez Dominguez.** Arrasaten, apirilaren 6an. 95 urte.**Micaela Rodriguez Diez.** Arrasaten, apirilaren 10ean. 84 urte.**Basilio Arana Askasibar.** Angiozarren, apirilaren 2an. 88 urte.**Laura Ubierna Imaz.** Bergaran, apirilaren 4ean. 66 urte.**Joaquin Sabalza Mancho.** Oibar-Bergaran, hilaren 6ean. 91 urte.**Ludi Del Pozo Rozados.** Bergaran, apirilaren 9an. 78 urte.

URTEURRENA

Jose Iñarra Alberdi

M. Angeles Muruaren alarguna



2023ko martxoaren 27an hil zen, 85 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, apirilaren 13an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren parrokiari.

Aldez aurretik, esker on bertaratzzen zareten guztioi.
Oñatin, 2024ko apirilaren 12an.

URTEURRENA

**Pilar Agirre Ugalde**

2023ko apirilaren 3an hil zen.

Urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 14an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik, mila esker.
Bergaran, 2024ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA

Karmele Iparragirre Gandiaga

2024ko martxoaren 28an hil zen.

Laguna, burkidea eta borrokalari nekazaina.

ehbilduArrasateko EH Bildu.
Arrasaten, 2024ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA

**Jose Antonio Ardanza Garro**

ARRASATEKO ALKATE OHIA

(1979-1983)

Arrasateko Udalak doluminak adierazi nahi dizkie senide eta lagunei.

ARRASATEKO UDALA.
Arrasaten, 2024ko apirilaren 12an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena

Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € /

Goienakideko bazkideendako 195 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en:

195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienan.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otarora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.**BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.**ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

OROIGARRIA



Rikardo Marrero Arostegi
'Ritxi'



2024ko apirilaren 4an hil zen, 50 urte zituela.

*Zure irribarrea eta umorea beti izango dira gure artean.
Agur eta ohore, laune.*

BARIKUTXU.
Aretxabaletan, 2024ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA



Rikardo Marrero Arostegi



2024ko apirilaren 4an hil zen, 50 urte zituela.

*Salitritz bete jakuz begixek
Mamarrutxo bat lasterka ihesian
eta hor goixan
kanaixu bat guri kantuen*

Atxabaltako kutxipandia.
Aretxabaletan, 2024ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA



Rikardo Marrero Arostegi



2024ko apirilaren 4an hil zen, 50 urte zituela.

Gero arte.
—
Eskerrik asko goxo-goxo babesa eman diguzuen guztioi.

Amaia eta Eneko Aritza
Aretxabaletan, 2024ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA



Pili Echeverria Aldalur



2024ko martxoaren 29an hil zen, 79 urte zituela.

*Azken muxua eman eta begiak ibxi dituzu.
Ez da zaila izango itsaso eta zeru urdinean begi horiek sentitzea.*

Maitasunez, zure lagunak.
Bergaran, 2024ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA



Cayetano Rivas Barbero
'Tano'



2023ko apirilaren 13an hil zen, 70 urte zituela.

*Zure bidean, gure bidean goaz elkarrekin.
Aurrera egingo dugu, heldu eskutik...*

Arrasaten, 2024ko apirilaren 12an.

OROIGARRIA

M. Asun Elkorobarrutia Iribecampos



Txomin Otxoaren alarguna
2024ko martxoaren 30ean hil zen, 84 urte zituela.

*Hutsune handia zuk utzi duzuna.
Baina, zure irribarrearen oroimenarekin eta emandako guztiarekin
saiatuko gara betetzen.
Betirako gure bihotzean!*

Elkorobarrutia familia.
Aretxabaletan, 2024ko apirilaren 12an.

ESKER ONA

Pili Echeverria Aldalur




2024ko martxoaren 29an hil zen, 79 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2024ko apirilaren 12an.

ESKER ONA



Ludi Del Prado Rozados




2024ko apirilaren 9an hil zen, 78 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2024ko apirilaren 12an.

ESKER ONA

Julian Mendo Boyero



2024ko apirilaren 2an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2024ko apirilaren 12an.

ESKER ONA



Luis Arregui Uribesalgo
Agustindarra



2024ko martxoaren 30ean hil zen, Argentinako San Salvador de Jujuy, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
elizkizunera etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2024ko apirilaren 12an.



Oroilore
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurnutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gugan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban, Maribi eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 12

ELGETA Frontenis txapelketa
Lehenengo jardunaldia.
Pilotalekuan, 15:00etan.

ELGETA Ipuinen Ordua
Ipuin kontalari taldearen eskutik.
Liburutegian, 17:30ean.

ARETXABALETA Andramaixak prestatzeko asanblada
Lehenengo bilera.
Udaletxe zaharrea, 17:30ean.

ARRASATE Altamirako jaiak
18:30ean, txupinazoa eta III. Altamirara igoera; 19:00etan, auzo tabernaren irekiera; 20:00etan, gaztetxoendako zinema-emanaldia; eta 22:30ean, musika emanaldia.
Altamiran.

ARRASATE AGAKOren 33. urteurrena
18:30ean, *Krisi ekologikoa aztergai* hitzaldia; eta 20:00etan, eolikoaren aurkako mural-margotzea.
Gaztetxean.

ARRASATE 'Trapu zikinak' antzezlan
Garbilekuetan bildu eta lan egiten zuten emakumeen lanari aitortza egiteko Lore More taldeak sortutako lana.
Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:00etan.

OÑATI 'Arantzazu: 36 zm, 5 mende, herri 1' dokumental
Pello Sarasuaren lana estreinatuko dute. Eñaut Elorrietak musikatuko du ekitaldia, eta dokumentaleko parte-hartzaileek solasaldia egingo dute.
Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ESKORITAZA 'Maitatzeari' ikuskizun poetiko musikatua
Hiru gizon maitasun erromantikoaren moldeak hautsiz, Popatik Band taldearen eskutik. Debalde.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

BERGARA Laburbira
Euskarazko film laburren saioa. Sarrerak, bi euro.
Seminarixoa, 20:00etan.

ARETXABALETA 'Baginaren bakarrizketak'
Adin, arraza eta maila kultural eta sozial askotariko 200 emakumeri egindako elkarrizketen emaitza da. Sarrerak, bost euro.
Arkupen, 20:00etan.

BERGARA 'Euskara, gazteak eta beste piztia mitologiko batzuk' bakarrizketa musikatua
Bergarako Sortuk antolatutako Udaberri Feminista ekimenaren baitan.
Kartzela zaharrea, 22:30ean.

ZAPATUA 13

ARRASATE AGAKOren 33. urteurrena
10:00etan, eolikoaren aurkako mendi martxa Besaidera; 16:30ean, *Lurraren defentsan Euskal Herria bizirik* Azpeitiko manifestaziorako hitzordua; eta 22:00etan, Neskatasuna eta Yugular taldeak (sarrerak, bost euro).
Gaztetxean.

ARRASATE Altamirako jaiak
10:00etan, sirena doinua eta yoga familiar; 11:00etan, atartearen arteko tortilla lehiaketa; 11:30ean, gaztetxoendako jolasak eta auzo tabernaren irekiera; 13:15ean, euskal dantzak; 15:00etan, auzo bazkaria; 18:00etan, marrazki lehiaketa eta umeendako tailerrak; 18:30ean, txantxiku-jolas txapelketa; eta 22:00etan, DJ Goikolea.
Altamiran.

BERGARA 'Elikadura kontzientea' tailerra
Jabekuntza Eskolaren baitan.
Irizar jauregian, 10:30ean.

ARRASATE 'Makinak gara' tailerra, familian
Arraguak dinamizatuta. Gaur, hirugarren saioa.
Kulturaten, 11:00etan.

BERGARA XX. Apirilean Musika
Flauta topaketa egingo dute. Gainera, musika eskolako trikitilariak Iruñeko Euskal Herriko Trikiti Egunean parte hartuko dute.
Mariaren Lagundian, 12:30ean.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria
3 eta 12 urte arteko haur eta aurrenerabeendako. Orduategia: 11:30-13:30.
Erguingo gazte txokoan.

ARRASATE Bailarako Dantzari Eguna
Oñatiko, Eskoriatzako, Aretxabaleako, Antzuolako eta Arrasateko dantzariak parte hartuko dute.
Arrasaten, 11:30ean.

BERGARA 'Han egon zen. Jose Luis Elkoro, bizitza bete bat' liburuaren aurkezpena
Mikel Zubimendi egileak aurkeztuko du.
Osoko bilkuren aretoan, 11:30ean.

ANTZUOLA Aiherra-Antzuola, 40. urteurrena
12:00etan, *Oiogorri* filmaren aurkezpena eta *40 urte argazkitan* argazki emanaldia; 14:30ean, bazkaria; 16:00etan, Joxe Mendizabalen kontzertua; 19:00etan, Itzal taldearekin erromeria.
Antzuolan.

ARETXABALETA 'Munduari itzulia 80 egunetan' antzezlan
Sustrai Teatrotan lana, Eriz Alberdi aktorearekin. Sarrerak, hiru euro.
Arkupen, 17:00etan

ARETXABALETA Gipuzkoako bola-txapelketako jaurtialdia
Izen-ematea: bost euro.
Bolatokian, 17:00etan.

OÑATI Jardunaldi Antifaxista
17:30ean, Maddi Arlanzonon kontzertu akustikoa, Arrano tabernan; eta, 20:00etan, Zentzu Okerra, Nikotina, Lee Kore eta Herdoil, gaztelekuan. Sarrerak: aurrez, zazpi euro; egunean, hamabi.
Oñatin.

BERGARA 'Martina eta paperezko basoa' antzezlan
L'Horta Theatre-ren lana. Sarrerak, lau euro.
Seminarixoa, 18:00etan.

ESKORITAZA Garazi eta Sala
Emanaldi akustikoa.
Urrestilla tabernan, 18:00etan.



SUSTRAI TEATRO

ARETXABALETA 'Munduari itzulia 80 egunetan' antzezlan
Sustrai Teatrotan eta Eriz Alberdi aktoreak Phileas Fogg-en istorioa kontatuko diete ikus-entzuleei, zakar-poltsak, erratzak, zoru-garbigailuak eta trapaak erabili, besteak beste. Sarrerak, hiru euro.
Bihar, zapatua, Arkupen, 17:00etan.

ARRASATE Musakolako balkoira txangoa
Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

DOMEKA 14

OÑATI Aitzulora mendi ibilaldia, familiendako
Lau kilometroko ibilaldia. Izena ematea derrigorrezkoa da: 943-78 28 94 edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus*.
Araotzen, 10:00etan

BERGARA XX. Apirilean Musika
Bergarako eta musika eskolako banden kontzertu didaktikoa.
Udal pilotalekuan, 12:30ean.

ARETXABALETA Paul San Martin eta Fran Serrano
Jazz, blues eta boogie-woogie doinuak eskainiko dituzte. Sarrerak, bost euro.
Arkupen, 19:00etan.

ARRASATE Neomak taldea (sarrerak agortuta)
Ohikoa duten ikuskizuna.
Amaia antzokian, 19:30ean.

ASTELEHENA 15

BERGARA Oinarrizko txalaparta ikastaroa
Hasiberrientzat. Apirilaren 22an ere egingo da.
San Joxepe elkarte, 10:30ean.

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio publiko duinak eskatuko dituzte Antzuolan, Oñatin, Arrasaten eta Bergaran.
Herri horietan, 12:00etan.

ARRASATE 'Palestina: gizatasun krisia' hitzaldia
Mohamed Farajallah ekintzaile palestinarra eta Barbara Ruiz Balzola UNRWA Euskadiko kideak egingo dute berba.
Kulturaten, 18:00etan.

MARTITZENA 16

ELGETA 'Bizkarsoro' filma
Josu Martinezek zuzendutako fikziozko lana. Debalde.
Espaloian, 18:00etan.

OÑATI Termiten maparen gaineko informazio saioa
Egitasmo horren gaineko informazio saioa.
Zinema-aretoa, 18:00etan.

ARRASATE 'Zinema eta buru-osasuna' zikloa
Inocencia interrumpida pelikula emango dute, eta ostean solasaldia Agifeseke kideekin, filmaren mezuan sakontzeko.
Kulturaten, 18:00etan.

ANTZUOLA 'Etorrizuneko hilerria marrazten' ekimena
Itzulera tailerra egingo dute. Parte hartzeko: 644 12 60 91.
Olaran etxean, 18:00etan.

ARAMAIO 'Krisi klimatikoa eta erronka sozioekonomikoak' hitzaldia

Unai Pascualek egingo du berba, +55elkartegiak egitasmoan. *Kultura etxean, 18:00etan.*

BERGARA 'Euskararen egoera gaur' hitzaldia

Iñaki Iurrebaso egingo du berba. Interesa duen edonorendako. *Udaletxean, 19:00etan.*

ARETXABALETA 'Udalatx, ura eta atxa' dokumentala

Besaide Mendizale Elkarteak ekoiztutako dokumentala. *Arkupen, 19:00etan.*

ARRASATE 'How to have sex' pelikula

Martitzenetako zinema-emanaldia. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

EGUAZTENA 17**ANTZUOLA XX. Apirilean Musika**

Piano eta gitarra ikasle antzularren entzunaldia. *Eguneko zentroan, 15:30ean.*

ELGETA 'Nola zaindu seme-alaben emozioak?' tailerra

Donna Apellanizek gidatuko du, *Treba gurasoak* programaren baitan. *Udaletxean, 17:00etan.*

ARETXABALETA 'Euskara, aurrera ala atzera goaz?' hitzaldia

Imanol Larreak, Jon Sarasuak, Jasone Mendizabalek eta Mari Karmen Arrietak egingo dute berba, Arizmendi Ikastolaren XX. urteurrenaren harira. *Arkupen, 18:00etan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko. *Oxirondon, 18:00etan.*

OÑATI 'Oñatiko musikaren iragana eta oraina' mahai-ingurua

Iñigo Biain, Naia Herraek, Jesus Mari Aranburu eta Aitor Regueiro dira gonbidatuak, Aitziber Aranburuzabalak gidatuta. *Kultura etxean, 19:00etan.*

ARRASATE 'Iruña-Veleia auzia lehertu eta 15 urtera' hitzaldia

Juan Martin Elexpuruk egingo du berba. *Kulturateko areto nagusian, 19:00etan*

BERGARA 'May december' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsoian eta azpitu-luekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarihoan, 20:00etan.*

EGUENA 18**ARRASATE Sasoibide**

Bixi-bizi tailerra egingo dute Musakolan. *Musakolako kiroldegian, 10:00etan.*

OÑATI Gizonendako foro irekia

Hiruki Larroxa taldeko kide Joseba Gabilondok gidatuko du. Bigarren saioa da. *Euskaldun Berria gelan, 17:30ean.*

ARRASATE 'Nola erosi ditzaket elikagai jasangarriagoak diru asko gastatu gabe?' hitzaldia

Herritar guztiendako. *Kulturaten, 17:30ean.*

ARRASATE Hitzaldia: 'Suizidioaren prebentzioa bultzatze gako'

Eva Bilbaok eta Agustin Erkiziak eskainiko dute saioa. *Kulturaten, 18:00etan.*

ANTZUOLA Irakurle taldea

Annie Ernaux-en *Emakume izoztua* liburuaren gaineko saioa, Alaine Agirrek gidatuta. *Olaranen, 18:00etan.*

OÑATI 'Emantzipaziorako etxeko ekonomia' hitzaldia

Emantzipaziorako etxeko ekonomiari buruzko hitzaldia Maratx zerbitzuaren eskutik. Izena emateko: gaztelekuko bulegoa edo *gazteinformazioa@onati.eus*. Leku mugatuak. *Gaztelekuan, 18:00etan.*

OÑATI 'Disco boy' filma

Jatorrizko bertsoian eta azpitu-luekin. Sarrerak, bost euro. *Zinema aretoan, 19:30ean.*

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Sara Zozaya

Donostiako abeslariren emanaldia. Sarrerak, zapzi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

EGUBAKOITZA 19**OÑATI Odol-ateratzea**

Aurrez hartu behar da ordua: 943-00 78 84. *Enpresagintzan, 16:30ean.*

OÑATI Bertso paper lehiaketako sari banaketa

Julio Soto bertsolariak banatuko ditu sariak. *Gaztelekuan, 17:30ean.*

BERGARA XX. Apirilean Musika

18:00etan, *Txit, oilo bitxia* ikuskizuna egingo dute musika tailerrekoek eta gitarra ikasleek; eta 19:15ean, suzuki eta biolin ikasleen emanaldia. *Seminarihoan.*

ARRASATE AGAKOren urteurrena

18:00etan, mahai-futbol txapelketa (bikoteak, bost euro) eta 22:00etan, mural-margotzea, *Erasorik ez erantzunik gabe* leloarekin. *Gaztetxean.*

ESKORIATZA 'Lagun bat badut' emanaldia

Ondoren, *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu*. Aitona-amonen biografien lehiaketaren sari banaketa eta irabazleen irakurketa. *Zaldibar antzokian, 18:30ean.*

ARRASATE 'Foto Laso' dokumentala

Arrasate Zientzia Elkarteak ekoiztutako lana. *Amaia antzokian, 19:00etan.*

ARRASATE 'Txotxparta' afari ekimena

19:00etan, poteoa, Iratin hasita; 20:30ean, autobusa erdiguneko geltokitik; 21:30ean, afaria Iturrietan, txalaparta doinuekin; eta 00:15ean, itzulera. *Arrasaten.*

ARETXABALETA Castellers de Vilafrancako enakustaldia

Irekia. *Herriko Plazan, 19:00etan.*

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA****La familia Beneton**

Zapatua eta astelehena: 19:30.

Museoaren zaindaria

Zapatua: 17:00.

BERGARA**SEMINARIHOA****Desconocidos**

Domeka eta astelehena: 19:30.

Kung Fu panda 4

Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA****'Arantzu: 36 zm, 5 mende, herri 1'**

Zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka eta astelehena:

19:30.

Johnny Puff: mision secreta

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**FLORIDA****Pájaros**

Egubakoitzetik domeka: 17:00, 19:15, 21:30. Astelehena: 17:30, 19:30.

Martitzena:

17:00. Eguaztana: 17:00, 19:30. Eguena: 16:45, 19:00.

La familia Beneton

Egubakoitza: 17:00, 19:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 18:30.

Pequeñas cartas indiscretas

Egubakoitzetik domeka: 17:00, 21:45.

Astelehena, martitzena eta eguaztana:

16:45, 19:00. Eguena: 16:45.

Puan

Egubakoitzetik domeka: 21:30. Astelehena: 19:30. Martitzenetik eguenera: 17:00, 19:30.

Radical

Egubakoitzetik domeka: 21:00.

Astelehenetik eguenera:

17:00.

El milagro de la Madre Teresa

Egubakoitzetik domeka: 19:00. Astelehenetik eguenera: 17:00.

El salto

Egubakoitzetik domeka: 16:30, 20:30, 22:30. Astelehenetik eguenera: 19:30.

Emma y el jaguar negro

Egubakoitza, astelehena, martitzena eta eguaztana: 17:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

HLM Pussy

Egubakoitza: 16:30, 20:30. Zapatua eta domeka: 20:30.

Astelehenetik eguenera:

17:00.

La segunda vuelta

Egubakoitza: 18:30, 22:30. Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 22:30. Astelehenetik eguenera: 19:00.

Menudas piezas

Egubakoitzetik domeka: 17:30, 19:45, 22:00. Astelehenetik eguaztana: 17:00, 19:00. Eguena: 17:00, 19:15.

Sangre en los labios

Egubakoitzetik domeka: 19:15, 21:30. Astelehenetik eguaztana: 19:15.

Erlauntza

Eguena: 19:00.

El chico y la garza

Zapatua: 12:00.

Robot dreams

Zapatua eta domeka: 12:00.

Cazafantasmas: el imperio helado

Egubakoitza, astelehena, martitzena eta eguaztana: 19:15.

Zapatua eta domeka:

12:00, 19:15.

Johnny Puff: mision secreta

Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA**Pajaros**

★★★★★

Zuz.: Pau Durá. **Herr.:** Espainia (2024). **Aktoreak:** Luis Zahera, Javier Gutierrez, Teresa Saponangelo. **Iraupena:** 100 minutu.

Bidaia gorabeheratsua**ANTONIO ZABALA**

Pájaros filma *road movie* generoaren barnean koka daiteke. Istorioren bi pertsonaia nagusiek bidaia luze bat egiten dute. Valentzian hasiko dira eta Kataluniatik, Turindik, Esloveniatic eta Hungariatik pasatu ostean Bukarestera helduko dira. Bi pertsonaia guztiz desberdinak dira: autoaren gidaria gizon berritsua, zabala eta trikimailuetan trebea; eta autoren jabea, hitz gutxikoa, barnekoia eta misteriosua. Bidaia luzatzen doan neurrian, bidaiaren benetako helburua argitzen joango da. Bidaiaren gorabehera desberdinak bizi izango dituzte eta bidean topatuko dituzten pertsonaien bitartez ezagutzen eta gerturatzen joango dira bi protagonistak.

Duraren lanak bidaietako filmen ezaugarriak ditu. Bidaia fisikoak autoan egiten dituzten orduak eta kilometroak—pertsonaien bidaia barnekoia eragiten du. *Pájaros* nahiko ezaguna egiten zaigu. Egia da intriga eta ikuslearen arreta mantentzeko datu batzuk istorioaren zehar ezagutzen joango garela, baina ikusten dugunak ez digu ezer berririk kontatzen edo sakontasun berezirik sortzen. Filma arazorik gabe ikusten da. Javier Gutierrez eta Luis Zahera aktoreek ederki islatzen dute pertsonaien izaira, eta ondo moldatzen dira komedia eta alde sentimentalarekin jokatzera. Baina nahiz eta *Pájaros* ondo ikusten den filma izan, ez du arrasto berezirik uzten.



Algaraka

BAKARRIZKETA LEHIAKETA

Euskal Herriko bakarrizketa lehiaketa!

1.000 euroko
saria irabazlearendako!



Izena emateko epea zabalik
apirilaren 19ra arte 'algaraka.eus'-en.

ANTOLATZAILEAK



goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



SAIOEN EKOIZPENA



goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

abao